

Txostenaren aldia
2023ko uztailetik 2024ko ekainera

Urteko txostena, laugarrena, balorazio
batzordearena, Euskal Autonomia
Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean
izandako motibazio politikoko

indarkeria-egoeran
giza eskubideen
urraketak jasan
dituzten biktimei
aitortza eta
erreparazioa
ematekoa





Giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei
errekonozimendua eta erreparazioa emateko Balorazio Batzordea
2023ko uztailetik 2024ko ekainera

Bat etorrira uztailearen 28ko 12/2016 Legearen 18.5 artikularekin eta otsailaren 25eko 20/2020 Dekretuaren 12. artikularekin (dekretu horren bidez, motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketan biktimen errekonozimendu eta erreparaziorako prozedura garatzen da), Balorazio Batzordeak (aurrerantzean, Batzordea esango diogu) *“urtero egin beharko du txosten bat, non azaldu beharko baititu egindako lanaren alderdi hauek, gutxienez:*

- a) Sarrera bat, txostena dagokion garai eta moduan kokatzeko.*
- b) Egindako zereginen kontu-ematea, non, uztailearen 28ko 12/2016 Legearen 18.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek gutxienez jaso beharko baitira: lanaren emaitzak, ikerketen emaitzak, bildutako datuen ezaugarriak, aurkeztutako eskabideak, eta gertatutakoa zehatz-mehatz eta benetan ezagutzen laguntzen duen bestelako datu oro.*
- c) Hobetu beharreko arloei edo garatu beharreko ekimenei buruzko gomendioak uztailearen 28ko 2/2016 Legea ezartzean, zehazki, eta giza eskubideen urraketan biktimak aitortzeko politiketan, orokorrean.*

Dokumentu honen xedea, *Batzordearen urteko laugarren txostena* denez, konpromiso horri erantzutea da. Legean aurreikusten den eskemari jarraikiz, txostenak honako atal hauek dauzka:

I. Sarrera

II. Egindako zereginen kontu-ematea

- 1. Balorazio Batzordea
- 2. Egindako lanak
 - 2.1. Egindako instrukzio-lana
 - 2.2. Emandako 93 aitorten-ebazpenen sailkapen xehatua
- 3. Aztertutako kasuen izaera eta ezaugarriak, eta ikuspegi biktimologikoa
 - 3.1. Guardia Zibilaren eta Poliziaren bala-tiroen ondorioz gertatutako heriotza
 - 3.2. Poliziaren zaintzapean gertatutako heriotzak
 - 3.3. Talde parapolizialen atentatuaren ondorioz gertatutako heriotza
 - 3.4. Beste inguruabar batzuetan gertatutako heriotza
 - 3.5. Zaurituak
 - 3.5.1. Atentatu parapolizialetan
 - 3.5.2. Poliziaren tiroen ondorioz

- 3.5.3. Gomazko pilotek jota
 - 3.5.4. Ke-potoak jota
 - 3.5.5. Eraso larrien ondorioz
 - 3.5.5.1. Polizia Nazionalarenak eta Ertzaintzarenak
 - 3.5.5.2. Talde parapolizialenak
 - 3.6. Tortura eta tratu txar larriak pairatutakoak
 - 3.6.1. Tortura, genero-ikuspegitik
 - 3.6.1.1. Emakumeei dagokienez
 - 3.6.1.2. Gizonei dagokienez
 - 3.6.2. Atxiloketa arbitrarioak eta babesgabetasuna
 - 3.6.3. Erabilitako tortura motak
 - 3.6.4. Epaileen, auzitegiko medikuen eta ofiziozko abokatuen jarrera ez-bermatzailea, bereziki tortura edo tratu txarren ustezko egitateen eta/edo salaketen aurrean.
 - 3.6.5. Atxilotu ondoren torturatutako pertsonak geratzen diren egoera penala
 - 3.6.6. Laguntza juridikoa polizia-etxean edo kuartelean egon bitartean
 - 3.6.7. “Mantal zuriak”
 - 3.7. Biktimentzako eta haien familientzako ondorioak eta sekuelak
 - 3.8. Elementu eta gertaera positiboak ere badaude.
- 4. Zer eskatzen dioten biktinek Batzordeari
 - 5. Psikologiaren eta Auzitegi Medikuntzaren ikuspegia
 - 5.1. Auzitegiko peritu psikologiko eta medikuek aztertu eta ebatzitako kasuen zerrenda kuantitatibo eta kualitatiboa
 - 5.2. Peritu-taldean izandako ondorioak eta aldaketak

III. Gomendioak

- 1. Urteroko aitortza-ekitaldi instituzionala
- 2. Legebiltzarraren kontrola eta bultzada
- 3. Lege-erreforma
 - 3.1. Kalte-ordainak
 - 3.2. Eremu materiala, denbora-eremua, prozedurazko alderdiak eta alderdi organikoak
- 4. Batzordearen lanak zabaltzea: egia jakiteko eskubidea
 - 4.1. Txostenak bidaltzea
 - 4.2. Nazioarteko mintegia
- 5. Baliabideak
 - 5.1. Auzitegiko medikuak (eta psikologoak)
 - 5.2. Idazkaritza teknikoa
 - 5.3. Justizia Administrazioarekiko lankidetzeta eta informazio-trukea

I. Sarrera

2016ko uztailaren 28an, honako lege hau onetsi zen, eta 2016ko abuztuaren 10eko EHAAn argitaratu: 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

- 2021eko abenduaren 13an amaitu zen eskaerak aurkezteko epea, eta honako eskaera hauek jaso genituen:
 - Lehen aldi berezia. Jasotako eskaeren kopurua: 89. Ebatzitako espedienteak: 82. Ebatzeko daudenak: 7.
 - Bigarren aldi berezia: Jasotako eskaeren kopurua: 172. Ebatzitako espedienteak: 151. Ebatzeko daudenak: 21.
 - Ohiko aldia. Jasotako eskaeren kopurua: 1.030 (horietatik 67 epez kanpo). Ebatzitako espedienteak: 641. Ebatzeko daudenak: 389.

Batzordeak, benetako laneko laugarren urtean, goiburu beraren ildotik jarraitzen du: legearen xedeari independentziaz eta zorrotasunez erantzutea, Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen estandarrak modu eraginkorragoan integratzeko eta gauzatzeko uztailaren 28ko 12/2016 Legearen *personaren aldeko interpretazioa* lehenetsiz. Asmo horrekin, eta legearen xedean sartzen ez direlako onartu behar ez diren espedienteak alde batera utzita, orain arte guztira 238 espedientetan ebatzi da biktima izaera positiboa aitortzea (horietatik 96, txosten honek hartzen duen aldian), eta 417 espediente daude aztertzeko zain. Lan-erritmo horrekin jarraituz gero, Batzorde honen lana 4 urtean amai daitekeela uste dugu.

II. Egindako zereginen kontu-ematea

1. Balorazio Batzordea:

Batzordea 2018ko uztailaren 10ean eratu zen formalki, eta, txosten honek hartzen duen aldian, aldaketa hauek egin dira haren osieran:

- Olga de Frutos Garcíak, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko auzitegiko psikologoak, batzordea utzi du, eta gaur egun postu hori bete gabe dago.
- Maite Izaguirre Loroño auzitegi-medikuak batzordea utzi du, eta gaur egun postu hori bete gabe dago.

- Monika Hernando Porresek postua utzi zuen, 2023ko abuztuaren 29an, eta Noemí Ostolaza Arcauz Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariak ordezkatu zuen.
- Peru Bazako legelariak dimisioa aurkeztu zuen, ekainaren 10ean, eta postu hori bete gabe dago gaur egun.

Beraz, ekainaren 30ean, honako hau da Balorazio Batzordearen osaera:

Titularra: Noemí Ostolaza Arcauz, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaria.

Ordezkoa: Miren Aintzane Ezenarro Egurbide, Gogora - Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria.

Titularra: Jon Mirena Landa Gorostiza, Zigor Zuzenbidean espezializatutako legelaria.

Ordezkoa: Enara Garro Carrera, Zigor Zuzenbidean espezializatutako legelaria.

Titularra: Sabino Ormazabal Elola, biktimen arloan aditua.

Ordezkoa: Bertha Gaztelumendi Caballero, biktimen arloan aditua.

Titularra: Luis Sala González, historialaria.

Ordezkoa: Jon Penche González, historialaria.

Titularra: Juana María Balmaseda Ripero, lege honek arautzen duen gaien aditua. Batzordeko presidente izendatu zuten, Legearen 17.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ordezkoa: Felipe Gómez Isa, Legearen erregulazio-xedean aditua.

Titularra: Postu hori bete gabe dago gaur egun.

Ordezkoa: Josu Oskoz Barbero, Legearen erregulazio-xedean aditua.

Titularra: Francisco Etxeberria Gabilondo, lege honen erregulazio-xedean aditua.

Ordezkoa: Miguel Ángel Navarro Lashayas, lege honen erregulazio-xedean aditua.

Titularra: Benito Morentin Campillo, biktimen arloan esperientzia duen auzitegi-medikua.

Ordezkoa: Postu hori bete gabe dago gaur egun.

Titularra: Víctor Verano Zapatel, biktimen arloan esperientzia duen auzitegi-medikua (gaur egun bajan dago, gaixotasunagatik).

Ordezkoa: Julia Lamas Ruiz, biktimen arloan esperientzia duen auzitegi-medikua.

Titularra: Ana Imaz Llano, biktimen arloan esperientzia duen auzitegi-psikologoa.

Ordezkoa: Postu hori bete gabe dago gaur egun.

Idazkaritza teknikoa: María Ángeles Sánchez Amado eta Telmo Javier Calzada Peña, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzako teknikariak.

2. Egindako lanak:

	Deialdiak	Osoko bilkurak	Testigantzak jasotzeko bilerak	Egin diren elkarrizketak	Ebatzitako espedienteen kopurua	Baiesteko espedienteen kopurua	Ezesteko espedienteen kopurua	Atzera egingak
2023ko uztaila	3	1	2	10	7	6	1	
2023ko iraila	3	2	1	5	8	8	0	
2023ko urria	4	2	2	10	6	6	0	
2023ko azaroa	4	2	2	9	9	9	0	
2023ko abendua	4	2	2	6	9	9	0	
2024ko urtarrila	2	1	1	5	5	5	0	
2024ko otsaila	3	2	1	5	12	12	0	
2024ko martxoa	4	2	2	10	10	10	0	
2024ko apirila	3	1	2	10	6	6		
2024ko maiatza	5	3	2	14	19	17	0	2
2024ko ekaina	3	2	1	4	4	5	0	
Guztira	38	20	18	88	96	93	1	2

2023ko uztailetik 2024ko ekainera bitartean, 38 aldiz egin da Batzorderako deia. 20 osoko bilkura eta lekukotasunak grabatzeko 18 saio egin dira, zegozkien deialdiekin eta gai-zerrendekin. Bilera horien guztien akta jaso da.

Osoko 20 bilkuretan 96 espediente ebatzi dira; horietatik 93 onetsi egin dira, bat ezetsi da eta bi jo dira atzera egindakotzat. Lekukotasunak biltzeko 18 saioetan ikus-entzunezko 83 erregistro lortu dira guztira, 88 espedienteri dagozkienak.

Biktimen testigantzen ikus-entzunezko erregistroak egiteko, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak Aranzadi Zientzia Elkartearen zerbitzuak jaso ditu orain arte. Gaur egun, kontratazio ireki berri bat izapidetzen ari da, oraindik egiteke dauden testigantzak grabatzeko.

2020ko ekainetik 2021eko ekainera bitartean 35 espediente ebatzi ziren aitortpen-ebazpenekin.

Gero, 2021eko ekainetik 2022ko ekainera, 573 espediente ebatzi genituen, eta, horietatik:

- 46 aitortza-ebazpenak izan ziren.
- 2 eskaeratan, interesdunak atzera egin zuen.

- 2 eskaera ezetsi genituen.
- 523 ebazpenetan, ez genuen eskaera onartu. Onartu ez diren eskaera horietatik, 473 Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek aurkeztu dituzte, eta 50 ETArek edo inguruko elementuen aldetik motibazio politikoko indarkeria jasan zuten pertsonak. Ez onartzeko ebazpen horien aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri zen 86 aldiz, eta, administrazio-erresponsoaren ebazpenaren ondoren, administrazioarekiko 21 auzi-errekurtsio jarri ziren. Bi urte igarota, errekurtsio horiek ebatzteke daude Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian.

2022ko ekainetik 2023ko ekainera, 131 espediente ebatzi genituen, eta horietatik:

- 66 aitortza-ebazpenak izan ziren.
- 64 ez onartzeko/ezesteko ebazpenak izan ziren, eskaera lege ezarritako epetik kanpo aurkeztu zelako.
- 1ek atzera egin zuen.

Aztergai dugun aldian, 2023ko uztailetik 2024ko ekainera bitartean, 96 espediente ebatzi dira, eta horietatik:

- 93 aitortza-ebazpenak izan dira. 1 onartzeko/ezesteko ebazpena izan da, eskaera lege ezarritako epetik kanpo aurkeztu zelako.
- 2 espedientetan atzera egin zuten.

Aitortutako 93 biktimeetatik, 75ek tratu txarrak edo torturak jasan zituzten (horietako bitan heriotza eragin zuten); 9 pertsonak bala-inpaktuak jaso zituzten, eta horien egilea Estatuko segurtasun-kidego eta indarretako kideak edo talde parapolizialak izan ziren; beste 3k lesio larriak izan zituzten; 6 pertsonak poliziaren erasoak jasan zuten istiluetan edo manifestazioetan; horietako 4 ke-potoaren edo gomazko pilotaren inpaktuagatik zauritu ziren, eta ikusmena galdu eta kalte estetiko oso larriak jasan zituzten; eta beste pertsona batek eraso larria jasan zuen, bahitzen saiatu baitziren. Hil diren 8 pertsonetatik 2 poliziaren zaintzapean zeuden, bat polizia-autoan eta bestea polizia-egoitzetan. Beste bi pertsona larri zauritu ziren talde parapolizialen bonba-ataentatu baten ondorioz. Guztira, talde parapolizialen lau biktimeak izan dira; lehenengo biak aipatutako bonba-ataentatuaren biktimeak izan dira, eta beste biak su-armaz egindako tiroen biktimeak.

Aldi horretan, 1.925.319,78 euroko kalte-ordaina eman zaie biktimei guztira. Zenbateko horretatik, 612.560,08 euro torturen edo tratu txarren biktimei egokitu zaizkie; horien artean dago poliziaren zaintzapean zegoela hil zen pertsonaren familiak jasotako zenbatekoa; 792.359,55 euro suzko armen ondorioz hildako edo zauritutako 8 pertsonari dagozkie –kasu batean, biktimearen familiari Terrorismoaren Biktimeen Legeak eman zion kalte-ordaina, eta beste batean, ez da kalte-ordainik jaso Legeak eskatzen duen ahaidetasun-maila ez izateagatik–; gomazko pilotaz jotzearen ondorioz larri zauritutako 4 pertsonari 452.646,31 euroko kalte-ordaina eman zaie; manifestazioetan edo beste testuinguru batean polizia-erasoak jasan duten beste 3 pertsonari 49.504,10 euro eman zaizkie; eta eskuin muturrak bonbaz egindako atentatu batean zauritutako 2 pertsonak 18.249,74 euroko kalte-ordaina jaso dute; kasu horretan, biktimeetako bat terrorismoaren biktimea gisa aitortutakoa eta kalte-ordaina jasotakoa zen jada. Legearen eremuan aitortu diren 93 pertsonetatik zok ez dute kalte-ordainik jaso,

eta 53 pertsonak 15.000 eurotik beherako kalte-ordainak jaso dituzte; horietatik 39k 5.000 euro baino gutxiago jaso dituzte.

12/2016 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako sailkapenaren arabera, aipatutako kalte-ordainaren zenbatekoa honela banakatzen da:

- Heriotzagaratik 810.000 euro ordaindu dira. Hildakoen 2 senidek ez dute kalte-ordainik jaso, batek Terrorismoaren Biktimei buruzko Legearen kalte-ordaina jaso zuelako eta besteak legeak eskatzen duen ahaidetasun-maila ez zuelako.
- Baliaezintasun handiagaratik 390.000 euro ordaindu dira.
- Ezintasun iraunkor absolutuagaratik 190.000 euro ordaindu dira.
- Ezintasun iraunkor osoagaratik 45.000 euro ordaindu dira.
- Ezintasun iraunkor partzialagaratik ez dugu kasurik izan.
- Baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorrenagaratik 490.319,78 euro ordaindu dira guztira.

Emandako 93 aitorpen-ebazpenetatik, kasu batean, biktimetako batek gora jotzeko errekurtsioa jarri zuen bere espedientearen ebazpenaren aurka, haren sekuela behar bezala ebaluatu ez zela iritzita. Errekurtsio hori interesdunaren alde ebatzi zen, administrazio-bidean. Beste kasu batean, biktimak uko egin zion zegokion kalte-ordaina kobratzeari.

Jasota utzi nahi dugu, era berean, S.Z.B.ren kasua. 97 urte zituen eta joan den uztailaren 7an hil zen, sailburuordeak eta batzordeburuak espedientearen ebazpena eskura eman eta egun gutxira. Gure esker ona eta doluminak haren senideentzat.

2.1. Egindako instrukzio-lana

Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, Batzorde honek informazioa eskatu die, Idazkaritza Teknikoaren bidez, hainbat erakunde judizial, polizial, administratibo eta/edo sanitariori, alegatutako gertakariak egiaztatze eta osatze aldera.

ZER ERAKUNDEREKIN EGIN DITUGUN IZAP IDEAK	Egindako eskae - ren kopurua
Ferroleko artxibategi militarra	6
Bizkaiko Probintzia Auzitegia	2
Gipuzkoako Probintzia Auzitegia	3
Auzitegi Nazionala	3
Terrorismoaren biktimei laguntzeko zuzendaritza	2
Basurtuko ospitalea	2

ZER ERAKUNDEREKIN EGIN DITUGUN IZAP IDEAK	Egindako eskae - ren kopurua
Donostia ospitalea	5
Gurutze gorriaren donostiako zentro soziosanitarioa	1
Gurutze gorriaren dokumentazio zentroa	1
Osakidetzako zerbitzu zentralak	1
Plangintza, antolamendu eta ebaluazio sanitarioko zuzendaritza.	1
Zumarragako klinika/ospitalea	1
Guardia zibilaren zuzendari nagusia	1
Bilboko poliziaren burutza nagusia	1
Poliziaren zuzendaritza nagusia. Madril	1
Defentsako artxibo nagusia eta historikoa	1
Barne arazoetako ministerioaren artxibo nagusia	1
Oñatiko artxiboa	2
Gipuzkoako probintzia artxiboa. Foru-Aldundia	2
Erregistro zibila	3
Ehorztetxea	4
Bilera justizia auzitegi nagusiko presidentearekin	1
Eibarko epaitegiak	2
Bergarako lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegia	2
Bilboko 4. Epaitegia	1
Balmasedako epaitegia	1
Tolosako lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegia	2
Tolosako zuzeneko laguntza emateko unitate prozesala	2
Amnistia internazionalari txostena eskatzea	1
Abokatu partikularra	1
IVAC-KREI	66
Eusko Jaurlaritzako liburutegi nagusia	7
Ignacio Aldecoa kultur etxea	1
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailaren komunikazio-arloa	1
Auzitegi-medikuntzako euskal erakundea	1

ZER ERAKUNDEREKIN EGIN DITUGUN IZAPIDEAK	Egindako eskaeren kopurua
Ondarroako hilerria	1
Eusko Jaurlaritzako osasuna saila	1
Ertzaintzako zuzendaria	1
Guztira	136

9 aldiz eskatu zaizkie historia klinikoak Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ospitale eta erakunderi (Basurtu (Bilbo), Donostia, Zumarraga, Donostiako Gurutze Gorria eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila). Jurisdikzio militarri dagozkion espedienteak sei aldiz eskatu zaizkie Ferroleko Artxibo Militarri, eta behin Defentsako Artxibo Orokor eta Historikoari. Gainera, dokumentazioa eskatu zaio behin Barne Ministerioaren Artxibo Nagusiari, beste behin Gipuzkoako Foru Aldundiaren Artxibo Probintzialari eta bi aldiz Oñatiko Artxiboari.

Bestalde, 17 aldiz eskatu dira espediente judizialak Bizkaiko Probintzia Auzitegian, 2 aldiz Gipuzkoako Probintzia Auzitegian, 2 aldiz Auzitegi Nazionalean, 3 aldiz Eibarko Epaitegian, 2 aldiz Bergarako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegian, 2 aldiz Tolosako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegian, 2 aldiz Bilboko Instrukzioko 4 zenbakiko Epaitegian, behin Balmasedako Epaitegian, eta bi aldiz Tolosako Epaitegiei Laguntzeko Unitate Prozesalean. Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoak ere eman digu informazioa, pare bat aldiz. Bestetik, 3 aldiz, heriotza-ziurtagiriak eskatu ditugu Erregistro Zibilean.

Gainera, hilotz bat desobiratzeko izapideak egiten hasi dira. Horretarako, beharrezkoa izan da harremanetan jartzea ehorztetxearekin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin, hilerriarekin eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearekin. Azkenean gorpuzkiak desobiratzen badira, Balorazio Batzordeko peritu-talde medikoak horrelako lan bat egiten duen bigarren aldia izango da.

Halaber, espediente bati buruzko informazioa eskatu zaio Guardia Zibilaren zuzendari nagusiari behin, beste behin Madrilgo Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari eta beste behin Bilboko Poliziaren Buruzagitza Nagusiari. Lankidetzeta bila, bilera bat egin zen Ertzaintzako zuzendariarekin, eta emaitza positiboak izan zituen; izan ere, horren ondoren, bost espedienteri buruzko informazio-eskaera egin zen, eta behar zen informazioa eskuratu ahal izan zen espediente horietatik.

Behin eskatu diogu Amnesty Internationali kasuetako bati buruzko txosten bat, eta beste batean abokatu partikular batekin harremanetan jarri behar izan dugu, bere bezeroari buruzko informazioa eman ziezagun.

Prentsan eta hemerrotekan informazioa bilatzeko, laguntza eskatu behar izan diegu Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiari, Ignacio Aldecoa Kultur Etxeari eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Komunikazio Arloari, gutxienez 9 aldiz.

Kasu gehienetan, erakundeen jarrera laguntzekoa izan da, baina beti ez da posible izan eskatutako informazioa lortzea, batzuetan denbora luzea igaro delako eta beste batzuetan egindako eskaerari emandako erantzuna argia ez zelako. Ildo horretan,

Batzordea zailtasun handiak ikusten ari da Ferroleko Artxibo Militarrean espedientei buruzko informazioa lortzeko, jokabide oztopagarriak izan dituelako; izan ere, legeak berak eskatzen duena baino eskakizun-maila handiagoa ezarri du, eta horren ondorioz gure eskaerak behin baino gehiagotan errepikatu behar izan ditugu.

Era berean, zaila izaten ari da Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegi eta auzitegietatik espediente judizialak lortzea, batzuetan dokumentazioa garbitu egin delako, eta beste batzuetan, epaitegietak artxiboetan bilaketa horiek egiteko baliabiderik ez dagoelako. Kasu zehatz honetan, irtenbideak bilatzeko, Batzordeko presidente Juana Balmaseda Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidente Iñaki Subijanaekin bildu zen. Nahiz eta Subijana jaunak Justizia Administrazioako hainbat pertsonaren kontaktuak helarazi zizkion Balorazio Batzordeari, informazioa bilatzen lagun ziezaguten, egia esan, Justizia Administrazioako funtzionarioek jasaten duten lan-gainkargaren ondorioz, ez dute baliabide nahikorik lan hori behar bezala egiteko. Justizia Sailaren baliabidez hornitutako lotura-mekanismorik ez egoteak (ikus gomendioen atala) zaildu egiten du lan hori, eta aurten ere konpondu gabeko eta premiazko gaia dela ikusten dugu, Batzordeak lan egokia egingo badu.

Halere, IVAC/KREI erakundearekin izandako lankidetzak ona nabarmendu behar dugu. Bada, erakunde horrek “*Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)*” egin zuen Eusko Jaurlaritzarentzat. Aipatutako proiektuan jadanik aztertu ziren kasuetan, betiere datu pertsonalen babesa eta biktimek ohorerako eta intimitaterako duten eskubidea errespetatuta, 66 espedienteri buruzko informazioa partekatu dugu. Gainera, kasu batzuetan, saihestu egin da biktimak gertatutakoa berriro kontatu behar izatea, horrek pertsonari eragiten dion estutasuna dela-eta.

Kasu batzuetan, funtsezkoa izan da biktimak ezagutu zituzten edo gertaeren lekuko izan ziren hirugarren pertsonen lekukotasuna, eta elkarrizketa gehigarri horiek behin baino gehiagotan egin behar izan dira, bereziki biktima poliziaren zaintzapean hil zen kasu batean, zeinean funtsezkoa izan baitzen berarekin batera atxilotu eta torturatu zituzten pertsonen lekukotasuna.

Guztira, 136 izapide osagarri egin ditugu, eta, beraz, denbora gehiago behar izan dugu espediente ugari ebazteko; are, espedienteetako batzuk instrukzio-fasean daude oraindik ere.

2.2 Emandako 93 aitorpen-ebazpenen sailkapen xehatua

(Pertsona bati giza eskubide bat baino gehiago urratu bazaizkio, lehenengo urraketan zuen adina eta urraketa hori non gertatu zen jaso dugu).

Sexuaren arabera:

- Emakumeak: 20
- Gizonak: 73

Gertaeren unean zuten adina:

- 0-24 urte: 41 (9 adingabe barne hartzen ditu (16 urteko hiru eta 17 urteko sei)

- 25-34 urte: 34
- 35-49 urte: 17
- 50 urtetik gora: 1

Gertakarien kokalekua:

- Gipuzkoa: 62
- Bizkaia: 24
- Araba: 3
- Lapurdi: 3
- Mexiko-Madril: 1
- Atxilotutako pertsona asko Madrilgo Segurtasun Zuzendaritza Nagusira edo Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusira eraman zituzten

Gertakarien urtea:

- 1961-1970: 10
- 1971-1975: 10
- 1976-1982: 31
- 1983-1999: 42

Eragindako kaltea:

- Heriotzak: 8

Hauek jasotzen ditu:

- Poliziaren edo Guardia Zibilaren tiroen ondorioz: 5 (horietako bat poliziaren zaintzapean)
- Poliziaren zaintzapeko tratu txarren eta torturen testuinguruan: 1
- Beste egoera batzuetan: 1
- Atentatu parapolizialean: 1
- Bala-zuloengatiko lesioak: 3
- Gomazko pilotak jotzeagatiko lesioak: 3
- Ke-potoak jotzeagatiko lesioak: 1

- Bonba-ataentatuaren ondoriozko lesioak: 2
- Erasoengatiko lesio larriak: 3
- Tortura/tratu txar larriak, guztira: 75
 - Sexu-askatasunaren aurkako erasoak: 10
 - Legez kontrako atxilotetak osotasun moralari eragitea: 1
 - Salbuespen-egoeretan edo Terrorismoaren aurkako Legearen ondorioz 7, 9, 10, 11 edo 21 egun atxilotuta igaro dituzten pertsonak: 14
 - Mehatxuak aurretik/ondoren: 21
 - Zenbatutako tortura-kasuen zenbaketari gehitu behar zaio pertsona batzuk behin baino gehiagotan atxilotu eta torturatu zituztela. Horregatik, aipatutako 75 kasuei beste 20 kasu gehitu behar zaizkie.

Kausatzailea :

- Guardia Zibila 41
- Polizia: 42
- Polizia eta Guardia Zibila gertakari berberetan: 1
- Ertzaintza: 3
- Talde “kontrolgabea” edo parapoliziala:
 - Batallón Vasco Español (BVE): 2
 - Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL): 1
 - Grupos Armados Españoles (GAE): 1
 - Organización Armada por la liberación nacional contra el Marxismo y el Separatismo (OAMAS): 1
 - “Gerra zikina” deiturikoan muga zeharkatzen duten polizia-agentek: 1

Biktimaren atxikipenaren arabera:

Alderdiak, sindikatuak eta askotariko erakundeak:

- Langile Komisioak (CCOO): 1
- Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK): 1
- Eusko Gaztedi (EGI): 1

- Sindikatu bertikaleko kide ohia eta enpresako Batzar Batzordeko kidea: 1
- Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB): 4
- Ezker abertzaleko kideak edo jarraitzaileak (HB, Gestorak...): 22
- Euskadiko Ezkerrako kidea: 1
- Langileen Antolakunde Iraultzailea (ORT): 5

ETArekin eta besterekin lotuta:

- Lehenengo ETA: 2
- ETApm: 2
- ETApm VIII. Biltzarra: 1
- ETAm/ETA: 15
- ETako kide ohia; modu askean jarduten du: 1
- Komando Autonomoekiko elkarlanagatik kondenatua: 1
- ETari laguntzea leporatu zietenak: 6
- ETako militanteen senideak: 3
- Iparraldean errefuxiatuta dauden lagunak maiz bisitatzeagatik: 2
- Kale-borroka: 1

Beste batzuk:

- Afiliazio politiko ezaguni gabeak edo loturarik gabeak: 13
- Manifestazio batera joatea leporatu zaien adingabeak: 2
- Poliziak hustutako taberna batean zegoen adingabea: 1
- Etxera zihoan adingabeak poliziaren bala-tiro bat jaso zuen: 1
- Etxean zegoela pilotakada bat jaso zuen adingabea: 1
- Langileen Estatutuaren aurkako manifestaria: 1
- Euskal kulturara lotutakoak: 3
- Tabernatik etxera zihoan langilea: 1
- Gutxienez 3 biktimak jakinarazi dute familiako kideren bat militarra zela.

3. Aztertutako kasuen izaera eta ezaugarriak, eta ikuspegi biktimologikoa

Urte horretan ere, Batzordeak aztertu dituen kasuak oso anitzak eta larriak dira. Hirugarren txostenean adierazi moduan, errepikatu egin behar dugu batzordekideok, gaian adituak bagara ere, askotan atsekabetzen garela, bai kasuak oso mingarriak direlako, bai, eta are gehiago, biktimek eta haien senideek sufritzen jarraitzen dutelako.

Tortura, Kepa Oteroren hitzetan, “oso zaila da transmititzen. Egia da zuk gertaerak kontu ditzakezula, isekak eta sufrimendua zehaztu ditzakezula, eta egia da entzuten zaituenak zurekin enpatizatu dezakeela eta eragin zizuten mina imajinatu dezakeela. Uler zaitzake, baina inola ere ez du ulertuko torturarekin, ekintza gisa, eta torturatzailerekin, zure bizitzako presentzia iraunkor gisa, duzun harremana. Gertatu zaizunean, ezin izango duzu haren presentzia alde batera utzi. Setatsua eta saihetsezina da. Zure ametsak betetzen ditu, eta zure momentuetan egoten da. Alaba bat jaiotzen bazaizu edo beste gertaera pozgarri bat baduzu, momentuaz goza dezakezu, bai, baina haiek ere bertan egongo dira”.

Horrela adierazi dugu urteko txosten bakoitzean: hemen helarazten dugun errealitate hori ez da iraganeko gai bat. Legean giza eskubideak urratu zizkietelako aitortzen diren biktimak gure artean bizi diren gizon-emakumeak dira. Biktima batzuk hilda daude, baina haien senideen eta hurbilekoen minak oso bizirik jarraitzen du, eta erantzunaren eta erreparazioaren beharra du.

Jakin badakigu, biktimek hala adierazi digutelako, bide hau askotan oso mingarria dela, eta oztopoz bete dagoela. “Nola da posible guri hainbeste eskatzea”, esaten digute, isiltasunaren ondoren, eta “urteetan zehar guri bota dizkiguten gezurren ondoren”.

Badakigu, halaber, espediente batzuen izapidetzea luzeegia izaten ari dela. Elkarrizketatu ditugun familia batzuek bi urte baino gehiago daramatzate Batzordean azaldu zituzten kasuak noiz ebatziko zain. Atzerapena, kasu batzuetan, gure borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gertatu da, hala nola eginbide judizialak berriro irekitzeagatik (eta horrek, legez, egiten ari ginen izapidetzea geldiaraztera behartzen gaitu) edo biktimaren zuzeneko senideei soilik eman ahal zitzaizkien txosten medikoak lortzeko atzerapenagatik.

Kasuen izaera lazgarria eta gaurkotasuna ikusirik, Batzordea gero eta kontzienteagoa da espedienteak ebazteko moteltasunak sufrimendua eta bidegabekeria areagotzen dituela. Nolanahi ere, barkamena eskatzen dugu guri egotz dakigukeenagatik. Baina dena ez dago Batzordearen esku. Ondorioz, berriro diogu: txostenaren ondoren behin eta berriz egiten diren gomendioei ez bazaie behar bezala erantzuten, egoera jasanezina izango da azkenean; horregatik eskatzen dugu gomendioak aintzat har daitezen, hain zuzen ere biktimengatik.

Azpimarratu behar da, halaber, txosten honek hartzen duen aldiari bete-betean sartu garela guk ohiko alditzat hartzen duguneko espedienteetan, hau da, 12/2016 Legean berariaz aurreikusitako urteetan, 1978tik 1999ra bitartekoak. Horren ondorioz, aitortutako biktimen kopuru esanguratsu bat ETako kideak edo laguntzaileak dira, zeinak kartzela-kondena luzeak bete baitituzte eta talde parapolizialen atentatuak edo, atxiloketaren ondorengo uneetan polizia-egoitzetan jasandako torturak eta, kasu batzuetan, espetxean egon ziren denboran jasandakoak (isolamendu-gelak,

etengabeko lekualdatzeak...) salatzera etorri baitira Batzordera. Halaber, aitortutako biktima asko ETako kide izateagatik edo harekin lankidetzan aritzeagatik salatu eta/edo atxilotu eta azkenean aske utzi zituzten, kargurik gabe edo prozesu judizialak aurrera egin gabe.

Batzordeak izaera honetako kasuak aztertu eta ebatzi ditu:

- 3.1. Guardia Zibilaren eta Poliziaren bala-tiroen ondorioz gertatutako heriotza
- 3.2. Poliziaren zaintzapean gertatutako heriotzak
- 3.3. Talde parapolizialen atentatuaren ondorioz gertatutako heriotza
- 3.4. Beste inguruabar batzuetan gertatutako heriotza
- 3.5. Zaurituak
 - 3.5.1. Atentatu parapolizialetan
 - 3.5.2. Poliziaren tiroen ondorioz
 - 3.5.3. Gomazko pilotek jotakoak
 - 3.5.4. Ke-potoak jotakoak
 - 3.5.5. Eraso larrien ondorioz
 - 3.5.5.1. Polizia Nazionalarenak eta Ertzaintzarenak
 - 3.5.5.2. Talde parapolizialenak
- 3.6. Tortura eta tratu txar larriak pairatutakoak
 - 3.6.1. Tortura, genero-ikuspegitik
 - 3.6.1.1. Emakumei dagokienez
 - 3.6.1.2. Gizonei dagokienez
 - 3.6.2. Atxiloketa arbitrarioak eta babesgabetasuna
 - 3.6.3. Erabilitako tortura motak
 - 3.6.4. Epaileen, auzitegiko medikuen eta ofiziozko abokatuen jarrer ez-bermatzailea, bereziki tortura edo tratu txarren ustezko egitateen eta/edo salaketen aurrean.
 - 3.6.5. Atxilotu ondoren torturatutako pertsonak geratzen diren egoera penala
 - 3.6.6. Laguntza juridikoa polizia-etxean edo kuartelean egon bitartean
 - 3.6.7. "Mantal zuriak"

Batzorde honek aitortu dituen giza eskubideen urraketa motak eta horien biktimologia hobeto ulertzeko, eta diziplinarteko taldeak espedienteak instruitzeko, argudiatzeko eta ebazteko duen modua ere argitze aldera, ebatzitako kasuak sailkatuko ditugu jarraian. Hori guztia, kontu emateko asmoz, otsailaren 25eko 20/2020 Dekretuaren 12.b artikulua eskatu bezala.

3.1. Guardia Zibilaren eta Poliziaren bala-tiroen ondorioz gertatutako heriotza.

Atal honetan lau pertsonaren heriotza sartzen da. Lehenengo kasuan, bi pertsona hil ziren, baina horietako baten familiak bakarrik egin dio eskaera Batzordeari, eta horretan oinarritzen da eskaera. Peritu-taldeak beste hildakoaren senide batekin hitz

egiteko aukera izan bazuen ere, eta, jakina, datu interesgarriak eman bazituen ere, ez agertzeko nahia errespetatzen dugu.

Talde hori beste hiru kasuk osatzen dute; egoera desberdinetan gertatu ziren, baina egitate batek batzen ditu: Guardia Zibileko edo Poliziako kideek frankismoaren edo trantsizioaren urteetan bizitzeko eskubidea urratu izana.

- R.J.M.V. 1974ko maiatzaren 20a

Bi aktibista, ETAko kide ohiak, Poliziaren eta Guardia Zibilaren tiroen ondorioz hil ziren, Asturiaga edo Fraideen hondartza deiturikoan, Hondarrribian. Hildakoen bi familietako batek bakarrik eskatu zuen Batzorde honen aurrean agertzea.

Espediente honen xede diren gertakarien bertsio ofizialaren egitasunari buruz arrazoizko zalantzak zeudenez, Batzordeak, auzitegi-taldeak proposatuta, aho batez erabaki zuen R.J.M. jaunaren gorpua hobitik ateratzea, eskeleto-hondarren analisiaren bidez informazio gehiago lortzeko. Horretarako, Batzordeak familiaren eta agintari eskudunen baimena izan zuen, eta gorpuzkiak desobiratu egin ziren, Portugaleteko hilerrian, A.M.S., R.M.ren alaba, eta M.I.S.S. bertan zirela. Gorpuzkiak 2023ko otsailaren 10ean eraman zituzten Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren Bizkaiko Auzitegiko Patologia Sailera, B.M., J.L. eta V.V. auzitegi-medikuek hilotz-hondarrak aztertzeko. J.M.k eta I.T.k ere esku hartu zuten, autopsiako laguntzaile gisa.

Haien txostenetik ondorioztatzen denez, “ebidentzia batzuek iradokitzen dute zilegitasunik eta neurririk gabeko polizia-jarduketa bat izan zela. 1974an egindako “kanpoko azterketaren” edo “gorpuaren azterketaren” datuek, gure aurkikuntzekin batera –dio Batzordeko peritu-taldeak–, adierazten dute su-armako jaurtigaiez eragindako bi inpaktu daudela aurpegiko garezurrean (horietako bat oso distantzia txikian edo kanoia ukitzen ari zela emandakoa). (...) Litekeena da su-armez eragindako zaurien kopurua 1974ko txostenean erregistratutakoa baino handiagoa izatea. Galtzaren atzealdean hiru zulo eta toraxaren barruan bi jaurtigai egoteak hori ematen du aditzera (...) aurkikuntzen osotasunak suzko armaren inpaktuak norabide desberdinetatik jaso zituela iradokitzen du”.

Ondorioen bederatzigarren puntuan, Batzordeko auzitegi-medikuek honako hau adierazten dute: “Hilotzaren azterketari buruzko 1974ko txostenaren ondorioak espekulazioetan oinarritu ziren, auzitegi-ebidentzia oso sendorik gabeko bertsio ofizial abiapuntu eztabaidaekin gisa hartuta. Beste edozein hipotesi ez zen kontuan hartu diagnostiko diferentzian”. Gainera, “hezurren eta arropen azterketa antropologikoak gorpuaren azterketaren 1974ko txostenean deskribatutakoaren aurkako aurkikuntzak ditu. Horrek, aurreko puntuari gehituta, iradokitzen du litekeena dela egindako ikerketa ez izatea independentea, inpartziala eta objektiboa. (...) Gorpua altxatzeko egintzan ere ez zen gertakarien lekua aztertu”.

Kasu honen berezitasunetako bat da Poliziaren kolaboratzaile bat zegoela bere burua eskaini zuena ETAko bikide ohiei “laguntzeko”, Iparraldeko errefuxiatu-komunitatean laguntzarik gabe zeudenean Infiltratua, J.L.A., *Cocoliso* ezizenez ezaguna, zodiaketik “desagertu” zen ustezko “tiroketaren” aurreko uneetan.

Balorazio Batzordeko kideok gertakarien lekura joan ginen. Tokian bertan, operatiboan esku hartu zuten agenteen balizko kokalekuak aztertu ziren, poliziaren datuen arabera, hildakoen balizko mugimenduak eta tiro hilgarriak jasotzean zuten

kokapen erlatiboa kontuan hartuta. Bisitan egiaztatu ahal izan zenez, itsasbeherarekin ere zaila da pertsona batentzat oreka mantentzea harrien gainean ibiltzean. Horrek pentsarazten digu zaila dela su egitea hondo harritsu horren gainean, itsasoa haserre dagoela eta itsasgorarekin, bertsio ofiziala dioen bezala.

Era berean, ezinezkoa da ustez hondartzan zegoen jendeak (“pertsona asko”, *La Vanguardia* egunkariaren arabera) ez jakitea zer gertatzen ari zen eta hain leku txikian tirorik ez entzutea. *El Diario Vasco* egunkariak ziurtatzen zuen Fraideen Hondartza orduan “udan jende asko erakartzen duen lekua” zela. Arratsaldea eguzkitsua zen, eta inguruetan bazeuden naturak inguru horretan eskaintzen dituen edertasunez gozaten zuten pertsonak: baina gertaera hain azkar garatu zen non ia inor ez zen konturatu gertatzen ari zenaz “. Lekua bisitatzeko duen edonork konturatu da hori ezinezkoa dela.

R.M eta J.L.M.ren gorpuak, polizia-eginbidearen (ez judiziala) arabera, bake-epaileak eta bakeepaitegiko idazkariak altxatu zituzten. Gorpuak aztertu zituzten Donostiako auzitegimedikuek “Autopsia-txostena” izeneko txosten-eredu bat erabili zuten, baina, dokumentua irekitzen duen errespetu-formularen ondoren, ereduan “autopsia egin dutela” zioen lekuan, “autopsia” hitza zirriboratu eta, gainean, lerro artean, hau jarri zuten: “Gorpuaren AZTERKETA”. Beraz, ez zen gorpuen autopsia arauturik egin.

Kanpoko azterketa bat baino ez zenez, auzitegi-medikuek ez zuten planoka diseinatu, ez zuten barrunberik ireki, eta ez zituzten bala-zuloak neurtu edo deskribatu; ez haien tamaina, ez forma, ez eta kontusio- edo higadura-zinta ere, zeina sailhetsezina eta oso baliagarria baita inpaktuen jatorria edo angelua ezagutzeko. Ondorio gisa esan zuten toraxeko sarrera-zuloetako batetik (bakarra dago) zetorren bala bat aurkitu zutela arropen artean, eta beste bat atera zutela ezkerreko errotulatik. Argazkirik eta deskribapenik ere ez zuten egin, eta ez zuten deformaziorik aipatu.

Autopsiarik ezak zalantzan jartzen du poliziaren bertsioa, ezin baita zehaztu tiroek zer gorputzeremu hartu duten, zenbat inpaktu izan dituzten eta zein distantzia zegoen agenteen eta hildakoen artean.

Era berean, egindako polizia-eginbideetan oinarrituta, ez da behar bezala frogatu M.k eta M.k hondartzan zain zituzten agenteen aurka tiro egin zutenik. Erbesteko Eusko Jaurlaritzaren Prentsa Bulegoak “mugako kostaldean tiroz hildakoen” berri eman zuen 1974ko maiatzaren 22ko *Euzko Deya* aldizkarian. Bi egun geroago, informazio gehiago ematen zuen: “Espainiako agintariek lehorreratzeko saiakerak ziren gazteei egotzi nahi die tiroen hasiera... Aitzitik, zeramatzen edo erabili zituzten armei buruzko aipamenek agerian uzten dute kasua ilundu edo larriagotu nahi dutela. Prentsak, iturri ofizialekin bat, dio kanoa pneumatikoko tripulaztaileek egin zutela tiro lehenengo, metrailadorearekin, eta hilik gertatu zirela. Aldiz, hartu omen zuten materiala deskribatzean, aldatu egiten da metrailadorearen izaera eta garrantzia”.

Patxo Unzueta kazetariak, 1978ko irailaren 1ean *El País* egunkarian argitaratutako “Repetidas ‘infiltraciones’ en la organización vasca” izenburuko iruzkin editorialean, honako hau idatzi zuen: “Poliziak, inguruan zain baitzegoen, itsasontziko hiru tripulaztaileetatik bi tirokatu zituen, R.M. eta J.L.M., eta bertan hil ziren”. Ez du aipatzen zodiaketik poliziei tiro egin zietenik, ezta armarik zeramatenik ere. Eta zehazten du poliziaren tiroak hiru tripulaztaileetako biren aurka egin zirela. Baletako batek ere ez zuen jo “Cocoliso”, ezta ontzia ere.

Bi peritu-txostenak erkatu ondoren, ondorioztatu daiteke ezen 1974an, diktadurapean, egin zen ikerketa-jarduketa judiziala ez zela “ez sakona, ez arduratsua, ez independentea” izan.

Eta hau gehitzen dute:

1. “1974. urteko auzitegi-ikerketa guztiz eskasa eta oso kalitate txarrekoa izan zen: Gorpua aztertu zuten (“gorpuaren azterketaren txostena”), baina ez zuten autopsia arauturik egin, eta ez zituzten arropak aztertu, ezta haien eta aurkitutako lesio/zuloen arteko korrelazioa ere. Autopsia-teknikak –kanpoko azterketa bakarrik– ez ditu garai hartako estandar normalak betetzen, eta ez dator bat ikertutako gertakariaren larritasunarekin. (...) Gainera, gorpua altxatzeko egintzan ez zen gertakariaren lekua aztertu”.
2. 1974ko txostenean deskribatutakoaren aurkako aurkikuntzak ditu. Horrek, aurreko puntuarekin batera, iradokitzen dulitekeena dela ikerketa independentea, inpartziala eta objektiboa ez izana”.
3. “Dauden datuekin, ezinezkoa da 1974ko gertaerak behar bezala berreraikitzea. 2023. urtean egindako hezur-hondarren eta arroparen azterketa ez da nahikoa horretarako. Hala ere, “ebidentzia batzuek iradokitzen dute zilegitasunik eta neurririk gabeko polizia-jarduketa bat izan zela”.

Cocoliso infiltratuari dagokionez, argi eta garbi dago polizia-taldeak ez zuela bete bizia babesteko betebeharrak positiboa, ez baitzituen neurri egokiak hartu bi pertsona tiro egin beharrik gabe atxilotzeko, horretarako informazio nahikoa izan arren. *La Vanguardia* egunkariaren berriak lerroburu hau zuen: “Los esperaban”, eta testuan zehazten zenez, igandetik “berrogei polizia inguru zeuden zelatan”. *ABC* egunkariak, hilaren 22koak, zioenez, poliziak “hippy” mozorrotuta zeuden; “astelehen goizeko lehen orduetatik zain zeuden inguru haietan, eta Higer lurmuturreko Guardia Zibilaren bikote bat ere han zen, kasualitatez bat egin baitzuen haiekin”. Ez zen, beraz, ezusteko topaketa bat izan. Beste modu batera jokatu ahal izango zen.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinaren arabera, indarraren erabilera “guztiz beharrezkotzat” jo behar da, premia-irizpide “zorrotz eta larria” aplikatuz, “arbitrariotasunaren, indarraren abusuaren eta saihesta daitezkeen istripuen aurkako berme-sistema egoki eta eraginkor baten barruan”.

Ildo horretan, 2004ko “Makaratzis Greziaren aurka” auzigaian, Auzitegiak honako hau adierazten du: “polizia-operazioak, legeria nazionalak baimenduta egoteaz gain, legeria horrek behar bezala mugatuta egon behar dute, saihesta daitezkeenaren aurkako arbitrariotasunaren eta indarraren abusuaren aurkako berme-sistema egoki eta eraginkor baten barruan”. Dena delako operazioa arauak jarraituz egin bazen, eta interesdunaren heriotza eragiteko arriskuak ahalik eta gehien murrizteko moduan antolatua bazen (...), zalantza handiak sortzen dira operazioa antolatu eta gauzatu zen moduari buruz.

Zentzu berean, torturari eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarriei buruzko NBERen errelatore bereziak adierazi zuen estatuko agenteen indar-erabilera bidezkoa izan dadin ezinbestean bete behar direla, oso-osorik bete ere, legezkotasun-, premia-, proportzionaltasun- eta zuhurtasun-printzipioak. Hala, premia-printzipioaren arabera, indarraren erabilerak “saihetsezina” izan behar du, biolentoak ez diren edo hain kaltegarriak ez diren baliabideak erabiltzea

eraginkorra ez denean bakarrik, “behar-beharrezkoa dena baino min handiagorik eragin gabe”. Gainera, zuhurtasun-printzipioaren arabera, “ahal dela, indarraren erabilera gutxiagotuz planifikatu, prestatu eta burutu behar dira operazioak, eta, indarra nahitaez erabili behar bada, gutxienez murriztu behar dira indar horren ondoriozko kalteak” (A/72/ txostena, 2017).

McCann eta beste batzuen Erresuma Batuen aurkako kasuan (18984/91 epaia, 1995eko irailaren 27koa), Giza Eskubideen Europako Auzitegiak erabaki zuen (hamar boto alde eta bederatzi aurka) Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 2. artikulua urratu zela: “Agintarien zabarkeria horrek adierazten du arreta falta dagoela atxilotako-operazioaren antolaketan eta kontrolean. Laburbilduz, kontuan hartuta susmagarriei Gibraltarren sartzea ez eragozteko erabakia, agintariek informazioen arloan zituzten usteetan akatsen bat egoteko aukeraren aurrean zuten jarrera eskasa (alderdi batzuetan behintzat) eta militarrek su egin zutenean indar hilgarria automatikoki erabili izana, Auzitegia ez dago ziur hiru terroristen heriotza defentsa bermatzeko guztiz beharrezkotzat jotzen den indarra baliatu izanaren emaitza izan denik”.

NBERen Giza Eskubideen Batzordeak, 36. oharpen orokorrean, honako hau ezarri zuen: “Estatu partaideek, legez kontrakoak izan daitezkeen bizitza-kentzeen berri dutenean edo izan beharko zuketenean, gertakari horien erantzuleak ikertzeko eta, hala badagokio, epaitzeko betebeharra dute”. Era berean, ikerketa horiek “independenteak, inpartzialak, azkarrak, zehatzak, eraginkorrak, fidagarria eta gardenak” izan behar dutela gaineratu zuen.

Ildo horretan, kasuan beharrezkoak ziren zenbait elementu argitu gabe geratu ziren, ontziko hirugarren kideari dagokionez (*Cocoliso* ezizenekoa); izan ere, harekin lotutako guztia ezkutatu zen. Gainera, bake-epaileari ez zitzaizkion entregatu hondartzara zodiakean iritsi zirenen armetatik atera ei ziren bala-zorroak, zeinak ez baitira agertzen 1974an egindako azterketan; beste bi pertsona hasiera batean libre geratu ziren; *poliziaren modus operandi*-a ezbaian gelditzen da gertakarien lekua ezagutzen denean...

Espedientean bildutako dokumentazio ugaria aztertuta, gertakarien lekua zuzenean behatuta, eta, bereziki, R.J.M.V. jaunaren hezur-hondarrak hobitik atera ondoren bildutako datuak aztertuta, argi eta garbi ondorioztatzen da kasu honetan ez zela ikerketa judizial eraginkorrik egin, eta bi pertsona hil zituen polizia-operatibo haren erantzukizunak argitu gabe geratu zirela zeharo. Ezin da ondorioztatu poliziak (Francoren diktadurari buruz ari gara) bat-bateko eta berehalako larrialdi-egoera bati aurre egin behar izan zionik eta horrek alde zuzenetik erantzun egokia planifikatze galarazten zionik. Bestalde, gorpuzkiak hobitik ateratzean lortutako datuek judizioz kanpoko exekuzio baten hipotesia berresten dute, probabilitate-estandar nahikoarekin.

Azken batean, lege horren babesean aurkeztutako eskaera baloratu ondoren, R.J.M.V. bizitzeko eskubidearen eta behar bezala ikertzeko betebeharraren ageriko urraketa diren ekintzen biktima gisa aitortzea eta, hala badagokio, dagozkion erreparazio-neurriak hartzea proposatu zuen Batzordeak.

- B.B.A. 1976ko maiatzaren 28a

Batzordeak, era berean, bizitzeko eskubidearen urraketa biktima gisa aitortu du B.B.A, haren dimentsio prozesalean. Haren hilotza 1976ko maiatzaren 28an agertu zen, oinean tiro bat zuela, Iparraldeko Sara herritik gertu dagoen baso-inguru batean, kide

zen ETA pm-ren komandoa Guardia Zibilak Lizarrietako gainaren mugan (Etxalar, Nafarroa) ustekabean harrapatu zuenetik hilabete ingurura.

2016an, heriotzaren 40. urteurrenean, B.B.A.ren senideek eta lagunek erreibindikazio-ekitaldi bat egin zuten Tolosan, eta heriotzaren inguruabarrak ezagutzeko ikerketa bat irekiko zela iragarri zuten. Espainiako artxibo militar eta polizialekin harremanetan jarrita, ez zuten erantzunik ere jaso. Aitzitik, Baionako prokuradorearekin izapideak egin ondoren, 2017an, Frantziako polizia judizialak kasuari buruz egindako espediente osoa lortu zuten. Eta barruan, gorpuaren argazkiak, familiak ordura arte ezagutzen ez zuen autopsiaren txostena, polizia-atestatuak... Frantziako autopsiak agerian utzi zuten B.B.k bala-zauri bakarra zuela orkatiletako batean, sarrera eta irteera zituen zulo bat, odoljariorik eragin ez zuena. Txostenak gaineratzen zuenez, auzitegi-medikua ez zen gai heriotzaren kausa zehazteko.

Gorpuaren argazkiek, maiatzaren 28an agertu zenean hartutakoez, elementu bitxi batzuk erakusten zituzten: gorputzaren goiko aldearen deskonposizioa, zeina, auzitegi-medikuaren ustez, burua hurbileko erreka batean sartuta egoteagatik gerta baitzitekeen; eta botak eta prakak garbiegi egotea gau osoan mendian oinez edo arrastaka ibili omen zen norbaitenak izateko. Harrigarria zen, halaber, hilotza hilabete batean leku berean egon bazen, ez izatea basapiztien, karraskarien edo sarraskijale txikien bazka izanaren aztarnarik.

2018ko apirilean, izapide burokratiko ugari gainditu ondoren, B.B.A.ren gorpua Tolosako hilerritik atera zuten, Paco Etxeberria auzitegi-medikuak bigarren autopsia bat egiteko. [...] Bigarren autopsia horren emaitzak bat etorri ziren lehenengoarenekin.

Batzordeko auzitegi-taldeak ondorioztatu zuenez, aurkeztutako dokumentazioaren berrikuspenak ez du aukerarik ematen lehen autopsian adierazitakoaz gain ezer garrantzitsurik ondorioztatzeko. “Gure ustez, jatorri zehaztugabeko heriotza da, eta ezin da zehaztasun zientifiko txikienarekin ezarri zein izan diren heriotzaren mekanismoak, ez eta kausak ere. Ondorio hori bat dator lehenengo autopsian esandakoarekin: “Ez dakigu zein den heriotzaren arrazoia”; izan ere, kalkaneoaren haustura, berez (eta beste konplikaziorik gabe), ezin da jo hilgarria izan daitekeen lesioz; izan ere, dauden deskribapenen arabera, oin katastrofiko bat bazter daiteke, hots, hezurretako eta ehun bigunetako lesio larriak dituena. Su-armaz egindako kalkaneo-haustura baten sintomatologia ikusita, zaila dirudi ulertzea nola ibil zitekeen pertsona hori kilometro bat lurzoru irregular batean. Autopsiak ez zuen heriotza justifikatzen zuen beste lesiorik detektatu, baina litekeena da gorputzaren usteltze-egoerak (aste batzuetako *postmortem* data batekin bateragarria) azterketa makroskopiko egokia egitea eragotzi izana.

Aztertutako informazio guztia eta jasotako testigantzak ikusita, Batzordeak egiaztatu du zailtasun ugari daudela kasu honetan gertatutakoari buruzko egia osoa ezartzeko, bereziki, egitate horiek, guztiz edo neurri handi batean, agintarien ezagutza eskusiboaren pean zeudela jakinik.

Frantzian egindako ikerketa judizialak, funtsean, erabakigarria ez den autopsia eman zuen eta, hala ere, ez zen aurrera jarraitu gertatutakoa argitzeko instrukzio batekin. Instrukzioa aldi labur samarrean itxi zen, emaitza erabakigarririk gabe.

Espainiako polizia operatiboan inplikaturik zegoen arren, eta agintariek gertakarien berri izan arren, begi-bistakoa da Espainiako jurisdikzioak ez zuela inolako ikerketarik egin. Finean, ikerketa osoari begiratuz gero, agerian geratzen da ez zela oso zehatza

eta arretatsua izan, polizia-operatibo baten ondoren tiro batez hildako pertsona bat agertu zela kontuan izanik. Ikerketa horrek, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinaren arabera, “behar bezain zabala eta sakona” izan behar du, “inguruabarrak arrazoizko azkartasunez eta arduraz argitzeko gaitasuna ahulduko duen gabeziarik gabe” (Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2014ko irailaren 17ko epaia, Mocanu eta beste batzuk Errumaniaren aurka).

Horri gehitu behar zaio familiak etengabeko mehatxu larriak eta errepikatuak jasan zituela, heriotza-mehatxu esplizituak barne, egia bilatzea galarazteko, eta horrek bidegabeko sufrimendua eragin ziola familiari, denbora luzean iraun zuen larritasun- eta beldur-maila handiarekin. Mehatxu horiek ez ziren inoiz ikertu, eta 45 urte baino gehiago igaro ondoren, erabateko zigorgabetasunean jarraitzen dute.

Familiari egindako elkarrizketan agerian geratu zen oso jota daudela gertatutakoagatik, eta gertaerek eragindako ziurgabetasunak eta sufrimendu psikologikoak iraun egiten dutela gaur egun haien barnean. Senideak babestu egin behar dira ikerketa batean parte hartzeagatik edo hildako edo desagertutako pertsona bati buruzko informazioa bilatzeagatik inolako tratu txarrik, larderiarik edo zehapenik jasatetik. Era berean, neurri egokiak hartu behar dira haien segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta osotasun morala bermatzeko. Elementu horiek guztiak, deskribatutako gertakarien eta Batzorde honek jasotako testigantzen arabera, ez ziren batere zaindu; aitzitik, urratu egin ziren.

Nolanahi ere, deskribatutako inguruabarrak ez-betetze bereziki larriak izan ziren egia ezagutzeko eta benetako babes judizialerako familiak zuen eskubideari dagokionez, eta babesgabetasun-egoera nabarmena eragin zuten, oro har xehea izan ez zen instrukzio baten ondorioz, Espainiako jurisdikzioaren kasuan, instrukziorik ere ez baitzen izan. Gainera, azken horri dagokionez –diktadura-testuinguru batean txertatua–, independentzia-falta nabaria zen, eta familiari berari ukatu zion parte-hartze edo azterketa publiko edo familiar oro. Horregatik guztiagatik, giza eskubideen urraketa dimentsio “prozesalek” eratortzen da, hain zuzen ere babesgabetasunagatik eta ikerketarik ezagatik.

- D.A.O. 1979ko ekainaren 22a

D.A.O. Amorebietako (Bizkaia) EKIN euskal kooperatibaren Andaluziako merkataritzaordezkaria zen. 1979ko ekainaren 22an, Sevillatik abiatu zen, kooperatibak antolatutako konbentzioan eta ondorengo bazkarian parte hartzeko EKINeko merkataritza-ordezkariekin, zeinek hainbat probintzian lan egiten baitzuten.

SIMCA 1200 baten atzeko eserlekuan eserita zihoan, Iruñeko, Madrilgo eta Bartzelonako ordezkariekin, eta, egun horretako 23:00ak aldera, tiro-sorta bat jaso zuten Basauriko Polizia Nazionalaren kuartelaren paretik pasatzean. D.A.O.k bi tiro jaso zituen buruan, eta garezurra hautsi eta masa entzefalikoa galdu zuen. Ondorioz, hil egin zen. Beste lagunetako batek zauri arinak izan zituen, bala batek azala urratu zionean.

Poliziaren bertsioaren arabera, minutu batzuk lehenago ETAk atentatu bat egin zuen Polizia Nazionalaren kuartelean, Polizia Nazionalaren autobus batzuk kuartelera itzuli zirenean. Hori dela eta, Barne Arazoetako Ministerioak terrorismoaren biktimatzat aitortu zuen D.A.O. Bestalde, Batzordearen aurrean agertu ziren D.A.O.ren lankideen artean geratu zen sententzia zen ezen, informazio gutxi eman arren, EKINeko

ordezkariak zihoazen ibilgailua “metrailatu zuela poliziak bidaiariak ETaren komando batekin nahasi zituelako”.

Autoa jasotzera joan ziren EKINeko zuzendarien arabera, autoak bala-inpaktu ugari zituen alboetan, sabaian eta atzealdeko kapotean. C. alabak dio ez zela balistika-probarik egin, balen jatorriari edo zorro motari buruzko informazioa jasotzeko. Bizirik atera zirenek, gertakarien zuzeneko lekuko izan baitziren, ez zuten inolako su gurutzaturik hauteman, eta alabak honako hau esan zion Batzordeari: “¿Qué te crees? Pues te crees la versión de las personas que van en el coche, evidentemente”. Bai aitak bai familiak uste dute aitaren kasuan zuzenbide-estatuak ez zuela funtzionatu. Haien iritziz, gertatutakoaren erantzukizuna ekintza egin eta tiro egin zutenena baino harago doa.

Egitatezko presuntzio gisa, Batzordearen ustez, indarkeriazko heriotza horretan beharrezkoa da zer inguruabarretan gertatu zen aztertzea, Segurtasun Indar eta Kidegoen legez kanpoko jarduera izan zen zehazte aldera, biktima izaera behin betiko baieztatu ahal izateko. Horri dagokionez, giza eskubideen urraketaren dimentsio “prozesala” aztertu behar da: ikerketarik ezaren ondoriozko defentsa-gabezia.

Kasu honetan bezala, zer gertatu zen argi ez dagoenean, biktimen izaera erabakitzeke funtsezko puntua giza eskubideen balizko urraketaren (kasu honetan, bizitzeko eskubidea) “dimentsio prozesala” izango da. Hau da, segurtasun-indarrek indarra erabili izanaren “egitatezko presuntzio” argien aurrean, horri buruz garatu zen ikerketaren kalitatea berrikusi behar da. Ikerketa da, beraz, bertsio ofizialaren edo beste bertsio konkurrenteen egiazkotasuna baliozkotzen saiatzeko tresna. Estatuari dagokio gertatutakoa argitzea, gertakarietan duen nagusitasun-postuagatik, haren agenteen jarduketa bat izan baita. Ikerketa (poliziala eta judiziala) eskasa den aztertuko da, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinak ezarritako kanonen arabera (Giuliani eta Gaggio Italiaren aurka, 2011ko martxoaren 24a), hau da: ea ikerketa independentea, azkarra, zehatza (eraginkorra) izan zen, familiak behar bezala parte hartu zuen eta azterketa publikoa egin zen. Analisisirako denbora ez da mugatzen, bide batez, indarra erabiltzen den unearen ikuspegi estu batera, baizik eta operatibo osora, haren diseinura, agenteen kopuru eta prestaketara, agintekatera, komunikazioetara, eta indarra erabiltzea “guztiz beharrezkoa” izan zen ala ez erabaki dezakeen edozein inguruabarretara (GEEHaren 2. artikulua; MacCann eta beste batzuk Erresuma Batuaren aurka, 1995; Giuliani eta Gaggio Italiaren aurka, 2011ko martxoaren 24a).

Kasu honetan, deskribatutako bertsio kontrajarriak (dela bazterbidetik metrailatzea dela tiroketa batean eragindako “su gurutzatua”) ezin izan ziren argitu gerora, ikerketa ez baitzen independentea izan, 1979. urtean botere judizialak zituen egiturazko inguruabarren ondorioz. Baina egiturazkotik harago, prozedura bat gauzatu zen zigor-arloko jurisdikzioan (4850/79 eginbideak, Bilboko Instrukzioko 4 zenbakiko Epaitegira bidaliak, zeinak, azaroan, kausa largestea erabaki baitzuen, Auzitegi Nazionalera bidali gabe), baina funtsezko elementuak falta ziren –egitatezko-presuntzio berriak–, hala nola autopsia, gorpua altxatzeko egintzaren txostena, balistika-txostena eta D.A.O.ren gorpua altxatzeko egintzaren argazki-dokumentazioa.

Ikerketak opakuak izan ziren bere garaian eta hala dira gaur egun. Eskuragarri ditugun zantzu guztiek aditzera ematen dute ikerketa ez zela batere zehatza –ezta eraginkorra ere– izan, eta oso argi dago familiak ez zuela bertan parte hartu, edo ez zela gutxienezko azterketa publikorik egin. Hortaz, ez zen egon ez ikerketa independenterik, ez ikerketa zehatzik, ez ikerketa berehalakorik, ez familiaren

inplikaziorik –guztiz kontrakoa–, ez azterketa publikorik. Gaur egun ere ez daukagu dokumentazio garrantzitsurik, gar bitu egin zelako.

Horrenbestez, behin betiko egiaztatutzat jo behar dugu bizitzarako eskubidea urratu zela, haren bertsio prozesalean. Laburbilduz: informazio ofizial fidagarririk ez dagoenez ikerketa-kanonak nabarmen ez betetzeagatik, defentsa-gabeziako egoera objektibo bat sortzen da, bertsio ofizial indargabetzen duena, eta, aitzitik, egitatezko presuntzioak Estatuko agenteen jardunaren aurka daude, zeina bizitzeko eskubideari eragin zion giza eskubideen urraketa gisa kalifikatu behar baita –haren dimentsio prozesalean–.

- J.L.S.L. 1980ko urriaren 16a

1980ko urriaren 16an, kale-jantzian zihoazen polizia-agenteeek Barakaldoko Los Arcos tabernan egindako ohiko erregistro batean, J.L.S. gaztea, 17 urtekoa, bala batek jota hil zen. Gau hartan, Barakaldoko polizia-etxeko inspektoreek, komisario-buruaren agindupean, alde zuzenetik herri horretako Tuy eta La Herradura tabernak erregistratu zituzten. 23:30ak aldera, Los Arcos tabernara joan ziren. Tabernaren goialdean J.L.S.L. zegoen, lagun batzuekin. Bizkaiko Gobernu Zibilak emandako bertsio ofizialaren arabera, 5843-A zenbaki profesionaleko poliziaren eta biktimaren artean izandako borroka batean egin zen tiro. Zuzeneko lekukoek zalantzan jarri zuten kontakizun hori, eta adierazi zuten borroka hori ez zela gertatu, baina bai hitzezko liskarrak, eta biktimak ez zuela parte hartu.

Tiroaren ondoren lurrera erorita, J.L.S.L.k ez zuen laguntzarik jaso, eta ez zuten “berekala” eramane ospitalera, bertsio ofiziala adierazten duen bezala; aitzitik, lurtean egon zen poliziak bertan zeudenak identifikatzen jarraitzen zuten bitartean. Horietakoren batek ere tiro bat jasotzeko mehatxua jaso zuen, poliziei agiraka egiteagatik.

J.L.S.L. modu horretan hil izanak eta poliziak haren irudi publikoa zikindu izanak, gaizkile gisa aurkeztu baitzuten, min handia eta bidegabekeria-sentsazioa eragin zituen familia osoan. Aita oso jota egon zen, eta ezin izan zuen inoiz gertaera tragiko hura gainditu. Gertakari haiek ahizparen gaixotasuna larriagotu ere egin zuten, hildakoak konplizitate berezia baitzuen harekin. Hainbat zentro psikiatrikotan sartu behar izan zuten, 56 urterekin hil zen arte.

Hurrengo egunetan, prentsak jakinarazi zuen gertakarian izandako lekukoek gezurtatu egiten zutela bertsio ofiziala. Baieztatu zuten, J.L.S.L. establezimenduaren goiko aldean zegoen erreserbatutik jaitsi berri zen, eta hormari begira zegoen eskuak gainean zituela, gainerako bezeroak bezala, haren atzean zegoen poliziak egindako tiroa jaso zuenean. Lekuko horien arabera, J.L.S.L.k ez zuen irainetan parte hartu, eta ez zuen poliziarekin borrokarik egin arma kentzeko. “Paretari bizkarra emanda jartzeko agindu zigutenean, une horretan tiro bat entzun zen, eta J.L.S.L. jo zuen, paretari begira eta eskuak gora zegoela. J.L.S.L. ez zen ezer egiten ari balakolpea jaso zuenean, hormaren kontra eta eskuak gora baitzegoen”. *El Correo* 1980/10/17.

J.A.U.B.k, familiako abokatuak, erreforma-errekurtsoa aurkeztu zuen, eta subsidiarioki apelazioerrekurtsoa. Bere aurkakotasuna azaltzeko, abokatuak argudiatu zuen egun hartan agintaritzak Los Arcos tabernan parte hartu zuten agenteen nortasuna egiazta zezakeela, eta, tiro bakarrik egin zenez, tiro egiteko erabilitako arma eta haren titularra aurkitu ahal izatea benetan posible zela. Adierazi zuen, halaber, gai horiek positiboki ebatzi ezean, estaltze-delitua egiten egon zitekeela.

Fiskaltzak errekurtsorearen aurkako iritzia eman zuen, eta, azkenean, epaitegiak ere aurkako ebazpena eman zuen; ondorioz, kausa artxibatu egin zen, 1981eko martxoaren 14an.

Prozesu judizialaren amaiera ezin ulertuzkoa izan zen familiarentzat eta hurbilekoentzat, are gehiago kontuan izanik sumarioan egindako lehen eginbideetako batean poliziaren identifikaziozenbaki eta erabili zuen arma agertu zirela (5843-A txartel-zenbakiko polizia nazionala eta ASTRA markako errebolberra, 4 hazbetekoa, 38 kalibre berezikoa). Gainera, hilaren 17ko prentsak, bertsio ofizialer joz, tiroa egin zuen poliziaren nortasuna argitaratu zuen, eta agintaritza judizialari parte eman zitzaiola adierazi.

Urriaren 17an Gurutzetako parrokian egindako hiletaren ondoren deitutako manifestazioa Ordena Publikoko Indarrek desegin zuten, eta istilu larriak izan ziren.

Aipatutako legearen aplikazio-eremuaren barruan gertatutako giza eskubideen urraketatzat hartzen dira defentsa-gabezia justifik dezaketen pertsonen kasuak, pertsona horiek jasan zituzten eskubide-urraketak behar bezala ez ikertzeagatik. Aurkeztutako dokumentazioa eta, batez ere, kausa artxibatze autoaren aurka familiaren abokatuak aurkeztutako errekurtsua aztertuta ondorioztatzen denez, justiziak ez zuen egin gertakariak modu egokian ikertzeko behar zen ahaleginik, eta, horrenbestez, prozesu justua eta berme guztiak emango dituen izateko eskubidea kendu zitzaizen interesdunei.

Gainera, oinarrizko eskubideak urratzen direnean, esaterako, bizi-eskubidea, bereziki larria da ikerketa sakonik ez egitea behar den arduraz eta arrazoizko epe baten barruan, horrek eragina baitu beste eskubide zibil eta politiko batzuen erabileran ere. Azken batean, gertakariak agerian uzten dute giza eskubideen urraketa bat gertatu zela polizia-jarduera baten ondorioz, eta su-armak erabili zirela, erabat mesprextatuz herritarren bizia eta osotasun fisikoa, indarkeria politikoak gogor jotako gizarte-testuinguruan.

3.2. Poliziaren zaintzapean gertatutako heriotzak

- F.B.G. 1979ko urtarrilaren 7a

F.B.G.k Barakaldoko Maisutza Eskolan ikasi zuen. Ondoren, Bilboko Sucoin enpresan hasi zen lanean, ikastun, 16 urterekin. Comisiones Obreras (CCOO) sindikatuko kidea zen, alderdi politikoekin loturarik gabe, eta hirugarren mailako ofizial gisa lan egiten zuen. 1979ko urtarrilaren 7an, Guardia Zibilak atxilotuta zeukala, tiro bat jaso zuen buruan eta bertan hil zen. 19 urte zituen.

Antza denez, lapurretagatik salatutako ibilgailu baten antzeko ibilgailu bat zegoen inguruan, eta bizilagun bati susmagarria iruditu eta Guardia Zibila ohartarazi zuen. Gazteak handik gertu zeudela, Balmasedako Guardia Zibileko agenteek F.B.G. eta haren lau lagunak atzeman eta indarkeriaz atxilotu zituzten.

Ondoren, bost atxilotuak bi edo hiru Land Rover ibilgailutan sartu zituzten, Galdamesko kuarterera eramateko. F.B.G. ibilgailuetako baten atzealdean jarri zuten, guardia zibil baten eta lagunetako baten ondoan. Poliziaren bertsioaren arabera: “Beste guardia zibil bat ibilgailuaren aurrealdean sartu zen, gidariaren ondoan; bat-batean, armak tiro egin zuen, ustekabean, eta bala batek F.B.G. jo zuen, eskuineko

eskuan eta buruan”. Han ziren beste gazteen bertsioa, ordea, hau izan zen: “Allí les cachearon, les maltrataron y golpearon, porque les debieron de... ¡Pum-Pum!... No fueron ‘joye, dame tu carné!’ , no, no. Les hicieron alguna maniobra, les sujetaron allí, a F.B.G. le dieron un culatazo en la parte de atrás, ¡eh! Y él se revolvió y dijo ‘¡hijoputa!’ o no sé qué... y el otro se debió de caer con el Cetme, y le cogió y le metió un tiro, así, por la cara”. Hirugarren bertsio bat ere egon zen: F.B.G.k eskuekin estali zituela belarriak, guardia zibiletako batek egiten zituen oihuak ez entzuteko, eta horrek agentea haserretu zuela.

Ez zen autopsiarik egin. Dirudienez, presa ofizial zegoen hilobiratzeko. Ehorztetxean eranztean, familiak bularrean hiru inpaktu zituela ikusi zuen. Bai lekukoak, hainbat egunez atxilotuta egon baitziren, bai G., hildakoaren aita, gertatutakoa argitzen saiatzen ari baitzen, mehatxatu egin zituzten gertatutakoa ez ikertzeko. Inoiz ez ziren argitu heriotzaren inguruabarrak. Inor ez zen epaitu heriotza horrengatik. Gardentasun faltak eta justiziaren jarduerarik ezak gehitu egin zuten, are gehiago, B.G. familiaren samina.

1978ko Konstituzioa onartu eta egun batzuetara, segurtasun-kidegoek atxiloketa egiteko eta indarra erabiltzeko modua giza eskubideekiko errespetuaren gutxieneko estandarrak betetzen ez zituzten jokabide-ereduen arabera zen. Oro har, herritarrak ez ziren herritar gisa tratatzen, Estatuaren etsai edo eskubiderik gabeko subjektu gisa baizik. Ez zegoen inolako interes politiko estrukturalik polizia-eredu demokratikoa babesteko, eta hori agerian geratzen zen poliziaren jardunean, kasu honetan gertatu zen bezala. Horri gehitu behar zaizkio agintarien ahalegin nabarmenak gertaerak ezkutatzeko eta zigorgabetasuna bermatzeko, jarduketaren zantzuen motibazioa ikertzea eragozten baitute. Autoestaltze-jarduketa hori, beraz, ezin da demandatzailearen kalterako izan eta motibazio politikoa ukatzeko erabili, egon badagoelako, bai egituraz bai banaka.

Ez Bilboko Probintzia Auzitegiak, ez Coruñaeko 4. Lurralde Auzitegi Militarrek, zeinengana jo baitu Batzorde honek egin ziren ikerketak ezagutzeko, ez dute kasuari buruzko dokumentaziorik aurkitu.

Uztailaren 18ko 12/2016 Legearen aplikazio-eremuaren barruan gertatutako giza eskubideen urraketatzat hartzen dira defentsa-gabezia justifik dezaketen pertsonen kasuak, pertsona horiek jasan zituzten eskubide-urraketak behar bezala ez ikertzeagatik. Batzorde honek egindako kudeaketetan eta F.B.G.ren senideen adierazpenetan egiaztatu denez, kasua ez zen modu arduratsuan ikertu, eta berme guztiak betetzen zituen prozesu zuzena izateko eskubidea kendu zitzaion familiari.

Gainera, oinarritzko eskubideak urratzen direnean, esaterako, bizi-eskubidea, bereziki larria da ikerketa sakonik ez egitea behar den arduraz eta arrazoizko epe baten barruan, horrek eragina baitu beste eskubide zibil eta politiko batzuen erabileran ere.

Edozein kasutan, gertatutakoari buruzko bertsio kontraesankorrak daudenean, biktimen izaera erabakitzeke funtsezko puntua giza eskubideen balizko urraketaren (kasu honetan, bizitzeko eskubidea) “dimentsio prozesala” izango da. Hau da, segurtasun-indarrek indarra erabili izanaren “egitatezko presuntzio” argien aurrean, horri buruz garatu zen ikerketaren kalitatea berrikusi behar da. Ikerketa da, beraz, bertsio ofizialaren edo beste bertsio konkurrenteen egiazkotasuna baliozkotzen saiatzeko tresna. Estatuari dagokio gertatutakoa argitzea, gertakarietan duen nagusitasun-postuagatik, haren agenteen jarduketa bat izan baita. Ikerketa (poliziala

eta judiziala) eskasa den aztertuko da, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinak ezarritako kanonen arabera (Giuliani eta Gaggio Italiaren aurka, 2011ko martxoaren 24a), hau da: ea ikerketa independentea, azkarra, zehatza (eraginkorra) izan zen, familiak behar bezala parte hartu zuen eta azterketa publikoa egin zen.

Azken batean, adierazitako irizpideei buruzko ikerketa finkaturi ez dagoenez, gertakariak erakusten dute giza eskubideen urraketa bat gertatu zela suzko armak erabiliz poliziak egindako jarduketaren ondorioz, eta horrek agerian uzten du pertsonen bizitza eta osotasun fisiko erabat mespretxatu zirela.

- M.G.Y.I. 1993ko irailaren 23a

M.G.Y.I.ren heriotza poliziaren zaintzapean zeudela bizia galdu dutenen artean kokatzen da, tortura-testuinguru batean gertatutako heriotza, zehazkiago.

M.G.Y.I. bere etxean atxilotu zuten, Urnietan, Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzuko agenteek, 1993ko irailaren 23ko goizaldeko ordu biak inguruan. Atxiloketaren unean oso asaldatuta zegoen, segurtasun-indarrei beldur handia zielako eta bi egun lehenago senarra eta Urnietako kuadrillako beste kide batzuk atxilotu zituztelako. Atxiloketa horien guztien helburua Julio Iglesias Zamora enpresaburua aurkitzea zen. ETak bahituta baitzeukan, eta, poliziaren susmoen arabera, Adarra mendiko lekuren batean egon zitekeen, Urnietako herrigunetik gertu.

Terrorismoaren aurkako legea aplikatuz, M.G.Y.I. inkomunikatu egin zuten eta Donostiako 513 Komandantziako kuartelera eraman zuten; han igaro zuen gaua. Hurrengo goizean Madrilgo Tres Cantos-eko Komandantziara eraman zuten, eta ordu batzuk geroago hil zen, poliziaren zaintzapean zegoela. Heriotzaren inguruabar ilunek asaldura eta eztabaida handia eragin zuten. 31 urte zituen.

Egitatezko presuntzio sendoak daude M.G.Y.I. atxilotuta zegoen bitartean tortura, zigor eta tratu krudel, anker edo iraingarriak eman zizkiotela eta horiek heriotza eragin ziotela. Zalantzarik gabe, inkomunikatuta atxilo egon ondoren polizia-etxetik hilda ateratzea da ikerketa judizialak aurre egin behar izan zion presuntzio larriena, betebeharrak positiboen doktrinarekin bat etorritik –ikerketakasu honetan (eraginkorra, independentea, azkarra eta azterketa publiko eta familiarrarekin)–, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 2. eta 3. artikuluen arabera (bizitzeko eskubidea eta tortura eta tratu txarren debekua, hurrenez hurren) (Giuliani eta Gaggio Italiaren aurka kasua, 2011ko martxoaren 24koa, Sala Nagusia; Konstituzio Auzitegiaren 1/2024 epaia, urtarrilaren 15koa).

Batzorde honek, gainera, bereziki hartu du kontuan Legez kontrakoak izan daitezkeen heriotzak ikertzeari buruzko Nazio Batuen Protokoloak (2016) jasotzen duen interpretazio-ildoak. Izan ere, estandar hori erabateko erreferentzia bilakatu da nazioartean, inguruabar susmagarrietan gertatutako heriotzak ikertzen diharduten pertsonen jarduketaren ebaluazioan, helburutzat hartuta bizitzeko eskubidea babestea, justizia sustatzea, kontu ematea eta erreparaziorako eskubidea bermatzea. Horretarako, heriotza guztien ikerketa eraginkorra bultzatu behar da, heriotza horiek legez kontrakoak izan daitezkeenean edo behartutako desagertzeen ondoriozkoak izan litezkeela susmatzen denean.

Espediente honetan bildu behar diren egitatezko presuntzioen artean daude, heriotzaren egitate eztabaidaezinaz gain, egoitza berberetan zeuden beste atxilotu

batzuen lekukotzak. Adibidez, atxilotuetako batek, E.k, torturatzen ari zen aldietako batean bizi izan zuen gertakaria kontatzen du: “Eta, de repente, tipoa etorri zen. ‘Eh!’ ‘¡Venga, venga, venga!’, eta hasi ziren mugimenduan eta, o sea, aurrera, atzera. Ateratzen hasi ziren, sakua jarri zidaten eta kamila bat pasa zen nire ondotik. Orain ni seguru nago Gurutze zela kamilakoa eta ‘Se nos ha escapado la mano’ entzuten zen eta holako gauzak”.

K.U. ere, M.G.Y.I.ren laguna eta HBko militantzia-kidea, Tres Cantos-en zegoen gau hartan. Batzorde honen aurrean egin zuen agerraldian, azaldu zuen M.G.Y.I.ren ibilera bereizgarria ezagutu zuela bere atearen burdin barraren azpitik: “(...) Hay un momento muy concreto en el que la situación se hace insoportable. Gritos, unos gritos... Buff. Se oyen voces de ‘Jo, no me peguéis más, por favor, no me peguéis más por favor, no me peguéis más, por favor...’. Y unos gritos ensordecedores, hasta el punto de tener que taparme los oídos porque no soportaba aquella situación. Y bueno, unos gritos... Fue, fue... Un momento terrible, decía jooo, ‘¿qué está pasando aquí? ¡Cuánta gente hay! ¿Qué está pasando ahí fuera?’. Eso sucede durante no sé cuánto tiempo...”

“Y de repente, de un momento a otro, se para todo... Y se terminan los interrogatorios, se paran los golpes, se terminan las sesiones de la bolsa, las visitas a la celda de los guardias civiles, se terminan las amenazas, las coacciones, las amenazas de carácter sexual, se termina todo. Se termina todo. Antes de terminarse, se oyen y se ven... Se nota mucho nerviosismo. Gritos, pero ya no gritos de una persona que puedan estar torturando, que puedan estar... ¡No! Si no como mucha alteración. La gente como alterada. Y de repente, desde esa cancela que he comentado antes, pasa como una especie de... pues no sé si una camilla, una silla de ruedas... no sabría decir, pero algo con ruedas. Y a partir de ese momento se termina todo, se hace el silencio. Nos traen incluso... algo para comer, que durante todo el tiempo anterior no había...”.

Familiak eskatu zuen txosten bat dago, irailaren 25ean egindako autopsiarekin kontraesanean zegoena eta zalantzak sortzen dituen M.G.Y.I. atxilotu aurretik arteria koronarioko tronbo baten eraginez gertatutako infartuagatik hil zela adierazten zuen puntu erabakigarriari buruz. Familiak Danimarkako Jorgen L. Thomsen doktore espezialistaren presentzia eskatu zuen, eta hark bere txostenean adierazi zuen ez zegoela ados autopsian jarraitutako prozedurarekin. Haren ustez, M.G.Y.I. atake epileptiko baten ondorioz izandako aire-faltak eraginda hil zen.

Horri gehitu behar zaio espediente honetan jasota dagoen peritu-txostena, oso iritzi irmoa ematen baitu auzitegi-medikuntzaren jardueraren balizko zabarkeria larriari buruz. Peritu-txosten horrek, konklusio-zatian, honako hau dio, hitzez hitz: “Zabarkeria lau elementutan oinarritzen da gutxienez: 1. Aurreikuspenik egin ez izana eta emaitza hilgarria saihestu ez izana. 2. Eskatutako ezagutzak eta trebetasunak egiaztatu ez izana. 3. Egin beharreko jarduketa bat egin ez izana. 4. Osasun-asistentziari dagokionez, zaurgarritasun-egoera berezian dagoen pertsona baten arriskua ez haztatzea: inkomunikazioa, pazientearen autonomia gauzatzeko ezintasunarekin.

Hutsegite medikoaz gain, kalte bat dago (pazientearen heriotza), bai eta kausa-efektu erlazio bat ere (diagnostiko goiztiar batekin pazientea hiltzea saihestu zitekeen)”. Peritu-txostenak ez du zalantzarik uzten, ondorioetan honako hau ere adierazten baitu: “M.G.Y.I. osasun-egoera onean ospitaleratu zuten, eta ez zuen inoiz bihotzeko patologiarik izan, nahiz eta arrisku kardiobaskularreko faktoreak izan. 35 urtetik beherako emakumeetan tronbosi koronarioa oso ezohikoa da. Inkomunikazioarekin

lotutako estres akutuko egoerak (beste atxilotu batzuek kontatutako beldur-giroarekin eta hark jasan zitzakeen tratu txarrekin batera) M.G.Y.I.ren heriotza eragin zuen faktorea izan zitekeen.” Amaitzeko, hau dio:

1. “Litekeena da M.G.Y.I.k tratu txarrak edo torturak jasan izana.
 - a. Gorputzeko hainbat lesio daude, beste pertsona batzuek egindakoak izan litezkeenak.
 - b. Gau hartan gertatutakoari buruz lekukoek emandako testigantzetan (beste atxilotu batzuek jasandako torturen kontakizunak) eta M.G.Y.I.ren oihuak entzun zituztenen baieztapenetan oinarrituta.”
2. Historia klinikoaren azterketak adierazten duenez, Auzitegi Nazionaleko auzitegi-medikuaren jarrera arduragabea izan zen, eta haren jokabidea ez zen egokitu praxi medikora (*lex artis ad hoc*); horrek diagnostiko goiztiarra eta tratamendu egokia eragotzi zituen. 1993ko arau medikoen arabera jokatzuz gero, tronbosi koronarioaren ondorioz hiltzea saihestu ahal izango zatekeen.
3. Atxiloketan zehar bizitako estres psikologiko akutu larriak, Madrilera eramateak, atxiloketa inkomunikatuak eta balizko tratu txarrek/torturek bihotzeko bat-bateko heriotza eragin edo azkartu zezaketen faktore gisa jardungo zuketena”.

Azaldutako egitatezko presuntzioetan oinarrituta, esan daiteke, kasu honetako ebazpen judizialen edukia erabat errespetatuz, ikerketak ez zuela ez zehaztasunik ez eraginkortasunik izan, eta, gertatu izan balitz, heriotza zer inguruabarretan gertatu zen argitu ahal izango zela. Ikerketa sakonagoa egin beharko zen auzitegi-medikuntzako alderdiei buruz (heriotzaren etiologia), baita hildakoak zituen kolpe eta hematomei buruz ere. Bereziki garrantzitsua da kontuan izatea ezen, polizia-etxean atxilotuta zeuden beste pertsonen agerraldiak eskatu baziren ere, instruktoreak ez zuela ikerketa-lana zabaldu. Are gehiago, espediente judizialean jasota dagoen bezala, sistematikoki baztertzen ziren ikerketa-ildoak (polizia-etxeko edo osasun-zentroko berpiztearen inguruko egiteateak berreraikitzea; 282/93 Aurretiazko Eginbideen lekukotza eskatzea...), G.k edo une hartan bertan eta polizia-bulego horietan atxilotutako beste pertsona batzuek torturak eta tratu txarrak jaso zituztela adieraz zezaketenak, gauza garrantzitsu bakarra heriotzaren kausa ezartzea balitz bezala, hirugarrenen jokabide mota horiek alde batera utzita.

Konstituzio Auzitegiaren 1/2024 epaiak, 2024ko urtarrilaren 15ekoak, Algecirasko polizia-etxe batean atxilotutako baten balizko suizidioari buruzko kasu batean, adierazten duenez (Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 2. eta 3. artikuluetako doktrina gurutzatua jasotzen eta txertatzen du gai horretan):

“Laburbilduz, organo judizialek goizegi itxi zuten instrukzioa, akusazio partikularrak eta herri-akusazioek behin eta berriz eskatutako ikerketa-eginbiderik egin gabe; izan ere, ondorioztatu zuten ez zegoela behar bezala justifikatut kausa eratzeko delitua egin izana, atxilotuaren heriotzan hirugarrenek esku hartu ez zutela uste baitzuten.

Bada, aurkaratutako ebazpen judizialetan egindako argudio-ahalegin handia gorabehera, auzitegi honek uste du ezin dela esan behin-behineko largespena erabakitzeko eta auzia artxibatzeko erabakia bat datorrenik ikerketa judizial nahikoa

eta eraginkorra egiteko konstituzio-kanonaren eskakizunekin; izan ere, instrukzioan zehar ez dira gauzatu errekurtsogileak –akusazio partikular gisa eraturak– eta auziaren xede diren egitateak argitzeko egokiak izan zitezkeen herri-akusazioak garaiz eta behar bezala proposatutako ikerketa-eginbideak, bereziki zehazteko atxilotuaren suizidio-arriskua erreal eta berehalakoa zen eta haren zaintzaz arduratzen ziren polizia-agenteez arrisku hori gauzatu ez zedin ahal zen guztia egin zuten”. Eta, azkenik, dagokion babesa ematen da, ulertzen baita ezen, “kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kasu honetan ez zela ikerketa judizial nahikoa eta eraginkorra egin gertakariak hobeto argitzeko, nahiz eta salatzaileak eta herri-akusazioak ikerketa-eginbideak egitea proposatu zuten, zigor-arloko instrukziorako erabilgarriak izan zitezkeenak. Ondorioz, errekurtsogileari eskatutako babesa eman behar zaio, benetako babes judizialerako oinarritzko eskubidea urratu baita (Espainiako Konstituzioaren 24.1 art.)”.

Peritu-txostenaren arabera, Auzitegi Nazionaleko auzitegi-medikuaren goizaldeko 03:25eko esku-hartzean diagnostiko-hutsegite argia gertatu zen. Askatasunaz gabetuta (inkomunikatuta) zegoen eta bularrezurraren atzeko mina zuen paziente baten aurrean, telefono bidezko elkarrizketa baten bidez, bronkioetako prozesu onbera (eztula + mukositate) diagnostikatu zuen, eta mukolitiko bat agindu. Autopsiak ezarri zuen bat-bateko heriotzaren kausa tronbosi koronario bat izan zela.

Berez, diagnostiko oker hutsa ez da zabarkeria medikotzat edo praxi mediko txartzat hartzen: medikuek akatsak egin ditzakete diagnostikoetan. Hala ere, kasu honetan, akatsa “*lex artis ad hoc*” irizpidearen kontrako jarduketa baten ondorio izan zen; hau da, bularrezurraren atzeko min bat dagoenean egin behar zen jarduketaren aurkakoa izan zen, 1993ko gida klinikoen protokoloen arabera.

G.Y.k aipatutakoa bezalako bularrezurraren atzeko mina ez da mukolitiko batekin tratatzeko moduko ezta eta mukositate prozesu bronkial baten ezaugarria. Edozein kasutan, larrialdietako gidek adierazten dute funtsezkoa dela hilgarria izan daitekeen gaixotasun bat baztertzea, hala nola tronbosi koronarioa. Are gehiago, Auzitegi Nazionaleko auzitegiko medikuak jada ezagutzen zituen arrisku kardiobaskularreko faktoreak zeuden: tabakismo larria, gehiegizko pisu nabarmena eta estres emozionaleko egoera.

Auzitegi Nazionaleko auzitegi-medikuak ez zuen beharrezkoa zen arreta eman, ekintzarik ezagatik (ez zuen egin eskatutako ekintza medikoa, beharrezkoa zen arren), eta ez zuen anamnesi egokirik egin, ezta miaketa fisikori ere, eta, ondorioz, ez zitzaion EKGrik edo odol-analitkarik egin. Era berean, ez zuen agindu pazientea (poliziaren zaintzapean askatasunaz gabetutako pertsona, eta, beraz, autonomiarik gabea) larrialdietara eramateko. Telefono-elkarrizketa labur bat izatera mugatu zen. Horrekin, osasun-laguntza jasotzeko eskubidea kendu zion, zeinak agian haren heriotza saihestuko baitzuen hilgarria izan zitekeen egoera kliniko hartan.

Estres emozional akutua (batez ere, bizitzarengatik edo segurtasunarengatik beldur izateak) sindrome koronario akutua, miokardio-infartu akutua eta bat-bateko bihotzeko heriotza eragin ditzake, batez ere bihotzeko gaixotasun larriak dituzten pertsonetan, eta bereziki gaixotasun koronarioetan [3,4].

Hori dela eta, Batzorde honek uste osoa du gertatutakoa argitzeko baliagarriak izango ziren ikerketa-eginbideak egin gabe utzi zirela, eta, horregatik, deklaratu du M.G.Y.I.ren bizitzeko eskubideari eta osotasun fisiko eta moralari (tortura eta tratu

txarren debekua) eragin zien giza eskubideen urraketa bat gertatu zela, dimentsio prozesalean.

3.3. Talde parapolizialen atentatuaren ondorioz gertatutako heriotza

Atal honetan, eskuin muturreko talde parapolizialeko kide batek Lezon hildako C.S.C.ren kasua jasotzen da. Zehazki, Grupos Armados Españoles (GAE) taldeak errebindikatu zuen. Amnistiaren aldeko Batzordeetako kide zen biktima.

- C.S.C. 1980/01/15

Gau hartan, A. amaren etxean afaldu zuen C.S.C.k, Pasai Donibanen, egin ohi zuen bezala. Familiaren etxetik ateratakoan, C.S.C.k Lezora eramateko eskaintza egin zien lagun bati eta beste pertsona bati, han izapideren bat egin behar baitzuten.

Bere helmugara bidean, gaueko hamabiak eta bost inguruan, C.S.C.k ibilgailua gelditu zuen bere etxearen aurrean, Lezoko Urdaburu kaleko 2. zenbakian, eta autoan itxaroteko esan zien lagunei, berak etxetik beroki bat hartu eta altzariak garraiatzeko erabili ohi zituen mantak uzten zituen bitartean.

Atarian sartu zenean, zain zeukan pertsona armatu batekin topo egin zuen, zeinak, berarekin hitz batzuk trukatu ondoren, bi tiro egin baitzizkion buruan, distantzia laburrera. Orduan lurrera erori eta ia berehala hil zen. Grupos Armados Españoles taldeak (GAE) errebindikatu zuen atentatua.

Batzorde honen aurrean, eskatzaileek azpimarratzen dute C.S.C. biktima gisa aitortzeari behin eta berriz uko egin izana injustizia bat dela familiarentzat, kontuan hartuta “garai hartan Amnistiaren Aldeko Batzordeak giza laguntzarako eta laguntza juridikorako legezko erakundeak zirela; izan ere, ez da ahaztu behar Eduardo Chillida eskultoreak diseinatu zuela haien logoa”. Ez dute ulertzen askoz geroago emandako epai batek nola eragin dezakeen hain modu negatiboan interesatuaren eta haren familiaren eskubidean, are gehiago egiletza frogatuta dagoenean –eskuin muturrari lotutako talde terroristak–.

Eusko Jaurlaritzako orduko Giza Eskubideen zuzendari Jon Mirena Landak sinatutako *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen biktimak* izenburuko txostenean, indar edo talde parapolizialak honela definitzen dira: “Segurtasun-indarrekin ados jarrita jardun zuten pertsonen kolektiboak edo taldeak. Batzuetan, indar horietako kideek zuzenean parte hartu zuten, ekintza klandestinoetan edo Estatuko Segurtasun Indarretan zuten eginkizunetik kanpo, baina nolabaiteko laguntza aktiboa edo pasiboa eduki zuten, Trantsizio politikoaren urteetan eta 80ko hamarkadako lehen urteetan bereziki”. Talde horiek batzuetan errebindikatzen zituzten beren atentatuak, eta beste batzuetan ez, baina egiten zutenean hainbat sigla erabiltzen zituzten, 1983an GAL eratu aurretik.

EAEen 1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostenean (Carlos Fonseca, koord., Eusko Jaurlaritza, 2014) Batallón Vasco Españolen (BVE) eta haren talde “sateliteen” (besteak beste, GAE, Grupos Armados Españoles) atentatuetan hildako 40 biktima zenbatu ziren guztira, eta horien gainean emandako sei epairen (% 15) eta hamar behin-behineko largespenen (% 25) berri baino ez dugu. Gainerako 24 hilketetan (% 60), ez dakigu zein den auzien egoera prozesala. “Kontuan izan behar da krimen horietako asko Frantzia

egin zirela, eta, horregatik, oso zaila dela prozeduren instrukzioari jarraipena egitea, kazetaritza-aipamenetatik harago”.

Txosten horrek berak hau dio BVeri buruz: “kide gehienak soldatapeko mertzenarioak, poliziak, zerbitzu sekretuetako kideak eta ultraeskuindarrak ziren, eta Frantziaren hegoaldean eta Euskadin jardun zuten 1975eko ekainetik 1982ko urtarrilera bitartean, ETaren terrorismoari aurka egiteko asmoz”. Mertzenario horietako batzuk Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL) izeneko taldeetan sartu ziren urte batzuk geroago.

3.4. Beste inguruabar batzuetan gertatutako heriotza

- J.M.Q.L. 1968ko urtarrilaren 29a, bi hilabetez ospitalean egon ondoren.

Poliziak 1958an atxilotu zuen J.M.Q.L., lehen aldiz. Ondoren, ETA sortu berrian izandako militantzian zehar, nabarmentzekoa da bi aldiz atxilotu zutela, 1961ean eta 1962an egindako sarekadatan, nahiz eta dozena erdi gehiago izan ziren, gutxienez, polizia-etxean egondako aldiak. Francisco Franco Donostiara uda pasatzera joaten zen bakoitzean atxilotu egiten zuten, prebentzioz. Egun haietan familiak bazekien ez zuela etxean lo egingo, eta tapaki bat ere edukitzen zuten prest bila etortzen zirenerako.

Behin, “lankideek halako egoera tamalgarrian iritsi zela ikusi zutenean, zur eta lur geratu ziren: burua puztuta eta kolpez josita zeukan, ikaragarria zen hanketako errotulak nola zituen ikustea, oinez ibiltzea eragozteraino. Prakak hanken artean zeramatzan. Ospitale batera eraman behar izan zuten, itaunketako batean aulki batekin buruan jo zutelako eta konortea galdu zuelako”.

Poliziak emandako tratu txarrek nabarmen kaltetu zuten haren osasun-egoera, 1968ko urtarrilaren 29n hil zen arte, bi hilabetez ospitalean egon ondoren.

Haren heriotzaren arrazoiari dagokionez, artatu zuen doktoreak honako hau esan zion familiari: “Ezin dizuet jatorria esan, baina imajinatzen duzue”. Giza eskubideen urraketako kasu honetan, poliziaren zaintzapean jasandako tortura eta tratu txar larriek osatzen dute etiologia, zeinak heriotza eragin baitzuen gerora, urte batzuk igaro ondoren, baina aipatutako atxiloketarekin lotuta.

Dagoen dokumentazioa oinarri hartuta, Batzorde honetako peritu-taldearen arabera, ebakuntza kirurgikoaren beharra izan zuen garuneko abzesu baten ondorioz hil zen J.M.Q.L. J.M.Q.L. gaztea zen, eta ez zuen aurrekari patologiko aipagarririk. Osasun-egoera ezin hobea zuen, eta bat-batean okerrera egin zuen, atxiloketen eta alegatutako tratu txarren ondoren.

Balorazio Batzordeak, abiapuntu duen froga-estandarraren arabera, egiazkotzat jotzen ditu deskribatutako gertakariak, eta heriotzaren arrazoiari buruzko hipotesi probableenari heltzen dio. Hipotesi horren arabera, heriotza atxiloketan jasandako kolpeen trauma-osteko konplikazioen (garezurreko traumatismoa) ondorio da, honako kausa-kate honen arabera: eremu tenporaleko/garezurreko kolpeek tratatu gabeko tinpano-zulaketa eragin zuten, eta, ondorioz, erdiko otitis kronikoa eta garuneko abzesua; abzesuaren kirurgiaren konplikazioek, azkenik, heriotza eragin zuten. Hil zenean J.M.Q.L.k 33 urte zituen, eta ilea erabat zurituta.

3.5. Zaurituak

Alde batetik, 3.5.1 atalean talde parapolizialen lau biktima daude. Batzordeak aztertu zuen lehenengo kasua senar-emazte batzuen izan zen. Batallón Vasco Español (BVE) taldeak bonba bat jarri zien Errenterian, haien ibilgailuaren azpian, zauri larriak eta sufrimendu handia eraginez. Atal horretan, bala-tiroekin egindako beste bi eraso parapolizial ere ageri dira, Baionan eta Donostian.

Bestalde, 3.5.2 atalean, Guardia Zibila eta Polizia protesta bat erreprimitzen ari ziren une berean bere etxera zihoala bala-tiro bat jaso zuen gazte baten kasua jasotzen du Batzordeak.

3.5.1. Atentatu parapolizialean

- E.G.A., balaz zauritua, 1979ko urtarrilaren 18an.

1979ko gau hartan, E.G.A. zen tabernako bezero bakarra. Barran eserita zegoen, sarrerako ateari bizkarra emanda, eta, kanpotik eta ezustean, norbaitek tiro bakarra egin zuen. Tiroak gerrialdean jo zuen E.G.A., eta zilbor-inguruaren eskuinaldetik irten zen. (...) EGA urgentziaz operatu zuten. Jaurtigaiaren sarrera- eta irteera-zuloez gain, zeharkako kolonean 3 cm-ko zulo bat eta tumefakzio handi bat zituen goranzko kolonaren paretan, eta, ondorioz, zekostomia bat egin eta bi zuloak josi behar izan zizkioten. (...) Berriz ere ebakuntza egin zioten, urte bereko maiatzaren 14an, eta hamar egunez egon zen ospitaleratuta. Azkenik, 175 egunez egon zen bajan.

OAMAS Organización Armada por la Liberación Nacional contra el Marxismo y el Separatismo taldeak errebindikatu zuen atentatua, *Deia* egunkariaren erredakziora bidalitako komunikatu batean. (...) Donibane Lohizunen *Peixotoren* aurka izandako atentatua ere bere gain hartu zuen OAMASEk.

Atentatuak segurtasunik eza eta beldur handia eragin zion E.G.A.ri. Ospitaleko alta jaso ondoren, ez zuen etxera itzuli nahi izan, eta gurasoen etxean egon zen bigarren ebakuntza egin arte. Etxean bakarrik geratzean, beldur zen. Bere emaztearekin etxera itzuli zenean, tabernara joateari utzi zioten, eta auzotik kanpo ibiltzen ziren, beste atentatu baten beldur.

12/2016 Legearen aplikazio-eremuko giza eskubideen urraketatzat jotzen dira defentsa-gabezia justifik dezaketen pertsonen kasuak, defentsa-gabezia hori egiaztatzeko zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bidez, legeak aipatzen dituen giza eskubideen urraketak direla-eta aurkeztu diren salaketak ez ikertzeagatik. Ikerketa judiziala hasita, egindako eginbideak ez ziren benetan nahikoak izan atentatu haren egile material eta intelektualak identifikatu eta epaitu ahal izateko.

1979ko abuztuaren 6an, sumarioa amaitzeko autoa eman zen, prozedura ezin izan zelako pertsona jakin baten aurka zuzendu, nahiz eta OAMASEk (Organización Armada por la Liberación Nacional contra el Marxismo y el Separatismo) errebindikatu zuen atentatua. Bestalde, familiak baieztatzen du erakunde batek ere ez zuela interesik agertu E.G.A.ren egoerari buruz edo gertatutakoaren inguruabarrei buruz.

- J.M.I.O. eta M.C.I.C. 1980ko martxoaren 28a

Etxeko ataritik irten ondoren, senar-emazteak beren ibilgailura joan ziren, ataritik 20

bat metrora zegoen Renault 4L zuri bat. J.M.I.O. iritsi zen lehenengo; ibilgailura sartu, gidariaren eserlekuan eseri eta giltza sartu zuen kontaktuan, orduan deflagrazio handia gertatu zen, eta bete-betean harrapatu zuen. Bere aldetik, M.C.I.C. oraindik ibilgailuan sartu gabe zegoen; hedatze-uhinaren talkak hainbat metrora jaurti zuen, eta kolpe bortitza hartu zuen galtzadaren kontra.

Autoaren azpian jarritako bonbaren leherketa oso bortitza izan zen, eta autoaren zati bat aparkatuta zegoen lekutik 40 metrora mugitu zen. Kristalak hautsi ziren, eta kalte material ugari izan ziren hedatze-uhinak eragindakako higiezinetan eta beste ibilgailu batzuetan.

J.M.I.O. Herri Batasunako eta Amnistiaren aldeko Batzordeetako kidea zen, eta Batallón Vasco Español (BVE) taldeak erreibindikatu zuen atentatua, Deia egunkarira egindako dei baten bidez. Prentsak honela jaso zuen: “Emprendemos otra vez la lucha en los establecimientos y contra elementos separatistas. Batallón Emilio Guezala. Viva España. Batallón Vasco Español. Hasta pronto”. Senarrak hainbat zauri larri jasan zituen, eta hanka eta ezkerreko besaurrea moztu zizkioten.

J.M.I.O. eta M.C.I.C.ren aurkako atentatua ez zen erasotzaile jakin baten kasu isolatu edo kasualitatezkoa izan, BVE siglekin 18 hilketak eta indarkeria-ekintzen kopuru zehaztugabe bat erreibindikatu baitziren. Ondorioz, Batzordeak, aurkeztutako eskabidea baloratu ondoren, proposatu zuen, lege honen babesean, senar-emazteak osotasun fisiko, psikiko eta moralerako eskubidea nabarmen urratzen duten ekintzen biktima gisa aitortzea eta, horrela badagokio, dagozkion erreparazio-neurriak ezartzea.

- J.A.A. 1985ko martxoaren 4a

J.A.A. euskal errefuxiatu-talde batekin zegoen Baionako erdialdeko Lagunekin izeneko tabernan, Frantzia bere “paperak” erregularizatu zituela ospatzeko. Komunera zihoala, pertsona kaputxadun bat ikusi zuen tabernan sartzen, ehizako fusil batez armatuta. Bultzatzeko eta lagunei abisatzeko imintzioa ozta-ozta egin orduko, kaputxadunak gertutik egindako bi tiroetako batek bularrean jo zuen. Bigarren tiroa G.Z.k jaso zuen, bizkarrean, eta bi lagunak lurrera erori ziren, odol-putzu handi baten erdian.

Baionako ospitalera eraman zituzten. J.A.A.ren egoera larriagoa zen; izan ere, metrailak kalte baskular handia eragin zion, ezkerreko 2. eta 5. saihetsak hautsita zeuzkan, eta ezkerreko birika eta sorbalda ere ukituta zeuzkan.

1992an, Britainian atxilotu zuten, eta Frantziako Estatuan preso egon zen lau urtez, 1996ko abuztuan Espainiako Estatura estraditatu arte. Bertan, 22 urte eman zituen espetxean. Espetxean egon zen bitartean, J.A.A.k ez zuen bere besoaren errehabilitaziorako mediku-arretarik jaso, eta, beraz, bere intuizio pertsonalari jarraituz ariketak eginez moldatu behar izan zuen. Behin, laguntza psikologikoa eskatu zuen, larritasun- eta antsietate-une ugariak gainditzeko, baina lotarako pilulak beste baliabiderik ez zioten eskaini. Dioenez, pertsona bizia eta alai izatetik beldurtia izatera igaro zen.

Baionako 1985. urteko atentatua GALEk erreibindikatu zuen. Eusko Jaurlaritzak 2008ko ekainean egindako txosten batean, Euskal Herrian talde parapolizialen 74 ekintza terrorista zenbatu ziren, zeinetan guztira 66 hildako (kasu batzuk kanpoan gelditu ziren, Yolanda Gonzálezena, esaterako), bahitu bat eta 63 zauritu izan baitziren.

Dokumentu horren arabera, Triple A taldeak 8 hilketa erreibindikatu zituen; GALEk 24 (beste iturri batzuek 27 zenbatzen dituzte); Batallón Vasco Español taldeak (BVE) 18, Grupo Armados Españoles taldeak (GAE) 6 eta gainerakoak beste talde batzuek. Horietatik guztietatik, 33 kasutan bakarrik izapidetu ziren eginbideak Auzitegi Nazionalan, eta 17 kasutan bakarrik iritsi zen epai irmo bat ematera.

Batzordeak, aurkeztutako eskabidea baloratu ondoren, proposatu zuen, 12/2016 Legearen babesean, J.A.A. osotasun fisiko, psikiko eta moralerako eskubidea nabarmen urratzen duten ekintzen biktimei gisa aitortzea eta, horrela badagokio, dagozkion erreparazio-neurriak ezartzea.

3.5.2. Poliziaren tiroen ondorioz

- L.C.C. 1979ko irailaren 13a

L.C.C. Pasaiako Arrantza Eskola Nautikoko 17 urteko ikaslea zen, eta egun batean istilu batzuen erdian murgilduta ikusi zuen bere burua, nahi gabe. Orduan, gerrialdean bala batek jo eta zauri larriak eragin zizkion abdomenean. Lehen ebakuntza kirurgikoaren ondoren, *candida albicans* onddoak eragindako infekzio batek haren egoera larriagotu zuen, eta ospitaleko egonaldia luzatu zitzaion horren ondorioz. Hurrengo urtean, beste bost ebakuntza kirurgiko egin zizkioten, eta, gainera, infekzioak kalte handia eragin zion haren ikusmen-zolitasunari. L.C.C. zortzi urtez egon zen ikasi gabe eta lan egiteko aukerarik gabe, jasandako lesioengatik.

Lekua aztertzeko eginbide judiziala egin zen lekukoekin, eta deklarazioa hartu zitzaion L.C.C.ri eta egun hartan benetako balak erabili zituzten sei guardia zibilei. Azkenik, 1982ko martxoaren 22an, Epaitegiak jarduketak behin-behinean largestea eta artxibatzea erabaki zuen, tiroaren “egile ezagunik ez zegoelako”.

Hemen deskribatutakoa bezalako kasuetan, polizia-operatiboak planifikatzean, nahitaez bete behar da manifestarien eta inguruan egon daitezkeen hirugarren pertsonen osotasun fisiko babesteko betebeharra, eta arreta berezia jarri behar da indarraren erabilerak pertsona horiengan izan dezakeen eragina aztertzeko.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak berak, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 3. artikuluari dagokionez, onartu du premia- eta proportzionaltasun-printzipioek justifikatu ezin duten indarra erabiltzea tortura eta tratu txar anker eta umiliagarrien debekuaren aurkakoa izan daitekeela (Iribarren Pinillos Espainiaren aurka, GEEAren 2009ko urtarrilaren 8ko epaia).

Biktimek dio badakiela zer muga dituen ikusmen eskasa duelako. Aipatzen du lotsa sentitu duela eta une jakin batzuetan jendea ibiltzen den eremuetan paseatzea saihestu duela, distantzia jakin batera aurpegiak ezagutzeko gai ez delako. Erabili zituen terapia alternatiboei eta psikologo baten laguntzari esker, lotsa hori gainditu ahal izan zuen, baita hasieran izandako Poliziarekiko gorrotoa ere. Biktimea ikusezina sentitu dela baieztatzen du. Ez du gogoratzen inongo erakunderik jo zuenik berarengana edo bere familiarengana gertatutakoagatik barkamena eskatzeko.

3.5.3. Gomazko pilotek jota

Atal honetan, Polizia Nazionalak edo Guardia Zibilak jaurtitako gomazko pilotakada banaren biktimea izandakoen hiru kasu daude, non haietako bik begietako batean ikusmena galdu baitzuten. Hirugarren kasuan, 16 urteko adingabe batena, pilotakada

bat jaso zuen lepoan amonaren etxean afaltzen ari zela, gomazko pilota seigarren solairuko etxebizitzako leiho batetik sartu zenean.

- J.M.E.R., E.koa. 1979ko azaroaren 27a

1979an, J.M.E.k, Zurgintzako hirugarren mailako ikasleak, Gomazko pilotakada bat jaso zuen ezkerreko begian. Polizia Nazionalak tiro egin zion Errenterian, Langileen Estatutuaren eta Gobernuaren Plan Ekonomikoaren aurkako protesta-egun batean. Jasotako inpaktuaren ondorioz, J.M.E.k ezkerreko begia galdu zuen eta ikasketak utzi behar izan zituen. Lesio horrek haren gizarte-harremanak ere baldintzatu zituen, denbora batez kalera irteteari utzi baitzion. Harrezkero, begi-protesiak gutxi gorabehera lau urtean behin aldatu behar izan ditu, eta beste arazo batzuk izan ditu ezkerreko begia galtzearen ondorioz. Begia galtzearekin batera, J.M.E.k baieztatu du 14 erradioterapia-saio jaso dituela urte hauetan, orbita-linfomagatik, eta horrek bizitza baldintzatzen jarraitzen duela.

Jon Mirena Landak sinatutako eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak 2008an argitaratutako *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen biktimak* izenburuko txostenean (382. or.), honako hau esaten zen: “Poliziak, halaber, herritarrak seguru eta aske sentitzeko ingurune bat sortzen lagundu behar du. Zenbait urtetan, 80ko hamarkadaren amaierara arte bereziki, poliziek hainbat jardun indiskriminatu egin zituzten jaieguneetan eta ekitaldi jendetsuetan, eta horren ondorioz izua sorrarazi zuten, eta hainbat pertsona zauritu”.

Beste hau ere badio Eusko Jaurlaritzaren txostenak: “Gomazko piloten erabilera kezkarria da giza eskubideen erakundeentzat. Gomazko pilotek paretetan errebotatzen dute, eta distantzia luzeak egiten dituzte, edozein manifestazio-deialdirekin zerikusirik ez duen jendea dabilen kaleetan. Gertuko jomugei tiro egiten zaie, urrutira iristen den materiala erabiliz, eta, horrenbestez, ezinezkoa da pertsona guztien eskubideak bermatzea. Amnesty Internationalek bere kezka adierazi zuen jada *Mercados de dolor* (2003) txostenean, gomazko balak lehen baliabide gisa erabiltzen zirelako, eta ez kalte handiagoak saihesteko beste saiakera batzuen ondoko azken baliabide gisa”.

- J.C.G.M. 1979ko urtarrilaren 19a

Donostian danborradari hasiera emateko banderaren altxatze-ekitaldian, burua estalita zeramaten pertsona batzuek Plaza Berriko (Konstituzio plaza) balkoi batera sartu eta Espainiako banderari su eman zioten. Polizia Alde Zaharrera sartu zen, eta orduan hasi ziren tiroak, objektu-jaurtiketak, korrikaldiak, oihuak... Giro horretan, goizaldeko ordu biak aldera, Donostiako taberna batean txanda amaituta, J.C.G.M. zerbitzaria, beste hiru lankiderekin, tabernako jabeak Parte Zaharrean zeukan etxebizitzara zihoan, lo egitera.

Taldeak istiluak saihesteko ahalegina egin zuen arren, une jakin batean J.C.G.M.k istiluen aurkako polizia bat ikusi zuen, 5 metrora, armaz apuntatzen ari zitzaioa. Gero, gomazko pilota batek aurpegian jo eta konorterik gabe utzi zuen. Hasieran bertan artatu zuten, eta ospitale batera eraman. Han egon zen hiru aste inguruan. Kolpeak bete-betean jo zuen J.C.G.M.ren ezkerreko begia, eta handik egun gutxira hustu behar izan zioten. Ospitaleko alta jaso eta etxera iritsi zenean, masalezurreko

lesio edo haustura bat agertu zitzaion; min handia eragiten zion murtzikatzean, eta hortz-pieza batzuk atera behar izan zizkioten hori konpontzeko.

Begia husteko hasierako ebakuntzaz eta begi-protesi bat ezartzeaz gain, J.C.G.M.ri beste lau edo bost ebakuntza kirurgiko egin zizkioten, inpaktu hark aurpegian eragindako ondorio estetikoak konpontzeko. Hain zuzen ere, masailalbo-hezurra zuzendu zioten, baina infekzio-arazoak izan zituenez, beste ebakuntza batzuk ere egin behar izan zizkioten. Gertaera traumatiko haren ondorioek izugarri baldintzatu zuten haren bizitza, kalte psikologikoa ere eragin baitzioten. Ondorioz, etxean sartuta geratu zen, konplexuz beterik. Sufrimendu horrek familia- eta gizarte-inguruneari ere eragin zion, animatzen saiatu ziren arren. Hainbat izapide egin ondoren, % 33ko desgaitasuna aitortu zioten.

Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak berak nabarmendu du indarra legez kanpo erabiltzearen salaketa edo susmo arrazoizko oro modu eraginkor, inpartzial eta egokian ikertzeko betebeharra. “Dolozko nahiz zabarkeriazko ekintza edo ez-egitea giza eskubideen urraketa izan daiteke”. Hala, lesioak edo kalteak gertatzen direnean, informazio nahikoa eman behar da indarraren erabilera beharrezkoa, proportzionatua eta eraginkorra izan zen zehazteko eta izandako ondorioak ezagutzeko.

Azaldutako gertakarietatik ondorioztatzen da poliziaren jarduketa horrek ez zuela justifikaziori aipatutako irizpideen arabera.

- H.L.O. 1979ko urtarrilaren 15a

Ohi bezala, H.L.O., 16 urteko gaztea, amamaren etxera joan zen afaltzera, Arrasaten. Sukaldean afaltzen ari zirela, tiroen hotsak eta kalean zeuden istiluek eragindako iskanbila entzun ahal izan zituzten. Afaldu ondoren, gorantz irekitzen ziren etxeko leiho zaharretako batean zintzilik zuen zapi bat hartzera joan zen amama. Leihoa ireki eta, aurrealdean zeuden guardia zibil batzuk ikusita, “Hor dabilta! “. Gaztea, jakin-minak erakarrita, leihora joan zen, eta bertatik hiru guardia zibil ikusi zituen. Horietako batek, bibotedunak, fusila leihorantz zuzenean apuntatu eta tiro egin zuen.

Une hartan, iloba babesteko asmoz, amamak H.L.O. bultzatu zuen sorbaldan, eta ezkerreko aldera eraman zuen, jaurtigaiaren ibilbidetik pixka bat desbideratzeko, eta horrela gutxitu zuen gomazko pilotak leihoko kristala zeharkatuz bilobaren lepoan emandako kolpearen indarra. Aurpegian eta lepoan ebaki arin ugari izateaz gain, pilotak errebotatu eta adingabearen belauna ere jo zuen. H.L.O. ziur da amamak sorbaldan bultzatuz saihestu zuela jaurtigaia lepoan bete-betean jotzea.

Etxebizitza seigarren solairuan zegoen arren, egun haietan berak etxeko pertsianak jaitsita edukitzeko beharra sentitu zuen. Bolada batez erasotzailearen aurpegia etortzen zitzaion gogora, eta ez zuen jasaten Guardia Zibila ikustea. Gaur egun ere gaitzondo hori sentitzen du, neurri batean. Dioenez, ez da gorrotoa, ezintasuna baizik. Bidegabea iruditzen zaio, etxean zegoela, istiluetan parte hartu gabe, guardia zibil batek leiho batera apuntatu ahal izatea eta, atzean nor zegoen jakin gabe, tiro egitea. Kasu guztietan, polizia-operatiboak planifikatzean nahitaez bete behar da manifestarien eta inguruan egon daitezkeen hirugarren pertsonen osotasun fisiko babesteko betebeharra, eta arreta berezia jarri behar da indarraren erabilerak pertsona horiengan izan dezakeen eragina aztertzeko.

Kasu honetan, istiluen aurkako material arriskutsu hura erabiltzeko beharrezkoa den zuhurtziaren falta baino harago doa gertatutakoa. Gomazko jaurtigai bat nahita bota zuten jendea bizi zen etxebizitza baten aurka, eta adingabe bat jo zuten. Beraz, gainditu egiten da Legea Betearazteko Ardura duten funtzionarioek Indarra eta Su-armak Erabiltzeari buruzko Oinarrizko Printzipioen esparrua, zeinak Delituaren Prebentzioari eta Delitugilearen Tratamenduari buruzko Nazio Batuen Zortzigarren Kongresuan onartu baitziren. Eta gainditu egiten da, hain zuzen ere, jarduera hartan alde batera utzi zelako, errotik eta proportzio orotatik kanpo, beharrezkoa ez den indarraren erabilera aplikatzeko premiaren existentzia neurtzeko beharra.

3.5.4. Ke-potoak jota

- P.M.E. 1983ko uztailaren 23a

Errenteriako Madalena jaietan, udal-balkoian ikurrina jartzearen inguruko polemikak istilu larriak eragin zituen herrian. Egun hartan, P.M.E.k Pasaian afaldu zuen emaztearekin eta zenbait lagunekin, eta gero Errenteriara joatea erabaki zuten, jaietan baitzegoen. Barrikada asko zeudela eta istiluak gertatzen ari zirela ikusita, elizara hurbiltzea erabaki zuten. P.M.E.k dioenez, gertatzen ari zena ikusteko elizako kontrahormatik burua atera zuenean, ke-poto baten inpaktua jaso zuten aurpegiaren ezker aldean, lau metro inguruko distantziatik polizia nazional batek jaurtitakoa.

Aurpegi-masailetakoa inpaktu handi horren ondorioz, ezkerreko begi-globoa atera zen, txikitari izandako istripu baten ondoren ondo zeukan begi bakarra. Donostiako Arantzazuko Ama osasunegoitzara eramane zuten, eta Munoa doktoreak ebakuntza kirurgikoa egin eta tratatu zuten. Hurrengo egunean, P.M.E.ri jakinarazi zion ikusmena erabat galdu zuela eta ezin zuela berreskuratu. Harrezkero, bere egoerak hirugarren pertsonen mende egotera behartzen du, mugitu ahal izateko eta bere jardura politikoa eta kulturalera jarraitzeko. Harreman afektibo berriak hastea zaildu ere egin dio; izan ere, berak ez du zalantzarik harreman horiek izango lituzkeela itsua izango ez balitz.

Ke-poto bat jendea dagoen lekuetarantz jaurtitzea, distantzia laburrera eta bereizi gabe, indarra zuhurtasunez eta proportzionaltasunez erabiltzeko betebeharraren aurkakoa eta eraso larria da. Eragindako lesioek, begi osasuntsua galtzearen ondoriozko erabateko itsutasunak, ondorengo tratamenduak eta protesi bat erabili behar nabarmen baldintzatu zuten P.M.E.ren bizitza, eta depresio sakona eragin zioten.

Protesta-testuinguruetan agenteen jardura kontrolatzeko eta kontuak emateko mekanismoak ezartzeko beharrik adierazpen publiko baten esparruan gertatutako urraketa oro ikertzeko eta zehatzeko betebeharra dakar. Gainera, besteak beste osotasun fisikorako eskubidea urratu denean, bereziki larria da ikerketa sakonik ez egitea behar den arduraz eta arrazoizko epe baten barruan, horrek eragina baitu adierazpen-askatasunean eta biltzeko eskubidean.

Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak berak nabarmendu du indarra legez kanpo erabiltzearen salaketa edo susmo arrazoizko oro modu eraginkor, inpartzial eta egokian ikertzeko betebeharra. “Dolozko nahiz zabarkeriazko ekintza edo ez-egitea giza eskubideen urraketa izan daiteke”. Hala, lesioak edo kalteak gertatzen direnean, informazio nahikoa eman behar da indarraren erabilera beharrezkoa, proportzionatua eta eraginkorra izan zen zehazteko eta izandako ondorioak ezagutzeko. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako orduko Herrizaingo sailburuak, Luis María

Retolazak, *El País* egunkariari 1983ko uztailaren 31n egindako adierazpenetan, poliziaren jarduketa okerra izan zela adierazi zuen. “Errenteriakoaren moduko akats politiko larriak eragiten dituzten jarduketek polizia ere gehiago isolatzeko baino ez dute balio, hori posible bada”.

3.5.5. Eraso larrien ondorioz

Atal honetan, alde batetik, Polizia Nazionalaren eta Ertzaintzaren bi jarduketa biltzen dira, biak Errenterian, eta, bestetik, Espainiako poliziek beren jardueraren eremutik kanpo, indarkeriaz eta epailearen baimenik gabe egindako bahiketa-saiakera bat. Batzorde honen ustez, pertsonen osotasun fisikorako eskubidea urratzen duten indarkeria-jarduerak dira kasu guztietan, ez baitituzte betetzen legezkotasunaren, beharraren, proportzionaltasunaren, zuhurtasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarriko printzipioak

3.5.5.1. Polizia Nazionalarenak eta Ertzaintzarenak

Lesioak eta tratu txarrak

- J.O.I. 1979ko martxoaren 30a

Egun hartan istiluak izan ziren poliziarekin Errenterian, Pasaiatik datorren errepidearen inguruan. Arazoak saihesteko, J.O.I. eta haren lagunak zerbait hartzen ari ziren Turing tabernan, Zumardian, istiluetatik urrun. J. sarrerari bizkarra emanda zegoen, eta, ustekabean, hainbat polizia sartu ziren establezimenduan; “grisak” ziren. Ustekabean harrapatuta, tabernakoak isilik geratu ziren, agenteetako batek isiltasuna hautsi zuen arte: “Señoritas ¡Fuera!”. “¡A la calle!”.

Ondoren, polizia horrek berak esan zien gainerakoei paretaren kontra zutik jartzeko, eta, miatu ondoren, “carguen” agindu zuen, eta agenteak guztiei kolpeak ematen hasi ziren. J.k borra kolpe bat jaso zuen buruan, eta oso egoera txarrean geratu zen, konortea galdu ez bazuen ere. Egoera tamalgarrian zegoela, bi pertsonak lagundu zioten anbulantziara.

J.O.I.ri ebakuntza egin zioten, apirilaren 2an, garezurreko hematoma batengatik. Geroago, 1979ko azaroaren 16an, berriz egin zioten ebakuntza, garezurreko plastia egiteko. Harrezkero, J.k hainbat krisi izan ditu, konbultsio orokortuekin, eta, 1980ko abenduan, ospitaleratu egin behar izan zuten horien ondorioz. Hemianopsia-gertakariak ere izan ditu, 1981ean eta 1982an. Azken ospitaleratze larria 2018an izan zuen, krisi epileptiko baten ondorioz, eta gaur egun tratamenduan dago oraindik.

Eraso haren ondorioz, J-ren bizitza erabat aldatu zen. Ebakuntzaren ondoren, ikasketak utzi behar izan zituen, medikuek esan baitzioten ez egiteko ez ahalegin fisikori ez intelektualik. Azkenean, familiaren negozioan lanean amaitu zuen, eta ez zien berriz ekin bere ikasketei. Beste ondorio batzuek baldintzatu egin diote eguneroko bizitza, hala nola sudur-trenkada desbideratzeak, baina batez ere buruko minek edo une batez ikusmena galtzeak.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinaren arabera, indarraren erabilera zilegi izateko, beharrezkoa eta proportzionatua dela jo behar da. Polizia-jarduketaren helburua lortzeko beharrezkoa eta indarraren intentsitatean neurrikoa. Kasu honetan, agentearen argibideei jarraituz paretari begira zutik jarri ondoren J. jaunari

emandako borra-kolpea guztiz justifikaezin da, ez baitago indarraren erabilera justifikatzen duen xederik (premiarik eza). Horrek justifikaziorik gabe uzten du poliziaren jarduna, eta osotasun fisikorako eskubidea urratzen duen eraso bihurtzen du, ez besterik.

- P.M.U.G. 1998ko uztailaren 25a

Beste askotan bezala, Erreterian festa zena indarkeria eta beldur bihurtu zen. P.M.U.G.k, 28 urteko gazteak, gogoratzen du lagunekin zegoen tabernatik irten zela, kanpoan zer gertatzen zen ikusteko. Ertzaintzako agenteak zetoze la ikusi zuen, baina ez zuen ezer ezkutatu beharrik, eta tabernaren ondoan geratu zen. Hala ere, jipioa jaso zuen. Hau esan zioten: “¿Qué? ¿Te haces el valiente?”. Eta kolpeak hasi ziren. Harridura, beldurra eta mina zirela eta, ezin izan zuen hitzik esan. Zehaztu ezin duen denbora-tarte batean hainbat eta hainbat kolpe jaso ondoren, beste agente bat, nabarmenki aztoratuta eta besteak apartatuz, atzealdetik etorri eta bortizki jo zuen P.M.U.G. buruan, pilotak jaurtitzeko eskopetaren kulatarekin, halako indarkeriarekin ezen, ezinbestean, lurrera erori baitzen. Han beste kolperen bat jaso zuen, harik eta ertzainak alde egin zuten arte, lurrean utzita.

“Creo que ni siquiera me protegí”, adierazi zuen P.M.U.G.k Batzorde honetan. Eta gainera: “Pasé mucho tiempo diciendo que, a mi parecer, iban drogados. Drogados o... bajo los efectos de algún excitante porque la siguiente imagen que tengo es la del que venía de atrás, haciéndose hueco para llegar donde mí. No sé, una persona abriéndose paso y... ¡ese odio... no sé explicarlo... esas ganas...! A mí, que toda la vida he sido una persona pacífica, que siempre he estado lejos de los follones...”.

Lagunek lagundu zioten P.M.U.G.ri, eta nola zegoen ikusita, Gurutze Gorriko anbulantziara eramán zuten. Baina osasun-langileak gainezka zeuden inguruan zauritutako pertsona-kopuruagatik, eta, horregatik, Erreteriarako anbulatiora joatea gomendatu zioten, handik 200 metrora. Han artatu zuten, aurpegia odolez estalita iritsi baitzen. Medikuaren parteak adierazi zuenez, sei zentimetroko zauri bat zuen irekita buruko larruazalean, eta zortzi jostura-puntu inguru behar izan zituen. 48 orduz zaintzapean egotea gomendatu zioten, eta larrialdietara joatea denbora-tarte horretan botaka egiten bazuen edo ezohiko modu batean loguratzen bazen.

Astelehenean nolabaiteko normaltasunez joan zen lanera, kolpeek eragindako mina eta ubeldura nabarmenak gorabehera. Une hartan, min eman zion pertsona askok bere lesioak “kale borrokan” parte hartzearekin lotu izanak, eta horrek ere kalte egin zion, kalte fisikoaz aparte. “Tú cuentas lo que te ha sucedido. Todavía hoy... cuento que viví aquella injusticia, pero siempre aparece esa cultura de... si te han pegado, algo habrías hecho”.

P.M.U.G.ren oso hurbileko senide batekin bizi zen ertzain batek, haren eta haren familiaren izaera ez-biolentoa ezagutzen zuenak, gaiari buruz hitz egin zuen bere nagusiekin, eta haiek P.ri deitu eta barkamena eskatzeko asmoa adierazi zuten, baina hori ez zen inoiz gertatu.

Erasoa jasan zuen gaztea Erreteriarako ertzain-etxera joan zen gertakariak salatzerá, anaiarekin eta koinatuarekin. Guardian zegoen agenteak hasiera batean uko egin zion salaketa jasotzeari, baina, P.M.U.G.k irmotasunez aldarrikatu ondoren salaketa jartzeko eskubidea zuela eta, ukatuz gero, ezezkoa idatziz justifikatu behar zutela, onartu eta izapidetu egin zuten. Horrela, eginbide judizialak hasi ziren Donostiako Instrukzioko 3 zenbakiko Epaitegian (946/1998). Gertakarien ikerketa hasita, 1999ko

otsailean, Epaitegi horrek P.M.U.G.ri deitu zion, taldeko identifikazio-saio bat egiteko. Une hartan Parisen bizi zen, eta eraso egin zioten agenteak gertakariaren unean aurpegia estalita zeukatenez, I.G.A. abokatuarekin adostu zuen ez zuela zentzurik deialdi horretara joateak. Ondorioz, Pedro dei horretara agertu ez zenez, *de facto* amaitu zuten ikerketarekin.

P.M.U.G.k uste du poliziaren jipoi horren biktima izan dela, halaberrez okerreko tokian eta unean egoteagatik, berak parte hartzen ez zuen istilu batzuen erdian. Kasu honetan, argi eta garbi ikusten da erabilitako indarkeria gehiegizkoa eta neurrigabea izan zela. Giza Eskubideen Batzordeak berak berretsi duenez, “indarraren erabilera orok legezotasunaren, beharraren, proportzionaltasunaren, zuhurtasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko printzipioak bete behar ditu”.

3.5.5.2. Talde parapolizialenak

- J.M.L.G. 1983ko urriaren 5a

J.M.L.G. bahitzeko saiakeraren aurreko egunetan, ETAp VIII. Biltzarrak Alberto Martín Barrios farmaziako kapitaina bahitu zuen. 1983ko urriaren 15ean, Joxi Zabala eta Josean Lasa errefuxiatu gazteak modu susmagarrian desagertu ziren Baionan (Lapurdi), eta kezka bizitzen zen bahiketa izan zitekeelako aukera.

Hilaren 18an, J.M.L.G., ETAp VIII. Batzarreko kide nagusietako bat, Hendaian motozikletan zihola, atzetik zetorkion ibilgailu zuri batek harrapatu zuen. Motorrean zihola jaso zuen lehen kolpea, eta, oreka galdua, zerraldor erori zen lurrera, motorrak espaloian jo baitzuen. Jarraian, hiru erasotzaile –laugarren bat zegoen, autoa gidatzen– kolpeka hasi eta buruan kaputxa bat jartzen saiatu ziren. Gerora jakin zen Polizia Nazionalaren elite-unitateko Operazioen Talde Berezikoko (G.E.O) kideak zirela, eta J.M.L.G. maletategira igotzen saiatu zirela, hura bahitzeko, baina J.M.L.G.k asko pisatzen zuenez, ezin izan zuten. Kolpeka jarraitzen zuten bitartean, hau entzun zen: “¡Alto! ¡Policía!”. Frantziako polizia bat zen. Eta kolperen bat gehiago eman bazioten ere, berehala gelditu ziren. Egoera horretan, J.M.L.G. lurretik altxatu zen, eta errepidea gurutzatu zuen, pareko espaloiraino.

Bahitzaileak polizia espainiar gisa identifikatu ziren. Errefortzuak iritsi zirenean, inplikatu guztiak Hendaiko polizia-etxera eraman zituzten, eta, geroago, J.M.L.G. Donibane Lohizuneko klinika batera eraman zuten. Hainbat kolpe jaso zituen buruan, eta eskuineko eskuko eskafoidea hautsita zeukan; ondorioz, indarra galdu zuen esku horretan. Hala, 1984ko maiatzean, ebakuntza egin zioten. Hezur-muineko min handia ere bazuen, eta lesioak izan zituen begi baten inguruan.

Bahitzaileek J.M.L.G.ren kasuan beren helburua bete ezin izan bazuten ere, kezka handia zen; izan ere, bahiketa-saiakera horretan poliziak esku hartu izanak indartu egiten zuen Joxean Lasa eta José Ignacio Zabala bi egun lehenago Baionan antzeko egoera batean desagertu zirelako susmoa. Era berean, bi hilabete geroago, Segundo Marey frantses herritarraren bahiketa gertatu zen, zeina Espainiako Barne Ministerioaren funts erresebatuekin ordaindu baitzen. GALEk errebindikatutako lehen ekintza izan zen.

“Kolpeak eta nahita eragindako zauriak eta bahiketa-ahalegina” leporatuta, Espainiako lau poliziak Paueko espetxean sartu zituzten. Urte bereko azaroan utzi zituzten aske, epaiketara aurkezteko konpromisoarekin, baina, azkenean, ez zen

baldintza hori bete. 1986an ahozko ikustaldia egin zen, baina J.M.L.G. ezin izan zen bertan egon, Kuban konfinatut zegoelako. Judizioa amaituta, Baionako auzitegiak auzi-ihesean kondenatu zituen Espainiako lau poliziak bahiketa-saiakera egiteagatik, eta 18 hilabeteko espetxe-zigorra ezarri zien. Gerora, 1990eko otsailan, Auzitegi Nazionaleko Zigor-arloko Salaren Lehenengo Atalak kasu honetan irekitako eginbideak artxibatzea erabaki zuen.

Ia 40 urte geroago, garai hartan Barne ministroa zen José Barrionuevok, El País egunkariari egindako elkarrizketa batean (2022ko azaroaren 6an argitaratua), onartu zuen “Hendaian Larretxea harrapatzeko” agindu zuela eta “harrapatu ere harrapatu zutela”, baina hain zen gizon handia, ez zen autoko maletategian sartzen, eta, kontra egin zuenez, jendarmeak iritsi eta plana zapuztu zen”.

3.6. Tortura eta tratu txar larriak pairatutakoak

74 pertsonak eman diote lekukotasuna Balorazio Batzorde honi torturak edo tratu txarrak jasateagatik (beste pertsona bat hil zen, poliziaren zaintzapean zegoela). Horrez gain, horietako 20 behin baino gehiagotan atxilotu eta torturatu zituzten, eta, guztira, 95 tortura-kasu jaso ditu Batzorde honek laugarren txosten honetan. Jarraian, biktima-izaera aitortzeko oinarri faktiko izan diren kontakizunen hainbat testigantza eta kontakizun-zati jasotzen dira.

3.6.1. Tortura, genero-ikuspegitik

3.6.1.1. Emakumeei dagokienez

12/2016 Legeak, bere aplikazio-eremuan, berariaz aipatzen ditu, halaber, giza eskubideen urraketaren ondorioz pertsonen bizitzan edo osotasun fisiko, psikiko, moral edo sexualean eragina izan duten kasuak. Gainera, egia da emakumeek, tortura edo bestelako tratu txarrak jasaten dituztenean, sexu-indarkeriako ekintzak pairatzeko arrisku espezifiko bat dutela, beren generoagatik, sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik. Atxiloketetako askotan era horretako tratua jasan zuten; haien gorputzei buruzko iruzkin laidogarriak eta irainak, edota hilekoa izan eta behar zituzten produktuak edo higiene-baldintza egokiak ez izatea, besteak beste. Kasu askotan, biluztera behartzen zituzten, eta ukituak, hitz erdiak eta egoera larriagoak jasan zituzten, hala nola askotariko objektuak sartuz egindako bortxaketak, zailtasunez kontaktuta Batzorde honek entzun eta jaso dituenak.

Torturaren aurkako borrokaren nazioarteko esparruan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko txosten espezifiko batean, Torturaren aurkako Nazio Batuen Errelatore Bereziak nabarmendu zuen garrantzitsua dela «torturaren aurkako babes-esparrua genero-kontuak ahaztu gabe aplikatzea, emakumeak torturaren aurka babesteko helburuarekin (...) Ekintza bat “tortura” gisa kalifikatze estigma gehigarri handia da estatuarentzat, eta torturak zigortzeko, autoreak epaitzeko eta biktimei erreparazioa emateko betebeharrak tinko barne hartzen duten ondorio juridikoak indartzen ditu».

Lekukotzak:

1. lekukotza. 1973ko ekainaren 23a eta hurrengo 9 egunak

Bilboko La Salveko Guardia Zibilarren kuartelean, hasiera-hasieratik eta etengabe, laido, mehatxu eta irain izugarriak jasan zituen biktimak, emakumea izateagatik. Itaunketak zuzentzen zituen kapitainari entzun

zizkion lehen hitzak hauek izan ziren: “¡Aquí, entras virgen y saldrás puta!”. Gela batera eraman eta mahai batean etzanarazi zuten, gorputzaren goiko aldean mahai horretatik kanpo zuela, inolako euskarririk gabe. Agenteetako bat hanken gainean eseri zen, erortzen ez uzteko. (...) Saio horren ondoren, laneko arropa erantzi zioten, hura baitzeraman jantzita atxilotetaren unetik. Biluzik, zeraman ile-txirikorda luzetik zintzilikatu zuten, eta bere ardatzaren inguruan birarazi zuten, kolpeka.

Haren egoera tamalgarriaz ohartuta, jaistea erabaki zuten, eta, atsedean labur baten ondoren, berriz zintzilikatu zuten. Orduan ahoz behera zintzilikatuta geratu zen, oinak eskuburdinekin eutsita, eta, bitartean, kolpatu eta anaiak atxilotzearekin mehatxatu zuten. (...) Atxilotuak dioenez, haren oihiak eta negarra isiltzen saiatu ziren, ahoan trapu bat sartuz. Amaitutakoan, trapua kendu zioten eta egarria zuela esan zuen, baldekada bat ur bota eta hau esan zioten: “¿Quieres agua? Pues, ¡ahí la tienes!”.

Beste une batean, guardia zibiletako batek esan zuen atxilotuak aurpegia zikin zuela eta garbitu egin behar ziotela. Komunera eraman zutenean, burua komunontzian sartu eta ponpari eman zioten hainbat aldiz; horrek bainuontziaren antzeko itotze-sentsazioa eragin zion. (...) “el que me había detenido me dijo: ‘Como te ha dicho ese, no te va a quedar ningún agujero para mirar’ y entonces, me lo hizo por la boca. Cuando terminó, el capitán al mando dijo: ‘echarle un jarro de agua para que le vaya todo para adentro y se acuerde de nosotros”.

Une horretatik aurrera, atxilotuaren lotsak eta nerbio-egoerak eragozten diote kontakizunarekin jarraitzea. (...) Emakume gisa jasandako tortura-metodoen artean, sexu-torturari lotutakoak daude, gorputz-zulo desberdinetatik hainbat objektu sartu baitzizkioten. (...) Gaineratzen duenez, guardia zibil batzuek aurpegian pixa egin zioten oihuka komunera joateko eskatu zuenean, eta hau esaten zioten: “yo también me meo”. Hori gertatu eta gero, atxilotuak soinean txiza egitea erabaki zuen, berriz umiliazio hori bizi behar ez izateko.

“Y luego estuve en la cárcel, y después me fui al otro lado. Empecé con un chico, pero no podía... La relación era extraña, bueno, un suplicio. Me quedé embarazada enseguida, tuve a la niña y luego le dije que conmigo no podría ser feliz y le dejé, pero nunca le conté lo que había pasado. Mi hija tampoco lo sabe, nadie lo sabe”. Bizi izandako gertaerak hain izan ziren traumatikoak, inoiz ez zen ausartu judizialki salatzea, senideei eta hurbilekoei xehetasun ikaragarrienak ezkutatu dizkie beti. Dioenez, geroztik ez da pertsona sentitzen, eta antsietatea dauka.

Laburbilduz, biktimak hainbat sexu-eraso jasan zituen, indarkeriarekin, sarketarekin eta inguruabar bereziki umiliagarriekin; hilekoa izan arren, ez zioten konpresarik eman; iruzkin sexistak eta mespretxuak jaso zituen emakume izateagatik. Orduz geroztik ez zen pertsona bera izan; 19 urte baino ez zituela jasandako esperientzia traumatiko hark haren bizitza markatu zuen. Kontatzen duenez, asko eragin dio beste pertsona batzuekin harreman estuak izateko gaitasunean, behin eta berriz etortzen zaio gogora han bizitakoa, eta amesgaiztoak izaten ditu oraindik ere sarritan.

2. lekukotza. 1992ko martxoaren 18a

Era guztietako umiliazioak emakume izateagatik, irainak, gizonek zein emakumeek egindako ukituak gorputz osoan... Tortura sexual hura *in*

crescendo joan zen. Bortxaketa-mehatxuak jaso zituen, eta, zoritxarrez, sexu-eraso larri batekin amaitu ziren, baginatik erratz baten makila sartuta, mahai batean etzanarazi eta prakak eta barruko arropa kendu ondoren. (...)

Atxilotua shock egoeran zegoen, baina sufrimendua ez zen han amaitu. Pistola bat sartu zioten ahoan, irainen eta mehatxuen artean: “¡Ahora, te vamos a disparar, porque eres una hija de puta!”. (...)

Atsedenaldi horietako batean, ziegaren atea ireki zuten, eta agenteen aurrean biluztu eta masturbatzen hasteko agindua jaso zuen atxilotuak. Hain zegoen egoera tamalgarrian, ezen protestatu gabe egin zuen, baita nola egin behar zuen galdetu ere. Horrek guardia zibilak harritu eta haserrearazi zituen, beste erreakzio bat espero baitzuten, eta alde egin zuten azkenean. Gero jakin nuen gauza bera eskatu ziotela beste atxilotu bati.

Atxilotu eta bost egunera, Auzitegi Nazionalera eraman zuten. Prakak apurtuta zeuzkan, eta belaunetik behera erortzen zitzaizkion. Abokatuaren galderei erantzunez, tortura-gertakariak kontatu zituen, C.B. epaileak beste aldera begiratu eta sinesgogor-aurpegia jartzen zuen bitartean. Berak ezin zuen hori ulertu: “*Pero ¿cómo puede pensar que estoy mintiendo con el dolor que tengo? Es que, ¡me tiene que creer!* Pero el juez no lo tuvo en cuenta”. Algecirasko emakumeen espetxea izandakora eraman zuten. Hamalau emakumerentzat diseinatutako kartzela bat zen, baina 60 inguru zeuden. Garai hartatik gogoratzen du ama oso gutxitan ikusi zuela eta bisean bisekoetan sartu ahal izateko senideek ere biluztu behar izatearen umiliazioa.

Espetxean zegoela, salaketa judizial bat jarri zuen torturagatik, eta artxibatu egin zuten. Hiru urte eta erdiz behin-behineko espetxealdian egon eta gero, epaiketaren ondoren aske geratu zen.

Beste kasu batzuk:

- Pixka bat lasaitzen hasten zenean, agente baten bisita jasotzen zuen automatikoki, eta hark, ziegan sartu eta atea itxi ondoren, sexualki umiliatu eta mehatxatzen zuen. “Cuando él entraba, yo me quedaba en una esquina. Era insultante. Me dijo que era la ‘puta’ de no sé cuántas personas; me dedicó un sinfín de insultos sexistas... Trataba de tocarme el pelo, trataba de acercarse... ¡Era asqueroso! Al principio intentaba alejarme; hasta gritaba. Incluso, una vez, tuve que empujarlo. Me atemorizaban esas visitas continuas. Entraba regularmente a la celda donde estaba aislada. Eran momentos breves. Cortos y muy tensos. Entraba muchas veces. Entraba cuando me quedaba medio dormida; previamente hacía ruido en la puerta metálica”.
- “Me hicieron desabrocharme la camisa y el pantalón mientras se reían de mí... En Madrid (Tres Cantos) sobre todo fui sometida a vejaciones de tipo sexual (...). Recuerdo especialmente la noche del jueves porque fue horrible, aquello parecía el infierno, no era normal. Llegué a pensar que era yo la que me estaba volviendo loca. Toda la noche entre gritos, golpes y amenazas.” (I.M.G. GPA 1993).
- ORTko emakume gazteen talde batek ere pairatu zuen biluztera behartu izana, Guardia Zibilak kopiagailua eta erakundeko beste kideak non zeuden esatea nahi zuelako. Guztiei egin zieten “bainuontziarena”. Bost emakumeek gerritik gora biluztera behartu zituzten, eta, gero, tapaki batean bildu eta gorputzaren inguruan lotu zieten. Bost emakumeei hertsapenak, umiliazioak

eta mehatxuak egin zizkieten, haien duintasuna sistematikoki urratuz, beste zenbait sufrimendu moduren artean. Zeuden lekutik, beraien amak urrutitik ikusi eta entzun ahal izan zituzten, kuarteleko hesitik guardia zibilei agiraka eginez, alabak nola ote zeuden kezkatuta, haien jantzietako batzuk kanpoan, lehortzeko zabalduta, zeudela ikusi ondoren.

- Irainak etengabeak ziren: “Te decían: ‘sois las putas de los etarras’... Se metían con tu físico y eso... te vejaban”.
- Emakume izateagatik, mehatxuak eta sexu-jazarpena jasan zituela adierazten du. “Seguro que no has visto una polla como la mía. Ya verás cuando nos quedemos solos lo bien que lo vamos a pasar. Seguro que no has probado nunca algo tan rico como esto. Seguro que tus compañeros de ETA tampoco la tienen tan grande y seguro que no saben follar como follamos nosotros”. Hasieran gerritik gora biluzik, gero erabat biluzik egotera behartu zuten, ukituak eta bortxaketa-mehatxuak egiten zizkieten bitartean: “Bueno, vete preparándote porque esto está terminando: unas cuantas sesiones más de bolsa, unas cuantas fl xiones más, y ya empezamos con lo nuestro, que es lo interesante”.
- “En la comandancia del Antiguo me desnudaron, dejándome únicamente con las bragas. (...) Una vez en Madrid (Tres Cantos), ya no me pegaron, pero las amenazas y las humillaciones de carácter sexual eran constantes... Lo que sí me hicieron dos veces en Madrid fue la bolsa” (B.A.I. GPA 1993).
- Antiguako kuartelean jasotako en antzeko sexu-larperia. (...) Madrilgo itaunketetako batean, agente bat atxilotuarengana hurbilduz joan zen, gero eta gehiago, eta, aldi berean, belarrira xuxurlatu eta ukituak egiten zizkion, horrela ikusarazi zion kitzikatuta zegoela eta nahi zuena egin zezakeela berarekin, inpunitate osoz. “Me estoy calentando y aquí no se va a enterar nadie. Soy libre de hacer esto y no me va a pasar nada por hacer (...)”.
- Komunera joateko eskatu zuenean, bi polizia ondoan zituela egin behar izan zuen, eta bera komunean zegoela atea irekita utzi zuten, berari begira eta barre eginez. Bortxatuko zuten beldur zenez, arropa jaitsi baino lehen ere joan zitzaion gogoan, eta ziegara itzultzeko eskatu zuen. “Ahí, sí que pensé que, en cualquier momento, me podían violar”.
- “¡Verás tú! Nosotros hemos sido muy buenos contigo, pero la Guardia Civil no es igual que nosotros y ya verás tú. Vas a estar en una celda y esos te van a hacer no sé qué... te van a violar... esto y lo otro”.
- Irainak eta biluztasun behartuko beste une batzuk gertatu ziren, bai Donostian bai Madrilan (...). Une haietan burua estalita zeukan, eta, beraz, uste du agenteek begiratu baino ez zutela egiten. Gainera, egoera hartan, higiebaldintza tamalgarrietan, hilekoa jaitsi zitzaion. Higie-produkturen bat eskatu zuenean, erabili eta botatzeko azpiko galtzak eta konpresa batzuk eman zizkieten, irainka beti: “A estas zorras siempre les baja la regla. ¡Ojalá os bajara la regla en otras ocasiones! ¡Estáis cagadas de miedo, por eso se os baja la regla!”.
- “El último día me ofrecieron la ropa que desde el primer momento había traído mi familia. La rechacé. Me negué porque me pareció humillante que disponiendo de ropa limpia desde el primer día no me hubiesen dejado

asearme antes, porque no sé bien en qué momento comencé a sangrar, aunque no me correspondía tener el período. A pesar de solicitar ir al baño, no se me permitió. Pasé días con las bragas y pantalones sucios. No me llevaban al baño cuando lo pedía. (...)”.

- “Me afectó mucho escuchar que había mucha gente. Escuchar a muchos amigos míos que estaban detenidos; sobre todo, había tres mujeres... dos amigas mías, y escuchaba cómo entraban allí y las obligaban a desnudarse; por lo menos los pechos... empezaban a burlarse de sus tetas y a llamarlas putas y... bueno, a pegarlas, como a todos. Siempre pegaban con cuidado de no dejar marca. Normalmente, lo hacían con la mano abierta en la cabeza, en lo que es el cuero cabelludo”.
- “En la primera detención, tortura física no tengo recuerdo de tanta... soportable... era más la vejación, desnudarte...”. Emakume izateagatik ere iraindu zuten: “ya sabemos que eres la puta del Herriko... porque ellos dan tiros y vosotras sois las putas... y ese tipo de cosas...”. Dioenez, indarrez biluztu zuten behin baino gehiagotan, eta, azkeneko aldian, berak erantzi zuen arropa, esana betez: “Tenía un peto vaquero... creo que era invierno... y una chaqueta. Me dijeron: quítate la ropa y no me moví y me empezaron a empujar, me tiraron al suelo y me quitaban la ropa... la última vez ya me la quité yo”. Biluzik zegoela, gorputzaz barre egin zioten, eta ukituak egin. Gogoratzan du erabat galduta zegoela, oso nekatuta gorputzez eta buruz. Estresak eta nerbioek hilekoa eragin zioten, eta, eskatu arren, ez zioten higiene-produkturik eman, “estuve los diez días, y salí de la DGS con el pantalón vaquero hasta el tobillo... no me dieron absolutamente nada”. Komunera joateko eskatzen zuenean, atea irekita eduki behar zuten, eta gizonezko agenteak arduratzen ziren zaintzeaz.
- Handik gutxira, atxilotua ez zutela miatu ohartu ziren, eta, orduan, agente kopuru zehaztugabe batek biluzarazi, ukituak egin eta haren gorputzaz barre egin zuten.
- Bortxaketa-mehatxu larriak jaso zituen: “me dijeron que me iban a violar... y gritando, así: ¡primero voy a ser yo, luego va a ser este, no sé qué, porque eres una zorra y tall, y yo creo que... Lo que pasa es que, claro, hay cosas que al final no sabes muy bien cómo encajarlas ¿no? Creo que J. estaba al lado, o sea, al lado, no sé si en esa celda o en una celda cercana, que le oí gritar: ¡Dejadla en paz, dejadla en paz, venid donde mí!, y bueno, hubo... Tuve varios intentos de violación. Nunca fui violada, pero sí amenazada y, en repetidas ocasiones, me obligaron a... a desnudarme”.
- Emakume gisa iruzkin iraingarriak egin zizkioten, eta izutu ere egin zen: “Tú, ¿qué? ¿Has sido la puta de los que han pasado por tu casa?”. Hilekoa zeukan, eta, une jakin batean, bata zuriz jantzitako bi gizonen aurrera eramane zuten; medikuak zirela pentsatu zuen. Hilekoa ote zeukan galdetu zioten, eta baietz erantzun zuenean, azpiko galtzak jaisteko agindu zioten; berak hala egin zuen, oso egoera umiliagarria zela jakin arren. “Me hicieron bajarme las bragas. Yo, no... Vamos, que lo hice. No me negué. Estaba acojonada”. Geroago M.T.O.G. auzitegi-mediku titularra igaro zenean, konturatu zen aurrekoak Guardia Zibileko agenteak zirela, mediku-itxurak egiten. (...) Hilekoa bazeukan ere, ez zioten eman garbi egoteko behar zuten produktu higienikorik. Denbora guztia eman zuen arropa berbera jantzita. Tratamendua iraingarria izan

zen: janaria modu txarretan eramaten zioten, edo ez zioten komunera joaten uzten behar zuenean.

- M.k guardia zibilen aurrean aldatu behar izan zuen arropaz.
- Eskuak bizkarrean eskuburdinez lotuta eta burua makurtuta, ibilgailuan bertan hasi ziren irainak, isekak, mehatxuak, ukituak eta tratu txarrak. “Metían sus manos por debajo de mi camiseta y me aplastaban los pezones, pero duro, duro. Se estaban descojonando y, yo, así. Ese es el primer flash. Estaba totalmente quebrada, ...que teníamos que ir a el monte. Estaba aterrorizada ...”. Bidaian, atxilotu bezain laster egin zuten bezala, agenteek I.A.G.ren titiburuak estutzeari ekin zioten, baina, orduan, nonbaitetik ateratako aliketa bat erabili zuten. “Sí, aplastándome los pezones. Dos veces, primero en uno y luego en el otro, ya que solo tenían una herramienta y andaban con eso”. Handik gutxira Madrilera eraman zuten. Kontatzen duenez, bidean zihoazela Burgoseko aldirietako prostituzio-etxe batean geldialdia egin eta komunera joaten utzi zioten.
- Emakumea zenez, P.A.G.ren aurkako mehatxuetako batzuek izaera sexual nabarmena izan zuten, hala nola biluztea, makila bat baginatik sartzea edo bai bera bai alaba bortxatzea. Hitz egiten ez bazuen Gurutze Iantzi bezala “txikitzearekin” ere mehatxatu zuten.
- Emakume gisa, G.M.M.k beraren eta alabaren aurkako lehenengo sexu-irainak eta mehatxuak jaso zituen: “A nosotros no nos gustas”. “Prepárate para que te violen”. ¡Ya verás lo bien que se lo pasan contigo en Madrid!”. “Nosotros violaremos a tu hija, la alta”. “Tu hija no se va a salvar. Nosotros la vamos a violar”. Semea atxilotzeko eta haren bizitzarekin amaitzeko aukera ere aipatu zioten, eta horrek kezka handia eragin zion: “Ya pillaremos a tu hijo y le pasará como a tu primo...” (Mikel Zabalza). Batzuek mantal zuria zeramaten jantzita, baina atxilotuak ez zuen sinetsi medikuak zirenik. Ahoz iraintzen zuten bitartean, hirutan biluzarazi zuten, barizeak aztertzeo aitzakiarekin. Lotsa eta umiliazioa sentiarazi zioten une hartan, zutik, haien aurrean, negar egin zuen lehen aldiz.

3.6.1.2. Gizonei dagokienez

Tratu apalesgarri eta ankerrik ez jasotzeko eskubidea eskubide absolutua da, eta beti dago indarrean, ezin baita inola ere hutsaldu. Atxilotutako asko beldur-giroan sartzen ziren itaunketan, modu sistematikoan, haien duintasunez gabetuz haien borondatea hausteko. Sexualitatea helburu horretarako beste tresna bat baino ez da:

- Flexioak egitera behartu zuten, burua plastikozko poltsa batez estalita zuela. Lepoari lotuta ez zegoen arren, egiten zuen ariketa nekagarriak asfixia sentsazio ikaragarria eragiten zion. Une batzuetan, ariketa horiek biluzik egitera behartu zuten, eskopeta baten kanoia ipurmasailetatik pasatzen zioten bitartean.
- Indautxuko polizia-etxera eraman zuten, eta iritsi bezain laster hasi ziren isekak eta tratu txarrak: “Me mandaron desnudar con la excusa de ver los huevos que yo tenía por ser etarra”. Gogoratzen duen unerik txarrena izan zen emaztea, A., atxilotuta zegoela esan eta torturatzearekin mehatxatu

zutenean: “Tenemos a tu mujer detenida y ya sabes cómo tratamos a las hijas de puta terroristas. Aquí, unas ostias... un palo por el coño... o se caen por las escaleras y ¡a cantar!”.

- Ondoren, biluztu eta masturbatzeko agindu zioten. “Total que al final estoy así, me ponen la cuerda y, de repente, [negarrez] uno por detrás tira la silla y hay un momento, no sé, igual son décimas de segundo o tal y otro que está detrás y me agarra, me agarra, me bajan y me dicen: ¡Desnúdate! Bueno, me bajan el pantalón y me dicen: ¡mastúrbate! [negar egiten du eta ezin du hitz egiten jarraitu]”.
- Kolpeen eta irainen artean, ondoko gelan bikotekidea galdekatzen eta torturatzen ari zirela sinestarazi zioten: “¡Tu mujer dice lo contrario que tú! ¡Zis, zas! [Kolpeak buruan]. ¡Tú te lo has buscado! ¿No oyes lo bien que nos lo estamos pasando con ella? ¡Un palo en el coño y unas buenas ostias a tu mujer y no la va a reconocer ni Dios! ¡Maricón de mierda! (...)” A. inoiz atxilotu ez bazuten ere, K.k, lur jota eta egoera negargarrian, haren oihuak entzun zituela pentsatu zuen: “Yo estaba convencido de que la oía, pero no. No estaba detenida”. Une horretatik aurrera, dardarka, urdailean min handia pairatzen hasi zen. Botaka egin zuen, eta zorabiatu egin zen, konortea galdu arte. Ondorioz, Basurtuko Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura eraman zuten. Poliziaibilgailuaren atzeko aldean botata joan zen denbora guztian, baldintza tamalgarrietan.
- Denbora luzez biluzik eta kukubilko egotera behartu zuten.
- Emaztea ondoko gelan atxilotuta zegoela sinestarazi zioten, eta aurrean jartzen zioten deklarazioa sinatzen ez bazuen borra bat uzkitik sartzearekin mehatxatu zuten; ondorioz, J.k sinatu egin behar izan zuen.
- Galdekatzen zuten bitartean, hertsapena jasan zuen, emaztea eta komando-kidearen bikotekidea ere atxilotu zituztela esan baitzioten. “Mira, en este momento estamos violando a tu mujer”. Emaztea ere Madrilera eraman zuten, eta kargurik gabe aske geratu zen ordu gutxiren ondoren; itxura denez, ez zuen tratatu txarrik jaso.
- Biluztu egin zuten, eta zinta beltz antzeko bat jarri zioten buruan, begiak estaltzeko eta ikusmena eragozteko. Gogoan du emazteari buruz hitz egin ziotela: nolako sexu-harremanak zituzten, haren itxura fisikoari buruz... “Pues que si está..., que si los pechos, que si está gorda, que está delgada o que...”.
- “No te vas a olvidar de este viaje”. Bidaian, honelako esaldi laidogarriak errepikatu behar izan zituen etengabe: “mi madre es una puta”; “mi padre es un cornudo” y “yo soy un subnormal”, eta aldi berean kolpatu egiten zuten, gelditu gabe.
- Erabat biluztu eta belauniko jarri behar izan zuen, umiliazio ugari jasaten zituen bitartean: “¿Cómo follas?”. Jarrera apalesgarrietan jartzera ere behartu zuten, esaterako, ukabila altxatuta belauniko egotera. Egoera horretan, “canciones vascas” abesteko eskatu zioten, ‘Desde Santurce a Bilbao’ eta ‘Eusko gudariak’, besteak beste, eta abesten zuen bitartean zaplaztekoak ematen zizkieten, tarteka.

- Gogoan du lehenengo egunean biluztu zutela.
- Biluzik egotera behartu zuten, besoak eta hankak zabaldua.
- Erabat biluztu zuten, eta izututa egon zen mehatxuengatik eta kolpeengatik. Biluzik zegoela hainbat aurrez aurreko izatera behartu zuten. Gogoan du bat izan zuela M.rekin, hura nola zegoen jakin gabe. (...) Itaunketetan ere biluzik egon zen, eta ariketa akigarriak eginarazi zizkieten, hala nola aulki batera igo eta jaistea, fl xioak edo kukubilko ibiltzea.
- Biluzik, kaputxa jarrita, agenteak ezagutu ez zitzaizkien. Barreak, umiliazioak...
- B. bikotekidea atxilotu eta bortxatzearekin mehatxatu zuten. Une batean, sinetsarazi egin zioten alboko gelatik entzuten ziren emakume-oihuak bikotekidearenak zirela, eta kezka handia eragin zion horrek: “Me decían que en el departamento de al lado estaba mi novia. “¡La vas a oír chillar!”. “Que la iban a violar, y que iban a traerme una prenda suya, que todo iba a ser dentro de un cuarto de hora, pero yo no aguanté más que unos minutos. Reventé y caí al suelo”. (...) Gerritik gora biluzik zegoen, eta bere itxura fisikoarekin lotutako isekak jaso zituen. Genitalak estutzen zizkieten.
- Kuartelera zihoazen autoan, galtzak eta barruko arropa jaitsi zizkieten, zinta amerikarrak ahalbidetzen zuen lekuraino, eta elektrodoak jarri zizkieten barrabiletan. (...) Ordu asko eman zituen zutik eta biluzik. Esan zidaten ezen, edo dena kontatu, edo nire emazteari (atxilotuta zegoen) hau eta hura egingo ziotela... eta, une jakin batean, atea ireki zuten ondo zegoela ikus nezan. Ohe batean zegoen, guardia zibil baten ondoan eserita.

3.6.2. Atxiloketa arbitrarioak eta babesgabetasuna

Batzorde honetan bildutako atxiloketa asko bortitzak izan ziren, indarra erabiltzeko premiarik ez zegoenean ere, eta proportzionaltasuna errespetatu gabe. Batzuetan, hasieratik, etxeko atea bota eta dena hankaz gora uzten zuten: logelak, liburuak... Kasu batzuetan, familiako gurasoak erabili zituzten ezkutu gisa, eta indarkeria erabili zuten atxilotu ez zituzten familiako beste kide batzuen aurka ere: batzuk kolpatuz, mehatxatuz, pistola buruan jarriz... Horren helburua beldurra zabaltzea zen. Agindu judizialik ere ez zuten erakusten.

Era berean, zenbait kasutan familiako kideak atxilotu zituzten, polizia-agenteek bilatzen zuten pertsona une hartan etxean ez zegoelako. Alde batetik, ihes egindakoak bere burua entregatzeko baliabide bat zen. Bestetik, xantaia egiteko eta informazioa ateratzeko erabiltzen zuten, senideei kalteak eragiteko mehatxupean.

Hona adibide batzuk:

- Etxeko atea apurtu eta eraitsi zuten.
- 1987an, berriz ere atxilotu zuen Guardia Zibilak, hasiera batean anaiaren bila zetozen arren. “Vinieron a por mi hermano y, en el mismo lote, me llevaron a mí también, pero en esta ocasión no me maltrataron”.
- Atxiloketaren hasieran tentsioa egon zen: emaztea pistola batez apuntatu zuten eta kolperen bat jaso zuen.

- Aitak atea ireki ondoren, pistola bat jarri zioten lepoan eta zuzenean sartu ziren J.R.S.ren logelara.
- Paper-orri bat eman zioten eta batzarretan parte hartzen zuten pertsona guztien izenak idazteko agindu zioten. Atxilotua hori saihesten saiatu zen, eta batzarretara “herri osoa” joaten zela esan zuen.
- 16 urteko bi gazteak ez ziren manifestazioan izan.
- Haien “delitua” EGik sinatutako pintada bat izan zen, Aberri Egunera deitzen zuena. Gregorio Peces-Barba abokatuak defendatuta, Ordena Publikorako Auzitegiak epaitu zuen, eta urriaren 20ko 108/1967 epaiak hiru hilabeteko atzipenaldi handiko zigorra eta 5.000 pezetako isuna ezarri zizkion, egile gisa, legez kanpoko propaganda egiteagatik.
- J.R.L. ibilgailutik jaitsi baino lehen, inspektoreak gogor heldu zion alkandoraren lepotik, eta berriz mehatxatu zuen: “Te recuerdo lo del Batallón Vasco Español. Como denuncies torturas, vamos a ir detrás”, eta polizia gazteenak hau gaineratu zuen: “Si denuncia torturas, no hace falta eso, ¡le mato yo mismo!”.
- Adierazten du ez dakiela nola iritsi daitekeen sentitzera erreparazioa jaso duela, ez bakarrik kalte ekonomikoari dagokionez, baizik eta, batez ere, atxilotetaren eta epaiaren arteko ia zazpi urte haietan nozitutako ziurgabetasun etengabeari dagokionez, haren bizitza baldintzatu baitzuen, bi egunean behin polizia-etxe bateko agerraldia sinatzera joan behar zuelako. Urte horietan ez zekien nolakoa izango zen bere bizitza, kondenatuz gero; ez zen ausartu amatasuna planteatzen ere, eta ezin zuen etxebizitza bat erosi, kontuak blokeatuta zeuzkalako. “Llega el juicio y soy absuelta. ¿Cómo se repara el daño causado durante todo ese tiempo?”.
- Atxiloketa horietan gertatutakoaren ondorioei buruz galdetuta, honako hau adierazten du: “Yo siempre he dicho que lo físico se cura... Lo físico se cura, pero lo que no se cura o cuesta más curar es el poso que deja todo esto”. Bigarren atxiloketan polizia-etxetik pasatzeak zer ekarri zion azaltzen du: “Durante ese tiempo, a diferencia de la detención anterior, no me pusieron la mano encima; no me hicieron la bolsa, no me obligaron a hacer flexiones hasta la extenuación, no me dieron empujones, golpes o patadas brutales, no me desnudaron, no me vejaron, no me obligaron a estar de pie horas y horas, no me pusieron antifaz en ningún momento... Pero llegué a prisión absolutamente rota. Totalmente anulada. No quería estar, hablar con nadie. Lo único que deseaba era estar sola en la celda, aislada de las compañeras. Me sentía triste, desanimada, derrotada, desarmada, con todos los mecanismos de defensa desactivados y sin recursos para hacer frente a aquella situación; me sentía atormentada, desconsolada. Lloré como nunca; tanto, que llegué a preocupar seriamente a todo mi entorno. Me costó meses salir de aquel túnel...”.
- Duela hamar urte, gutxi gorabehera, profesionalen laguntzarekin, K.U.k prozesu bati ekin zion, gertakari horien ondorioz bizi dituen sentimendu eta oroitzapenak lantzeko.
- Lan egiten zuen berotegien inguruan poliziaren presentzia etengabea izan zen garai hartan. Bai bera bai Bakioko gazteak jabetzen ziren Guardia Zibilaren

UAR (Landa Ekintzako Unitatea) herrian zebilela. Kontatzen duenez, behin, beste pertsona batzuekin batera *txabola* batera eraman zuten, eta han biluztu egin zituzten. Barruko arropa soilik jantzita, hormaren kontra eta eskuak gora zituztela, burlaka eta ukituak eginez aritu ziren bi ordu inguruan. Herriko gazte askok diote horren antzeko gertakariak nozitu zituztela, atxilotu eta espetxera eramateko mehatxupean beti.

- Etxean ez zegoenez, gurasoak, anai-arrebak eta haiekin bizi zen izeba zaharra gau osoan atxiki zituzten sukaldean.
- Terrorismoaren aurkako Legea aplikatuko zitzaiola jakinarazi ondoren –lege hori aplikatu zitzaien lehenengo pertsona izan zela dio–, Donostiako Antigua auzoko Guardia Zibilarren Komandantziako sotoetara eraman zuten. Bertan zazpi egun estugarri igaro zituen atxilotuta, eta pairamen larriak jasan zituen.
- Alaba eta semea, 7 eta 8 urtekoak hurrenez hurren, lotan zeuden, eta harritu eta beldurtu ziren, argi indartsuagatik eta aita atxikitzen ari ziren guardia zibil armatuengatik.
- Ertzaintzako agenteak K.S.ren amaginarrebaren etxera joan ziren miaketa bat egitera, eta epailearen agindua erakutsi gabe sartu ziren haren etxean. Horren aurrean, aitaginarrebak herriko zinegotzi bati deitu zion laguntza eta aholkularitza eske. Legazpiko Udaleko zinegotzia, J.M.O., bertaratu zenean, agenteei eskatu zien zegokion baimena erakusteko, eta hori ez egiteaz gain, zinegotziari eskuburdinak jarri eta hormaren kontra jarri zuten etxebizitzaren atarian, erregistroak iraun zuen bitartean. (...) Arkautetik Madrilera eraman aurretik, K.S.k, pijaman baitzegoen, arropaz aldatzeko baimena eskatu zuen, baina ukatu egin zioten.
- Irekitzean, ama armaz apuntatu eta lurrera bota zuten berehala; bitartean, ertzainak tropelean sartu ziren etxebizitzan, beltzez eta kaputxa jantzita, amak erregistro-aginduari buruz egiten zituen galderari jaramonik egin gabe. Indarkeria handiko uneak izan ziren. Aita eta alaba haien geletatik atera ondoren, E.O. amaren ondoan etzanarazi eta armaz apuntatu zuten, aita korridorean utzita.
- “Antes de sacarme de casa, los guardias civiles nos indicaron que podíamos firma el acta del registro, preguntándome si yo tenía algo que decir. Yo les respondí que quería hacer constar que, durante el primer momento, me habían pegado varios golpes y me quité la camisa para enseñárselos a los testigos; también quise enseñar los golpes que tenía en las piernas, sin que me lo permitieran los agentes. Tanto los testigos como yo y mi mujer, firmamos dicha acta de registro donde se hacían constar tales extremos”.
- Madrildik familiaren etxera joandako poliziak anaiaren bila zebiltzan; izan ere, Joxe Arregi egun batzuk lehenago, Madrilén, atxilotu zutenetik, leku ezezagunean zegoen. Anaia etxean aurkitu ez zuten, J.J. atxilotu zuten.
- Bera ez zegoenez, anaia atxilotu zuten.
- Oker batengatik auzokideen etxean sartu zirenean erabilitako indarkeriaren

ondoren, Guardia Zibila ez zen hain bortitza izan familiaren etxean sartu zenean, baina, hala ere, M.T.O.G.k antsietate-krisi bat izan zuen gertatutakoaren ondorioz. Senarra non zen galdetu zioten, etxebizitza eta garajea erregistratu zituzten, eta aurkitu ez zuten, emakumea atxilotu zuten.

- Anaia buruan armaz apuntatu ere egin zuten, eta bizilagun batek adierazi zion ezin izan zuela gau osoan lo egin, une hartan sortu zen eskandaluaren ondorioz. “Lo de mi hermano lo supe después, porque me lo contaron. Supongo que, si a mi hermano le pusieron una pistola en la cabeza pues, al aita y a la ama, pues... tampoco les darían un trato decente. Pero, no sé ni cómo bajamos las escaleras ni nada”.
- Etxea miatzeko eta atxilotuta eramateko inolako agindurik erakutsi gabe...

3.6.3. Erabilitako tortura motak

Tortura-metodoek eboluzionatu egin zuten urteetan zehar. Hirurogeiko hamarkadan, mota guztietako objektuekin egindako kolpeak eta ukabilkadak ziren nagusi; biktimak indarkeriaz erortzen ziren lurrera, edo armairuen kontra bultzatzen zituzten, kolpe bortitzak emanez buruan, urdailean eta barrabiletan, besoak eta saihetsak hautsiz, besteak beste. Lurrean zeudela, atxilotuak zapaldu eta ostikatu egiten zituzten. Ez zuen axola gero zauriak agerikoak izatea, ez epailearen aurrean, ez Estatuko beste erakundeen aurrean.

Esanguratsua da M.k egindako deskribapena; izan ere, gogoratzen du askotan ikusi zuela aita etxetik kolpatuta eta eskuburdinak jarrita ateratzen eta, ondoren, odoletan itzultzen.

Urteak igaro ahala elementu berriak gehitu ziren, baina 1978ko Konstituzioa onartuta zegoela, segurtasun-kidegoek atxilotuta egiteko eta indarra erabiltzeko modua giza eskubideekiko errespetuaren gutxieneko estandarrak ezagutzen ez zituzten jokabide-ereduen arabera zen oraindik. Oro har, herritarrak ez ziren herritar gisa tratatzen, Estatuaren etsai edo eskubiderik eta giza duintasunik gabeko subjektu gisa baizik. Nabarmentzekoa da agintariek ahalegin handia egiten zutela hanturak eta hematoma ezkutatzeko (pomadak, kremak eta era guztietako antiinflamatorioak) eta zigorgabetasuna bermatzeko, jarduketako zantzuaren motibazioaren inguruko ikerketa eragozteko. Horri tortura-metodo psikologiko berriak gehitu behar zaizkio.

Behean deskribatutako testigantzak eta metodoak irakurrita, egiaztatzen da estrategia sorta handi bat erabili dela hirugarren pertsonen autoerruztatzeak edo erruztatzeak lortzeko (ikerketa-tortura) eta atxilotuengan eta haien bizikidetzaz-zirkuluan beldurra sortzeko (zigor-tortura).

Batzorde honek ezagutu dituen tortura moten aniztasuna izugarria da. Ikus ditzagun batzuk:

- “Traen un perro pastor alemán y lo ponen muy próximo a mi cabeza”.
- **Gurpilaren** teknika: polizia batetik bestera pasatzen da, kolpeka.

- Buruan kolpeak erregela batekin.
- **Ahatearen jarreran**, etzanda eta makurtuta, eskuak izterren azpian lotuta, mahai baten inguruan bueltak ematen ditu, pasatzean ukabilkadak jotzen dizkioten bitartean.
- Gerritik gora biluzik eta manta batean bilduta, burua ur zikinez betetako bidoi batean sartzen zioten.
- Flexioak eginarazi zizkioten borra-kolpe ugari jasotzen zituen bitartean.
- “Ebakuntza-mahaiarena” egin zioten. Gorputz erdia mahai baten gainean etzanda, eta gainerakoa zintzilik, hiru poliziak hankei eusten zietela. Iletik tira egin zioten, bizkarra beheratuz, lurrerantz, barrabilak estutzen zizkioten bitartean, etzanda jarrerarantz altxaraziz, baina bizkarra euskarririk gabe zuela.
- Hainbat aldiz biluzarazi zuten, eta, horrela umiliazioak hasten ziren.
- Dutzara eraman eta ura jaurti zioten, presio-mahuka batekin.
- Irainak, isekak, umiliazioak, mehatxuak, oihuak...
- Besoak belauen azpitik jarrita, barra luze bat jarri zioten zeharka eta irauli egin zuten; horrela, burua ahoz behera eta oinak goialdean zintzilik zituela utzi zuten, barrari lotuta, “pikana” erabiliz. Jarrera horretan, polizietako batek borra antzeko batekin kolpatu zuen oinazpitan, immobilizatuta baitzuten, eta aldi berean galdekatu egiten zuen. 90 kolpe inguru izan zirela kalkulatu du, eta ezin zela zutik jarri.
- V.A. berriro zintzilikatu zuten, eta hark hiltzeko eskatu zuen, oihuka. Horrek urduri jartzen zituen poliziak, garrasiak kaletik entzungo ote ziren beldur baitziren. Isilarazteko asmoz, polizia baten zapata sartu zioten ahoan, behin baino gehiagotan. Oihuka jarraitzen zuenez, polizietako batek atxilotuaren ahora hurbildu zuen pistola, eta “errusiar erruleta” egitearekin mehatxatu zuen, eta pistolaren kinoa estutu ere egin zuen. Torturatutako pertsona askori exekuzio-simulakroak egin zizkieten, hainbat modalitatetan.
- “Gizon kankailu batek oihu egiten zidan belarrira, kolpeak ematen zizkidan buruan, telefonoaurkibidea erabiliz, eta bi belarrietan jotzen ninduen bi eskuekin”. E.A.M.ri ere kolpeak eman zizkioten buruan aurkibidearekin, eta belarrietatik hurbil eskuekin; ondorioz, odol jariora izan zuen belarrietako batean.
- Arrosarioaren hamabost misterioak eta letania guztiak errezatzera behartu zituzten. Beste pertsona bat belauniko egotera eta errezatzera behartu zuten. Jarrera horretan zegoela, hainbat ostiko jaso zituen, eta horietako batek pitzadura bat eragin zion eskuineko sorbaldan.
- Belauniko jartzen zuten, besoak zabal-zabalik liburu batzuei eutsiz, nekearen nekez erori arte.

- “Los guardias civiles que nos pegaban se iban turnando. No siempre eran los mismos, sino que salían... Yo no sé si venían luego bebidos o cómo venían, pero se veía que venían otra vez con fuerza y pegando fuerte con la culata y el cañón del fusil. Los que pegaban, no eran los guardias civiles de Mondragón, eran de fuera... les traían para que no les reconocieras”.
- Zigarroak itzali zizkioten esku-ahurretan: : “Duro, fue muy duro”.
- J.A.P. eskuburdinetatik eseki zuten barra batean, eta kolpeak eman zizkioten, oinazpian; gogortasunagatik, hareaz betetako zaku moduko batez kolpatu zutela uste du.
- Kolpeen ondoren, bi gazteak odoletan eta negarrez zeudela, biratzeko agindu zieten, eta lau guardia zibilei bizkarra emanda geratu ziren; orduan, fusilamendu baten simulazioa egin zuten.
- Itaunketetan, kasko militar bat jarri zioten buruan, zingila batzuen bidez lotuta, eta behin eta berriz jo zuten beisboleko bate batekin. Teknika hori lau egunez erabili dutela adierazi du, saio laburretan, jasanezina baitzen.
- Atzeko eserlekuan eserita eta esposatuta zegoela, polizietako bat aurpegian eta buruan jotzen hasi zitzaion, horretarako erantzi zuen ehizako botarekin .
- Buruan kolpeak jaso zituen atzetik, hormari begira zegoela, eta horrek, hasierako kolpeaz gain, buruak hormaren kontra jotzea eragiten zuen.
- Behin eta berriz sartu zioten burua urez betetako konketa handi batean, kolpeak emanez galdekatzen zuten bitartean. Egoera hartan, barrabiletatik heltzen zioten atzetik, bihurrituz eta tira eginez, halako basakeriaz ezen lurretik altxatu egiten baitzuten atxilotua, burua uretan gehiago murgilduz. Bainuontziarena egiten zioten bitartean, kolpe handiak jasotzen zituen bizkarraren atzealdean; giltzurrunetan, saihetsetan eta gerrialdean, objektu sendo batekin.
- Zabor-poltsa beltz bat jarri zioten buruan, lepoan doituta, eta asfixi eragin zioten.
- Gogoan ditu plastikoz forratutako kable antzeko batekin sorbaldetan, bizkarrean eta oinazpian ematen zizkioten kolpeak.
- Barrabiletan elektrodoak jarri zizkioten.
- Poliziek esan zioten nekatuta zeudela eta berak jo behar zuela burua armairuko ate batzuen kontra. “-Bueno, ya nos estamos cansando, mira, da tú con la cabeza aquí- y bueno, pues fui dando golpes... fui dando golpes entonces ya me dijeron, -espera, espera, que esto es madera. Ven, ven aquí, que esto es hormigón- y le metí un cabezazo, perdí un poco... es que la situación me superaba totalmente.”
- R-k begiak erabat estalita eduki zituen, kaputxa batez.

- Ez zioten ez lo egiten ez atseden hartzen uzten, helburuak lortu zituztela uste zuten arte.
- Flexioak egitera edo denbora luzez zutik egotera behartu zuten, agortu arte.
- Pozas kaletik zihoazela, F.E.k gogorarazi du gerrian ziztadak nabaritzen hasi zela; trikotatzeko orratzekin eginak ziruditen, eta hain min handia eragiten zioten ezen, senez, salto egin eta buruz ibilgailuaren sabaiaren kontra jotzen baitzuen. Gerora jakin zuen potentzia handiko elektrodoak zirela.
- Exekuzio-simulakro bat egin zioten, buruan zerbait hotz eta biribila sentitu baitzuen: “Te estoy apuntando y te voy a disparar ahora mismo. Aquí se ha acabado todo para ti”. Hitz horiek entzun ondoren, pistola baten kolpekariak “klik” egin zuela sentitu zuen behin baino gehiagotan; horregatik, balarik ez zuela pentsatu zuen.
- Sartzean, harritu egin zen, poliziek ateburu batetik soka bat zintzilik zutela ikusi baitzuen. Handik gutxira, sokaraino eraman zuten, eta lepoaren inguruan jarri ondoren, poliziak sokatik tira egiten hasi ziren, korapilo higikorra mugiaraziz. Horrek, jakina, asfixiatu egin zuen pixkanaka: (...) “ellos tiraban hasta que perdía el conocimiento y caía al suelo y, entonces, me levantaban a golpes y otra vez me la ponían. Tres veces. Hasta perder el conocimiento”.
- Akidura fisikor eraman zuten, mahai batean jarriz eta, zangoetatik helduta, abdominalak egitera behartu zuten, sabelaldean eta barrabiletan ukabilkadak jasotzen zituen bitartean. Beste ariketa akigarri batzuk ere egin behar izan zituen, hala nola kukubilkatzeak eta flexioak. Bizarra erauzi ere egin zioten, ileetatik tira eginez, eta horrek min handia ematen zion.
- Kale-jantzian zihoazen hamar poliziaren artean, komunetik irtetean, “korridorea” egin zioten, eta erditik ibiltzera behartu zuten, astinduta eta kolpatuta, lurrera erori arte.
- Poliziak aretotik irten ziren, mahai gainean pistola bat utzita. Itzuli zirenean, J.L.k pistola hartzea nahi zuten, baina ez zuen halakorik egin.
- Biluztu eta immobilizatu egin zuten, manta batean bilduta, kontatzen duenez. Dena oso prestatuta zegoen; izan ere, atearen markoak ardatz batzuk zituen, taula bati eusten ziotenak, ertzen erdialdean kokatutako krokadura batzuekin, taula erraztasunez kulunkatzeko. Atxilotua etzanarazi eta taulara gogor lotu ondoren, goiko aldea beherantz bultzatuta pibotarazten zuten, eta, horrela, atxilotuaren burua urez eta zerrautsez betetako bazin batean sartzen zen, zeina aurretik dutxako lurrean jarri baitzuten.
- Askotan egin zioten bainuontziarena, ia egunero, atxilotuta egon zen bitartean (...). Bigarren egunean, dioenez, korridorera atera zuten, lagun eta lankide zuenari bainuontziarena nola egiten zioten ikus zezan.
- Gabon-gauean, indarkeria areagotu egin zen, eta aurpegian zaplazteko oso gogorrak jasotzen hasi zen, baita belarrietan ere, eskuak zabalduta bietan batera emandakoak. Belarriko lobulua estutu zioten, atximur

fin baina oso mingarri baten antzekoak eginez. Masailezurreko apofisi mastoidean hatza sartzen zion agenteak berak tira egiten zion muskulu esternokleidomastoideotik, min handia emanez. Beste une batean, agenteek erabiltzen zituzten kaskoetako bat jarri zioten, eta, burlen artean, buruan borrez jo zuten.

- Bolalumak jarri zizkioten eskuineko eskuko hatzen artean, indarrez estutuz eta sufrimendu handia eraginez. Gainera, kolpeak jaso zituen barailan, kokotsaren azpian, gorantz bultzatuz.
- Taburete batean esertzera behartuta, barrabiletan gogor jotzen hasi ziren, objektu gogor batekin. Oreka galdu eta lurrera erortzen zen bakoitzean, ileetatik heldu eta, bortizki, berriz ere esertzen zuten aulkian.
- Paretari begira jarri zuten, hankak distantzia jakin batera jarrita eta hatz-mamiak soilik bermatuta. Jarrera horretan, barrabiletatik heldu eta airean altxatu zuten, eta, bitartean, agenteek esan zioten teknika hori Billy El Niño torturatzailerak ezagunak erabiltzen zuela.
- Eskopeta bat eztarrian jarri ere egin zioten. Egun hartan esan zioten gauez "paseatzera" aterako zutela.
- Oinak lotu ondoren, barandan jarri zuten, eta buruz behera zintzilik uzteko plantak egin zituzten, behin baino gehiagotan. Teilatuaren ertzean zegoela, jaustegiaren ondoan kokoriko egotera behartu zuten.
- Komunera joateko eskatzen zuenean jarritako eragozpenen eta luzamenduen ondorioz, gainean txiza egin zuen behin baino gehiagotan, eta gero poliziek burla egiten zioten horren kontura. "Luego, te subían arriba y decían: "¡Oye, que viene meado!". (...) Azken egunera arte ez zuen modurik izan ez dutxatzeko ez arropaz aldatzeko, Auzitegi Nazionalera eraman baino pixka bat lehenago.
- Kolpe-saio baten ondoren, guardia zibil gehiago sartu ziren. Aulki batean eserarazi zuten, pistola bat eman zioten eta pistola kargatzeko agindu zioten, baina atxilotuak ezin izan zuten kargatu, ez zekielako hori nola egiten zen. "¡No sé cargarla!". Jarraian, agenteek pistola hartu eta exekuzio-simulazio bat egin zuten, hiruzpalau aldiz. Gainera, deklarazio bat idaztera behartu zuten U.A., bi polizia nazional eta "gamelu" bat (droga-saltzaile bat) hil zituela adieraziz.
- Madrilerako bidaian baldintzak penagarriak izan ziren. Atxilotuak kalkulatuenez, hamar ordu inguru behar izan zituzten bidea egiteko, eta eserita egon behar izan zuten, eskumuturrak hanken azpitik zituela, eskuburdinak jarrita. Denbora horretan guztian, agenteak bazkaltzera gelditu ziren arren, atxilotuek ez zuten urik jaso, ezta elikagairik ere, eta komunera joatea eragotzi zieten: "¡te meas encima!".
- Hatzeekin presio handia egiten zioten belarrien atzealdean. "Un dolor terrible".
- Inkomunikatuta, iritsi bezain laster, belauniko egon behar izan zuen. Jarrera horretan, begiak estali zizkioten, kasko bat jarri zioten eta buruan kolpe ugari eman zizkioten, identifikatu ezin izan zuten objektu sendo batekin.

- “Me obligaban a cantar el Cara al Sol o realizar fl xiones”.
- Akidura fisiko eragin zioten, eta flexioak egitera edo ordu batzuetan zutik egotera behartu zuten. Gogoan du poltsa buruan eta pasabide batean zutik egon zela jende asko pasatzen zen korridorean, eta, pasatzean, iraindu egiten zutela, barre egiten zutela eta atxilotuaren burua hormaren kontra bultzatzen zutela, kolpea hartzeko.
- Itaunketetan, fl xioak egin behar izan zituen lurrean etzanda, baina ezinezkoa zitzaion hori egitea, saihestetan mina zuelako. Ondorioz, guardia zibil batek oinkadak eman zizkion bizkarrean, barrabiletan eta minduta zituen eremuetan. Guardia zibil hori, D.k dioenez, eskolako maisua izan zen berearen ondoko herrian, eta traidore deitzen zion jotzen zuen bitartean. “Uno de los guardias civiles se ensañó conmigo por mi lugar de nacimiento: Badajoz, diciéndome que era un traidor por ayudar a los vascos”. Gainera, barrabiletan elektrodoak jartzearekin mehatxatu zuten.
- Bost egunez, umiliazioak etengabeak izan ziren. Lau hankatan jartzera behartu zuten, eta, agente bat haren bizkar gainean zebilen bitartean, animalia balitz bezala; beste batzuek burla egiten zuten “Doce cascabeles tiene mi caballo...” abestia kantatuz.
- Une latz bat bizi izan zuela dio, ikusteko aukerarik gabe oinetatik eutsi eta amildegian eseki zutenean. Aurpegia estalita zeukan, eta ez zekien lurretik bi edo hoge metrora zegoen, edo leiho baten kanpoaldean zintzilikatu zuten.
- Lau guardia zibil buruan jotzen hasi zitzaizkion, eskuarekin. Gero, poltsa bat jarri zioten buruan, eta, esku batekin lepoan doitzen zioten bitartean, bestearekin ahoa eta sudurra estaltzen zizkieten. Aldi berean, presioa egiten zioten urdailean, airea hartzea eragozteko. Egoera horretan, galdekatu egin zuten.
- Elektrodoak jarri zizkieten gorputz osoan, baita barrabiletan ere.
- Bizkarrik gabeko aulki batean etzanarazi zuten, hankak mahai batean bermatuta zituela. Hanka horien artean guardia zibil bat zegoen, eta praktetatik helduta, atxilotuaren barrabilak presionatzen zituen bere botarekin; bitartean, atzean zegoen beste agente batek oinazpietan jotzen zuen makila batekin.
- M.B.V.ri bainuontziaren bi saio egin zizkieten, eta hainbat murgilketa jasan zituen. Tarte batean, bainuontzitik kanpo zorabiatuta zegoela, harritu egin zen ura goitik zetorkiolako. Begiak irekitzean, guardia zibil baten zakila ikusi zuen, bere buruaren gainean pixa egiten. “Me chocó mucho. Eran capaces pues, no sé..., de cualquier cosa...”.
- Telefono-aurkibideekin kolpatu eta poltsarena egin ondoren, zapatak oinetatik kendu zizkietela kontatzen du, eta zoruan ur gisako zerbait sentitu zela; orduan, zeramatzan txandal-prakak jaitsi zizkieten, eta borra elektriko antzeko batekin deskargak aplikatu zizkieten zakilean.
- Denbora batez, uko egin zion agenteek aurkeztutakoa sinatzeari, harik eta, une jakin batean, emaztea ekarri (ezkondu berriak) eta emazteak berak

egiteko eskatu zion arte. Harrezkero, egun haietako unerik gogorrenetako bat bizi izan duela esan du; izan ere, jotzeaz gain, soka bat jarri zioten lepoaren inguruan, eta aulki batera igoarazi; gero, aulkia kendu eta zintzilik utzi zuten. Adierazi duenez, segundo batzuk igaro ziren beste agente batek heldu zion arte.

- “Barra” edo “pikana” izenekoa egin zioten. Eskuburdinak jarrita eta eserita, eskuburdinak hanken aurrean jarri ondoren, makila bat sartu zuten, posizio horretan belaupeen eta ukondoan tolesturaren artean geratzen den zuloatik. Ondoren, makilaren muturrak mahai banatan bermatuta jarri zituzten; atxilotua zintzilik geratu zen, burua beherantz eta eskuburdinak tibietan iltzatuta. Horrek, min izugarriaz gain, hantura handi bat ere eragin zion. Jarrera horretan elektrodoak ere jarri zituzten, “pikana elektrikoa” deitutakoa erabiliz, eta egun haietan bizi izandako tormenturik jasanezin eta mingarriena dela dio X.O.k. “Es como un clavo frío que te atraviesa el cerebro; se contractura todo el cuerpo y te muerdes la lengua y los carrillos, por eso, te meten un pañuelo en la boca y, a veces, pierdes el conocimiento”. Kalkulatu duenaren arabera, ehun aldiz baino gehiagotan eman zituzten deskargak, elektrodoak gorputz osoan jarrita, baina arreta berezia jarritz mastoideetan, barrabiletan eta, batez ere, tenporaletan. Tormentu horren ondorioz, konortea galdu zuen hainbatetan, eta, konortea galtzen zuenean, eten egiten zituzten deskargak.
- Gogoan du “arkatzaren teknika” delakoa aplikatu ziotela, *Bic* markako hiru bolalumarekin, haien hodiekin arkatzen baten ertz berberak baitituzte. Polizietako batek besoari eusten zion bitartean, beste batek –gogoratzen duenez, txikia, ilehoria eta biboteduna zen– hiru bolaluma sartu zituzten Asierrin haren atzamarren artean. Gero, poliziak esku batekin gogor estutzen zituzten atzamarra eta beste eskuarekin bolaluma mugitu edo biratzen zituzten, eta horrek min handia eragiten zion. Tortura horren zati zen atxilotuari galdetzea ea nahiago zuen bolaluma mugitzea edo biratzea.
- Zutik eta paretari begira zegoela, bost agente inguruk belarrian oihu egiten ziotela dio, eskua zabalik buruan emandako kolpeak jasotzen zituzten bitartean. Kolpe horiek halako indarkeriaz eman zituzten, ezen bekokiaren trenkada jo zuen.
- Aurrez aurrekoan, biak bultzatu eta behartu zituzten beren artean indarkeriaz kolpatzera. Gero, atxilotuen abokatuak ekintza hori sadismotzat joko zuten publikoki.
- “Me pusieron un casco de moto grande, por dentro tenía gomaespuma. Y entonces, con un listín de teléfono, me empezaban a pegar entre dos o tres, *pin pan* en la cabeza”.
- S.Z.B.ri alkandora kendu eta metalezko kamaina batean lotu zuten: “un tío con bata blanca, que llevaba una media por la cabeza –a ese no le vi la cara– me puso una cosa, con un trapo negro, en el pecho, estando yo esposado de pies y manos. Y empezó con una jeringuilla como si me fuese a dar una inyección. Con la otra mano quitó el trapo de la jaula y era una rata, si ves qué rata era... Por los extremos de la jaula la rata podía sacar las patas y tocarme la piel, eso era terrorífico no quiero ni acordarme...” (izu-aurpegia jartzen du). “Claro,

no te puede morder porque estaba en la jaula metida, pero tenía los ojos aquí al lado (de sus ojos) y te miraba por los ojos... Joe, no quiero ni pensarlo, porque todavía alguna noche me he despertado, me ha dicho mi hija, envuelto en sudor, joder”.

- Ganadua balitz bezala tratatua sentitu zen agenteari entzutean: “Vamos con la mercancía”.
- Lagunen kexuak entzuten zituen. Mehatxuak. Higiene-neurriak ukatzea: ezin izan zen arropaz aldatu.
- Ez zuen inoiz laguntza psikologikorik jaso ondorio horiek gainditzeko.
- Ondo inguratuta egoteak gertatutakoaz hitz egiteko aukera eman dio, eta, psikologikoki, une txar hura gainditzeko aukera ere bai, nahiz eta aita ezin izan zuen bere errugabetasunaz konbentzitu.
- Psikologikoki gaizki zegoen, eta espetxeko botika-kutxatik lasaigarriak ematen zizkioten, medikuaren agindurik gabe. Lo hartzeko arazoak izan ditu luzaroan. Ezin zion utzi tiro hotsak entzuteari, ezta gertatutakoaren ondorioetan pentsatzeari ere. Gaurdaino, lau lagunen heriotzaren erantzule sentitzen da, neurri batean. Gustatuko litzaioke gertatutakoa beste modu batera onartu eta hobeto eramatea. Ez du inoiz laguntza psikologiko profesionalik jaso.
- Abenduaren 28an (Inozente Eguna), aske geratuko zela sinestarazi zioten, eta, ondoren, prestatu zenean, burla egin zioten, barre algaraka: “¿No te has dado cuenta del día que es hoy?”.
- Nahasten saiatu ziren, deklarazio judizial bat simulatuz, guztiak guardia zibilak ziren arren. Madrilerako joango zela uste zuenean, paper bat aurkeztu zioten, eta esan zioten luzapena zela, eta han beste lau egunez edukiko zutela. Albiste hark eragin zion izuaren ondorioz, gainean kaka egin zuen, eta lau ordu eman zituen negarrez, pentsatuz une hartan ez zitzaiola axola hiltzea: “Ya no me importaba que me mataran ni nada”. M.U.ren etsipena trufa egiteko erabili zuten guardia zibilek, ikasketak izan arren, puntu horretaraino eramatea lortu zutelako.
- Izu-laborria eragin zion gertakari bat ere kontatzen du. Polizia bat ziegara sartu, eta esan zion anaiak zer izen zuen eta soldaduska non egin zuen. Informazio horrekin bere familia atxilotuta zegoela sinestarazi zioten, eta izu-laborriak hartu zuen, 2 urteko semearen egoeraz eta haiek ere jasoko luketen tratuz pentsatzean, “...pienso, dónde estará mi hijo... y si yo estoy así, cómo estarán ellos...”.
- Beste batean, kokoriko ibiltzera behartu zuten, esaldi hau errepikatu behar zuen bitartean: “soy un pato, cua, cua”. Horrela ibili behar zuen, iseka artean, eta agindu kontraesankorrak jasotzen zituen. Alde batetik, galderak egiten zizkioten, eta, bestetik, erantzuten zuenean jo egiten zuten: “¡los patos no hablan!”.
- Hiriburu hartan Intxaurren bizi izandako agresibitatea jasan ez bazuen ere, erruduntasun-sentimenduak eragin zizkioten bere seme-alabengandik

bananduta egoteagatik, espetxera bidaltzeko mehatxuen bidez, denbora luzez ezin izan baitzituen ikusi. Honela esaten zioten: “Tenías una vida más o menos cómoda. ¿Cómo habéis entrado en estas historias? ¡Uuuuy los años que te van a tocar pasar en la cárcel! ¡Si no vas a verlos crecer! (...) Inkomunikazio-aldia luzatu ziotela esan ziotenean, gogoan du poliziakideek ez zutela ezkutatu pozik zeudela.

- Halaber, mehatxatu zuten GALEk neska-laguna hil zezakeela, orduan Iparraldean errefuxiatuta baitzegoen, eta hura ere iraintzen zuten: “Tu compañera, ¡esa puta! ¡la cogemos”.
- Azken gauean, Madrilera eramán aurretik, J.A.S.G. ziegán zegoela, garbitzeko eta prestatzeko esan zioten, aterako zirela. Beldurtuta eta bere amaiera iritsi zela pentsatuta, arropa garbitu eta aldatu zuen. Jatetxe batera eramán zuten beraiekin afaltzera. Kuadrila baten gisako festagi-roan, barre-algara artean, xerra bat patatekin eskatu zioten, baina J.A.S.G.k ez du gogoratzen jan zuenik. Zerbitzariaren arreta bereganatzeko ahaleginean jarri zuen gogoa, laguntza eskatzeko asmoz, baina ez zuen lortu. Afaria amaitu ondoren, Gobernu Zibilera itzuli ziren, eta, iritsi bezain laster, erabat aldatu ziren portaeraz, kolpeei eta mehatxuei berriro helduz: “mira, hijoputa, como declares torturas vamos a ir, te hemos grabado con nosotros cenando y vamos a ir a donde Zotza...”. Zotza J.A. zen, garai hartan ETA Politiko-Militarraren buru, “vamos a ir donde Zotza y le vamos a decir que eres un chivato”.
- Semea ere atxilotuta zegoela sinestarazi zioten, ondoan zuen ziega batean, zeinetatik sufrimendu-oihu handiak ateratzen baitziren. Halako moduan egin zuten, ezen alabari ere ez baitzion sinetsi Auzitegi Nazionalean harekin hitz egin ahal izan zuenean. Arazo psikologikoez luzaroan jarraitu zuten: “Nunca fui la misma persona”.

3.6.4. Epaileen, auzitegiko medikuen eta ofiziozko abokatuen jarrera ez-bermatzailea, bereziki tortura edo tratu txarren ustezko egitateen eta/ edo salaketen aurrean.

Batzorde honetara jo duten biktimen hitzetan, “instrukzio-epaile askoren pasibotasuna nabarmentzen da egoitza judizialean egindako torturen eta tratu txarren salaketan aurrean”. Ebidentzia nabarmenak izan arren, epaile horiek ez zuten auzitegiko txostenik eskatu, ez eta salatzaileari deklaraziorik hartu ere, eta ez zuten inolako eginbiderik egin.

Kaltetuetako askok, beren eskaeretan, auzitegi-mediku askok erakutsitako “babesgabetasun nabarmena” aipatzen dute; izan ere, biktimek bizi izan zituzten egoera zail haietan, ez zituzten erregistratu beren aurrean zituzten ebidentziak. Horrek guztiak, ofiziozko abokatu, epaile eta fiskal askoren jarrera pasiboarekin batera, torturaren zigorgabetasuna ahalbidetzen zuen katea osatzen zuen. Badirudi zigorgabetasun horrek jokabide-ereduei zor zaiela, Polizia Kidegoaren arabera, eta praktika antolatuen –sistematikoen– maila hartzen zuela zenbait atxiloketa-zentrotan, hala nola Indautxuko (Bilbo) eta Gasteizko polizia-etxeetan, Donostiako Gobernu Zibilean, La Salveko (Bilbo), Gernikako eta Tolosako Guardia Zibilaren kuarteletan, Antigua eta Intxaurrondoko komandantzietan eta Madrilgo atxiloketa-zentroetan: Puerta del Soleko Segurtagintzako Zuzendaritza Nagusia eta Tres Cantoseko Guardia Zibilaren Komandantzia. Aipatutako Madrilgo zentro horietan, salbuespenak salbuespen, praxi txar orokortua hautematen da terrorismoaren aurkako operazioez

arduratzten diren auzitegi-medikuen, ofiziozko abokatuen eta Auzitegi Nazionaleko epaile eta fiskal batzuen aldetik

Horri buruzko adierazpen batzuk:

- Begiak puztuta eta markak agerian zituela epailearen aurrean agertu zen eta E.k jasotako tratu txarra eta eman zizkioten kolpeak salatu zituen; hala ere, magistratuak ez zuen salaketa hori jaso: “hizo caso omiso de mis declaraciones ”
- Epaileari aitorten hura bortxapean, jasan zituen torturengatik, egin zuela kontatu zionean, une hartan areto berean, epailearen aurrean, zegoen guardia zibilak berriz ere mehatxatu zuen La Salvera eramatearekin , polizia-deklarazioa berresten ez bazuen. Magistratuak ez zuen ezer esan mehatxu horri buruz, zirkinik ere ez zuen egin.
- 21 egun atxilotuta igaro ondoren eta epaitegira eraman aurretik, “nos afeitaron, aunque creo que fui con la misma ropa, creo que sí ... Nos afeitaron el día que teníamos cita con el juez”.
- DGSren Madrilgo bulegoetan zegoela, auzitegiko mediku batek bisitatu zuen, eta gorputza eta aurpegia ubelduta ikusi ondoren, garrantzia kendu zion haren egoerari: “Eso no es nada”. Epailearen aurrean deklaratu baino lehen, pomada bat eman zioten, hantura eta hematoma jaisten saiatzeko. Orobat, dutxatzen eta arropak aldatzen utzi zioten.
- K.U.k kontatzen duenez, gauetako batean L.L. de G. Auzitegi Nazionaleko auzitegiko medikuak bisitatu zuen, eta jasotako tratuaz galdetu zion K.U.ri. Orduan, atxilotuak medikuari kontatu zion kolpatu eta ostikoak eman zizkiotela, poltsa egin ziotela eta fl xioak egitera behartu zutela, besteak beste. Informazio hori, auzitegiko medikuak paper batean jaso zuela zirudien, eta, K.U.k egiaztatu ahal izan zuenez, handik gutxira guardia zibilei iritsi zitzaizen. Hala, agenteek are ankerrago jokatu zuten berarekin hurrengo galdeketan, eta salatu izana aurpegiratu zioten. “Nosotros pensábamos que eras mejor persona. ¡A quién se le ocurre decirle a la médico forense lo que te estamos haciendo!”. Horrenbestez, forentsearen hurrengo bisitan, gezurra esatea erabaki zuen; hau da, esan zion tratua egokia izaten ari zela.
- Bigarren egunean edo, auzitegiko mediku baten bisita jaso zuen. Nola zegoen galdetu zion, eta kamiseta igotzeko agindu, soina ikusi nahi ziolako. Atxilotuak dioenez, auzitegi-medikuak ez zion iruzkinik egin, baina, ordurako, aurpegia markatuta zuen eta gorputza elektrodoek eta kolpeek eragindako hematomez beteta, baina F. ez zen horretaz ohartu espetxean sartu arte.
- “En aquel tiempo no se denunciaban las torturas, no se denunciaban porque no creíamos en los jueces y sabíamos que no había nada que hacer. Yo estuve delante del juez con dos policías a mis espaldas. Y tal y como estaba, con la cara hinchada y con marcas en el cuello, el juez no me preguntó nada”.
- Auzitegiko mediku batek ikusi zuen, odoletan eta egoera tamalgarrían, baina ez zen ondoriorik izan. “No nos atrevíamos a decir nada a la forense. Temíamos que decir algo porque no teníamos la seguridad de si realmente era médico forense o no”. Laguntza juridikorik jaso ez bazuen ere, Madrilen

pasatako lau bat egun haietan auzitegi-mediku batek bi aldiz ikusi zuen, zenbait guardia zibil ere bertan zirela.

- U.A.k ez zekien Baltasar Garzón epailearen aurrean salaketa egin ala ez, tortura eta tratu txarreatik; izan ere, desorientatuta eta abailduta zegoen, zurbil, eta odol pixka bat zerion sudurretik. Epaileak ikusi ahal izan zuen hori, eta ez zion inolako galderarik egin atxilotuari. Atxilotu eta hiru bat urte geroago, 1995ean, bildu zuen indar nahikoa eta, bere bikotekideak lagunduta, orduan joan zen epaitegira. Egoitza judizialean kontatu zituen Guardia Zibilak egiten zizkion presio, mehatxu eta derrigortzeak. Salaketak ez zuen ibilbide luzerik egin, baina balio izan zion modu pertsonalean.
- Jasandako tratua salatu zuen Auzitegi Nazionaleko auzitegiko medikuaren aurrean, baina hark ez zuen kontuan hartu azaltzen ari zitzaiona. Ismael Moreno epailearen aurrean ere salatu zuen; epaile hark eman zuen espetxe-autoa.
- 1998an atxilotu zuten arren, atxiloketa-aldian E.O.k ez zuen inolako laguntza juridikorik jaso. Behin, auzitegi-medikua zela esan zuen pertsona bat etorri zen ziegara -ez zion identifikaziori erakutsi-, eta nola tratatu zuten galdetu zion.
- Auzitegi Nazionalean, Carlos Dívar epailearen aurrean, leporatzen zitzaizkion karguak ukatu eta torturak salatu zituen A.E.A.k, poliziaren deklarazioa inkomunikazio-aldian egin zela azpimarratuz, bere borondatearen aurka eta tratu txarrekin. Baieztatzen duenez, epaileak ez zuen interesik adierazi gai horretan, eta espetxeratzeko agindu zuen, ofizioz prozedura judizialik hasi gabe jakinarazi zizkion egitateengatik. Ondoren, abokatuaren bitartez, salaketa judizial bat jarri zuen, torturagatik, Donostiako Guardiako Epaitegian. Orduan, auzia artxibatu egin zen, instrukzio-epaileak salatzaileari deklaraziorik hartu gabe, auzitegiko txostenak eskatu gabe eta eginbiderik egin gabe.
- E.O. Baltasar Garzón epailearen aurrean arropa urratuta eta odolez zikinduta agertu arren, hark ez zion inolako galderarik egin horri buruz, eta espetxeratzeko autoa eman zuen.
- Epailearen erreakzioa guztiz pasiboa izan zen, eta ez zuen inolako interesik erakutsi U.A. tratu txarrei eta torturei lotuta egiten ari zen salaketan.
- Auzitegi Nazionalean Garzón epailearen aurrera eramanean, ukatu egin zuen ETako kide izatea eta egotzitakoak egin izana, eta tratu txarrak jaso zituela salatu zuen. Aretoan zeuden agenteak gainera etorri eta arropa kentzea eragotzi zioten, epaileari eta abokatuari lesioak ez erakusteko. Epaileak Carabancheleko espetxean beste 72 orduz atxilotua izateko agindu zuen, eta hilaren 10ean aske utzi zuten, gaueko 12etan. F.L.A.k uste du lesioak hain agerikoak ez izateko luzatu zela atxiloketa. Azkenean aske geratu zen .
- Ohatila bat zegoen gela zuri batera eramanean zuten, eta jasotako tratu txarren berri eman zion han zegoen auzitegiko mediku bati, nahiz eta, atea irekita zegoenez, kanpotik dena entzun zitekeen. Medikuak, ordea, agidanean gauza

bat bakarrik ikusi nahi zuen: ea markarik bazuen. Barrabiletan, saihetsetan eta buruan sentitzen zuen mina aipatu zionean, estresari zor zitzaioala erantzun zion.

- Eskatzaileak baieztatzen duenez, poliziaren deklarazioan bizpahiru aldiz saiatu zen bezperan prestatutako erantzunen gidotik ateratzen, baina guardia zibilek berek interesatzen zitzaien bezala erantzuten zuten, eta ofiziozko abokatuak ez zuen txintik ateratzen. Deklarazioak bi ordu inguru iraun zuen, eta, ondoren, M.E.M. auzitegi-medikuaren aurrera eraman zuten, zeinak egunero aztertzen batzuen, eta hark jakinarazi zion egun hartan bertan altxatuko zela inkomunikazioa.
- M.E.M. beldur zen dokumenturen baten edukitza edo aldaketa egotziko ote zioten, kalte egiteko. Ofiziozko abokatuaren jarrera onartezintzat jotzen du, deklarazioan zehar behin baino gehiagotan atera baitzen aretotik, erretzeko.
- Auzitegi Nazionalera eraman zuten, eta poliziaren deklarazioa torturapean sinatu zuela berretsi zuen Carlos Dívar epailearen aurrean, baina hark ez zuen inolako interesik agertu berak egindako tratu txarren kontakizunean. Dívar epailearen aurrean M.A.B.k egindako tortura-salaketak ez zuen inolako ondoriorik izan:

“Mientras yo estaba haciendo mi declaración de todas las torturas y malos tratos sufridos, el juez C.D. estaba mirando hacia el techo, sin hacer, aparentemente, ningún caso y, en un momento dado que interrumpí mi relato, me dijo:

- ¿Ya ha terminado?
- No, no, le dije, todavía me han hecho más... y esto y esto... y volvió a mirar al techo.
- ¿Ahora ya ha terminado?... me dijo cuando terminé.
- Sí, ahora sí.
- Hale, pues bueno, ya puede ir con Dios”.

- Indautxuko polizia-etxean zegoela, auzitegi-mediku baten aurrera eraman zuten, baina hark ez zion inolako azterketa fisikori egin, eta une batean ere ez ziren pazientea eta medikua bakarka elkarrekin egon. Egoera hark ez zion konfiantzari eman, eta nahiago izan zuen ezer esan ez.
- Gogora ekarri du polizia-egoitzan egindako bi adierazpenetatik lehena ez zela sartu autoetan. Salan ustezko ofiziozko abokatu bat zegoen, baita bi guardia zibil ere. E.B. kaputxarrik gabe zegoen, eta horrela egin zuen deklarazioa. Izapidea amaitu eta gela hartatik irten ondoren, jipoitu egin zuten, berriz ere biribil batean jarrita.
- Preso egon zen bederatzi egunetan ez zuen laguntza juridikorik edo medikorik jaso, nahiz eta azken hori eskatu zuen, bihotzeko gaitz bat zuela esanez.
- Heriotza-mehatxuak jaso zituen agerraldi judizialaren aurreko bi orduetan,

nozitutako tratuari buruzko xehetasunak eman ez zitzaizkion. “Puedes decir que no has comido ni dormido, pero, de lo otro, ¿no digas nada porque yo mismo te mataré!”. Epaitegira eraman zuten, Juan Alberto Belloch magistratuaren aurrera. X.O.k jasandako tratua berri eman eta babesa eskatu zion. Epailearen aurreko agerraldiaren ondoren, X.O. aske geratu zen, kargurik gabe.

- Ofiziozko abokatu faltsu baten aurrean deklaratzera eraman zuten, baina hari ere ez zizkion aitortu leporatzen zizkieten gertakariak, eta horregatik berriz ere kolpatu zuten. Mina eta izua handia bazen ere, Poliziak leporatzen zizkion egitateetan parte hartu ez zuela deklaraztea erabaki zuten.
- Bigarren azterketa horren ondoren, jipoi gogorra jaso zuten polizia-etxean, lehen unean torturak salatu zituelako. Hirugarren egunean emakumezkoa zen auzitegi-medikuak bisitatu zuen eta hau esan zion: “No entiendo por qué te metes en estos líos. ¡A tu edad, lo que tienes que hacer es follar!”. Horrek erabateko mesfidantz eragin zion atxilotuari, eta, laugarren bisita forentsea gogoratzen ez badu ere, gogoan du azkena, Auzitegi Nazionalean egindakoa, non begien bistakoa zena ukatu nahi baitzuten medikuak: “¡Hala, venga! ¡Tira, fuera!”.
- Auzitegi-medikua zela zioen norbait ere igaro zen ziegatik, baina U.G.I.k, guardia zibila izango zen beldurrez, ez zuen tratatu txarrik aipatu. Ondoren, prozesu judizialean, abokatuak baieztatu zion inon ez zegoela jasota Donostian auzitegi-mediku batek aztertu zuenik.
- Eskatzaileak dioenez, Baltasar Garzón epailearen aurreko agerraldian jakinarazi zuen jasotzen ari zen tratatu txarrik baldintzatuta jo zuela bere burua erruduntzat poliziaren egoitzan. Magistratuak, “todos decís lo mismo” edo antzeko zerbait erantzun ondoren, espetxeratzeko agindua eman zuten, salaketei jaramonik egin gabe.
- Inkomunikatuta hamar egun igaro ondoren, begi-bistako egoera fisiko tamalgarrian eraman zuten epailearen aurrera: atxilotetaren egunean zuen arropa bera zuen jantzita, zauri bat ezpainean, zapatak lotu ezinik oinak hanpatuta zeuzkalako, eta kolpeak eta ubeldurak zituen buruan eta gorputzean, besteak beste. Deklarazioan, bere abokatuak, Iñaki Esnaola, ikusi ere ez zuen egin, aretoaren atzeko aldean baitzegoen. Poliziari egindako deklarazioa ezeztatu eta epaileari torturak jasan zituela adierazi zionean, haren erantzuna honako hau izan zen: “Aunque usted haya sido maltratado, su declaración ante la Policía es cierta, ¿no?”.
- Polizia-deklarazioa hiru agenteren eta ofiziozko abokatu baten aurrean egin zuten. Deklarazioa amaituta, sinatu aurretik irakurri ondoren, abokatuak protesta adierazi zuen, atxilotuak esan ez zituen baieztapenak agertzen zirelako. Mehatxupear: “usted se calla, o lo demás se va”, lortu zuten abokatuak gaia berriro ez aipatzea. Madrilgo Instrukzioko 5 zenbakiko Epaitegira eraman aurretik, alkandora garbi bat eman zioten, arropaz aldatzeko. Ondoren, Baltasar Garzón epailearen aurrean deklaratu zuten, eta hark akusazioak jakinarazi zizkion. P.Z. saiatu zenean polizia-etxean jasotako tratua kontatzen, epaileak hitz egiteko aukera ukatu zion, eta aretotik kanporatzeko agindua eman zuten.

- Handik gutxira, sorospen-gelara eraman zuten. Han, medikuari azaldu zion zer-nolako tratu txarrak ari zen pairatzen. Medikiak ez zuten babesneuririk hartu, eta horrek M.P.F. sumindu zuen. Polizia-etxera itzuli zuten, eta han kolpez, bultzakadaz eta irainez osatutako “korridore” batekin egin zioten harrera berriz ere.
- Egoera horretan, auzitegiko mediku batek ikusi zuen, zeinak, haren egoeraz galdetu bazuen ere, ez baitzion inolako azterketarik egin. Madrilerira iritsi eta bi egunera, epailearen aurrera eraman zuten, eta jasotako tratuaren berri eman zion, baina hark ez zion kasurik egin.
- Une jakin batean, auzitegiko mediku batengana joango zela esan zioten, eta mantal zuri batez jantzitako emakume bat zegoen gela batera eraman zuten. Egiaz auzitegi-mediku bat zelakoan, I.A.G. jasotako tratu txarren berri ematen hasi zitzaion. Tarte batez hitz egiten utzi ondoren, barre egiten hasi ziren, eta esan zioten ezen, errealitatean, garbitasuneko emakumea zela, eta ezinegon handia sentitu zuen, auzitegi-mediku bat edo eraikineko garbitzaile bat ote zen zalantzatan. Dioenez, ordurako, galderak egitea baino, egoera ankerrak sortzea zuten helburu, Idoiari ezer ez zuela balio eta berarekin nahi zutena egin zezaketela sentiaraztea.
- Haren agerraldi judiziala laburra izan zen. Auzitegi Nazionalean, I.A.G. saiatu zen epaileari azaltzen zer tortura jasan zituen, baina hark isiltzeko agindu zion.
- Handik gutxira, kale-jantzian zegoen gizon batek, zeina mediku gisa identifikatu baitzen, begiak eta ezpainak aztertu zizkion I.I.ri, eta jarrai zezaketela esan zien poliziei: “Seguid tranquilos, no hay problema de nada”.
- Egun horietako batean J.I.A. engainatu egin zuten, haren kide J.I.L. bezala, epailearen aurrean deklarazioa egingo zuela sinetsaraziz, baina ustezko magistratua guardia zibil bat baino ez zen, eta polizia-deklarazioa hartu zien.
- ABEk epailearen aurrean egindako agerraldian agerian geratu zen haren deklarazioa tratu txarrak erabiliz lortu zela, baina epaileak ez zuten prozedura judizialik abiarazi.
- Intxaurrendora iritsi bezain laster, girgiluak kendu zizkioten, eta pertsona baten aurrean biluztu zuten. Pertsona hori auzitegi-mediku bat izan zitekeen, eta J.R.S.k atxilotetaren aurretik zituen orbainen berri jaso zuen. Hala, atxilotuari sinarazi zion kuartelean sartzean zuen egoera fisikoari buruzko txostena.
- Abokatu bat bertan zela deklarazio bat egitera eraman zuten. Deklarazioa amaitzean, tratu txarrak jaso ote zuen galdetu zion, baina guardia zibilek galdera eten egin zuten, atxilotutakoa oraindik inkomunikatuta zegoela argudiatuta. Behin aske utzi zutela, azterketa medikoa egin zuen Pakea klinikan. Lesio traumatiko handia diagnostikatu zioten: belauneko zaintiratua eta sentsibilitate galera eskuetan, nerbio erradialaren gainean eskuburdinek estuegi lotuta egiten zuten presioagatik.

- E.L.B.k adierazi duenez, B.G. epaileari eman zion jasandako tratuaren berri, “haciendo este caso omiso a sus manifestaciones”.
- Ez zuen laguntza juridikorik izan. Dioenez, auzitegiko medikuari egindako bisitak laburrak izaten ziren, eta medikuak ez zion ia arretarik eman. Atxilotuak zer gertatu zitzaion kontatu zionean, tratu txarren eta torturen marka fisikoa erakutsiz, medikuak atxilotetaren uneko erresistentziari egotzi zion, eta pomada aplikatzen hasteko agindu zien guardia zibilei.
- J.I.E.E.k auzitegiko mediku baten bisita jaso zuen Auzitegi Nazionalean bertan, eta, kremak gorabehera agerikoak ziren ubeldura izugarriak erakutsi nahi izan zizkionean, honako hau esan zion: “no hace falta que te quites la ropa”.

“Mendekua torturak salatzeagatik”. J.I.E.O.ren lekukotasuna

Lehenengo atxiloketa: 1980ko irailaren 19a

Instrukzio-epaileari, J.I.E.O.ri, jaso zituen torturak kontatu zizkion, nahiz eta tratu txarrak egin zizkieten poliziak bertan egon. - Epailearen galderen ondoren, auzitegiko mediku baten bisita jaso zuen Auzitegi Nazionalean bertan, eta, kremak gorabehera agerikoak ziren ubeldura izugarriak erakutsi nahi izan zizkionean, honako hau esan zion: “no hace falta que te quites la ropa”.

Espetxeratzeko agindua eman ondoren, Carabanchelera eraman zuten. Kolpeen ondorioz, min handia zuen sailhetsetan (bi hautsi zizkieten), eta ez zen arindu espetxean emandako botikekin. Hilabete eta erdi geroago, behin-behinean aske geratu zen, 100.000 pezetako fidantz ordainduta.

Libre zegoela, J.I.E.O.k larderiazko telefono-deiak jaso zituen goizaldean, zeharkako mehatxuekin. Mehatxu horiek izugarri asaldatzen zuten, eta lo hartzea eragozten zioten: “¿Te acuerdas de nosotros? Que sepas, que estamos aquí”.

Bigarren atxiloketa: 1982ko uztailaren 17a

1982ko uztailaren 17ko goizaldeko 03:30ak aldera, zenbait polizia nazionalak indarrez jo zuten familiaren etxeko atean. (...) Land Rover batean sartu bezain laster, polizietako batek barrabiletatik heldu eta bortizki estutu zizkion, oihu latzak eginaraziz. Martxan jarri ondoren, Donostiarako norabidean, Oriora sartu eta hondartzara joan ziren. Ezkerraldetik sartu ziren harean, ibaiaren ondotik.

Ibilgailutik jaitsita, J.I.E.O.k biluztu egin behar izan zuen, poliziek beren galtzak gorantz biltzen zituzten bitartean. Ondoren, eskuburdinak atzetik lotuta, itsasora eraman zuten. Han, atxilotuaren burua hainbat aldiz murgildu zuten, asfixi eta sufrimendu handia eraginez.

Tentsioaren, nerbioen eta itomenaren ondorioz, J.I.E.O.k botaka egin zuen. Orduan, uretatik atera zuten, eta pistola bat buruan jarrita, ohartarazi zioten mendekua zela: “Todo esto te ocurre porque en la anterior detención denunciaste torturas al juez”. (...)

Hurrengo goizean, bulego batera eraman zuten, eta bizkarrean zituen lesioak eskailera batzuetatik erori izanaren ondorio zirela zioen paper bat

sinatzeko eskatu zioten. “O firmas esto, o te llevamos a Madrid. Si firmas, esta misma noche te soltamos”. J.I.E.O.k sinatu zuen, eta iluntzean libre geratu zen. Egoerak behartuta, ez zuen salaketa judizialik jarri gertakari horientatik.

Bi gertaeren ondorioei buruz galdetuta, (...) berriz ere atxilotua izateko aukerak lo egitea eragozten ziola esan zuen, batez ere gauez auto baten motorra entzuten zuenean bere etxearen aurrean, edo, beste arrazoi batengatik herrira joanda, torturatzailleak ikusi zituenean.

3.6.5. Atxilotu ondoren torturatutako pertsonak geratzen diren egoera penala

Kapitulu honetan, nabarmentzekoa da zenbat pertsona atxilotu, torturatu eta, polizia-etxeetatik edo kuarteletatik irten ondoren, kargurik gabe aske utzi zituzten (eta, kasu askotan, epailearen aurrera joan gabe) edo eginbide judizialak edo epaiketa egin ondoren askatu zituzten. Laugarren txosten honetan jasotako 75 atxilotu eta torturatuetatik:

- Epailearen esku utzi gabe libre geratu ziren: 13
- Epaitegitik igaro ondoren, kargurik gabe aske geratu ziren: 13
- Behin-behineko askatasunean geratu ziren, eta gero ez zen epaiketarik egin: 3
- Libre geratu ziren, “zauriak ezkutatzeko” kartzelan hiru egun eman ondoren: 2
- Aske utzi zuten, fidantzapean, eta jarraian atxilotu egin zuten; ondoren aske utzi zuten, kargurik gabe: 1
- Aske utzi zuten, haren kasua artxibatu zelako, frogarik ezagatik: 1
- Karguekin kartzelatu zituzten: 27
- Espetxera joan zen, 1986ko apirilaren 11n, sei urte bete ondoren, Ministroen Kontseiluak indultua dekretatu zuen arte, “Azkarraga bidea” deiturikoan: 1
- Espetxeratu zituzten, eta handik gutxira behin-behineko askatasunean atera ziren: 3
- 20 egunez espetxeratu zuten, eta libre geratu zen, epaiketarik egin gabe: 1
- Prebentziozko espetxealdian egon ziren epaiketaren ondoren kargu guztietatik aske geratu ziren arte (baten batek hiru urte ere igaro zituen espetxean epaiketaren zain): 9

Horri honako hau gehitu beharko litzaioke:

- Epailearengana eraman gabe hil ziren: 5
- Poliziaren zaintzapean hil ziren: 2

3.6.6. Laguntza juridikoa polizia-etxean edo kuartelean egon bitartean

Laguntza juridikoa atxilotuta egon bitartean:

- Bai: 4
- Ez: 56
- Ez da gogoratzen: 1

Laguntza juridikoa, ofiziozko abokatua, 8oko hamarkadaren amaieratik aurrera.

- Bai: 14

Lekukotzak:

- Epailearen aurrean agertu ondoren aske geratu zen. Hala ere, bere gauzak jasotzeko poliziaetxera eraman zutenean, berriz ere ziega batean sartu zuten. K. lur jota geratu zen. Hurrengo egunean, Basauriko espetxera eraman zuten, “gobernuaren atxilotetapean”, salbuespen-egoera indarrean zegoelako. Aste batzuk gehiago iraun zuen, harik eta, azkenean, espetxetik atera zen arte, etsita eta etxera itzultzeko beldurrez, berriz ere atxilotu zezaketelako (...). Abokatuak jakinarazi zion haren izena duela gutxi irekitako sumario batean agertu zela. Albiste horrek sortu zion ziurgabetasunaren aurrean, bere letratuarekin batera epaitegian agertzea erabaki zuen, eta berriz ere Basauriko espetxera bidali zuten, “elkartze ez-zilegia” leporatuta. Bi hilabete igarota, behin-behineko askatasunean atera zen, eta geroago sumarioa artxibatu egin zen.
- “Antiguako Guardia Zibilaren Komandantziara iritsi ziren, eta zelda batean sartu zuten. Abokaturik ez zegoenez, aurkeztu zioten dokumentu bat sinatzeari uko egin zion. Dokumentu horretan atxilotuen eskubideei buruzko informazioa ematen zioten. Ondoren, guardia zibil altu eta lodi bat iritsi zen, eta eskua zabaldua zaplazteko bat eman zion, bai eta ukabilkada bat ere, hainbestera inoko indarrez non atxilotuak iritzia aldatzea eragin baitzuen, kolpe gehiago ez jasotzeko” (A.E., 1991).
- “Goiko solairuko bulego batera eraman zuten, igogailuan, eta agenteek esaten ziotena berresten ez bazuen torturatzeko mehatxuak jaso zituen. Presio horren ondorioz, bere burua erruztatu egin zuen. Dioenez, instruktorearekin batera, emakume bat ere bazegoen, zeina, jakinarazi ziotenez, bere abokatua baitzen. Inkomunikazioa zela-eta, ezin izan zuen harekin hitz egin, eta ezin izan zion jakinarazi torturatu zutela, ezta harengandik informazioa jaso ere, bere buruaren aurka ez deklaratzeko edo bere burua erruduntzat ez deklaratzeko eskubideari buruz. Ondorioz, bere eskubideak urratu egin ziren”.
- 72:00 ordu igarota, ofiziozko abokatua zela esan zuen pertsona bat agertu zen; deklarazioan agertu zen lehen aldia izan zen. Gero, inkomunikazio-aldia luzatu zuten, hiru egunetik bost egunera. “Va a venir el abogado de oficio. A ver qué le dices porque tú vas a seguir aquí, o sea, 72 horas son para la gente normal, no para vosotros y como se te ocurra contarle

algo... Bueno, vas a volver y te vas a enterar de lo que vale un peine". Mehatxu hura jaso ondoren, abokatuari tratatu txarrak ez aipatzea eta guardia zibilek iradoki ziotena deklaratzeko erabaki zuen.

- Auzitegi Nazionaletik igaro baino egun bat edo bi lehenago, minerako pilulak eman zizkioten, eta pomada bat hematometarako. Birritan edo hirutan, esku-argi bat erabiliz begiak aztertzen zituen auzitegiko mediku batek bisitatu zuen, baina ez zioten ezer esan elkarri. Beste pertsona batek ere aztertu zuen, eta hark torturarik ez salatzen ohartarazi zion. D.k ez daki benetan auzitegiko medikua zen ala ez. "... y después, otro más que dicen que era un forense y me miraba para decirme... amenazarme que, cuidado con las denuncias de tortura, que tú te has caído contra la silla y tienes que.... contra la mesa... y tienes que decir eso".

Legezko jarduketak.

J.F.L.A.ren lekukotasuna 1994/06/05

Aske geratu eta hurrengo eguneko goizean, 1994ko ekainaren 11n, Torturaren Prebentziorako Batzordeko kide baten deia jaso zuen J.F.L.A.k, haren egoerari buruz galdetzeko eta azterketa mediko bat egitea komeni zitzaizkion esateko. Segituan, Gipuzkoako Ospitalera joan zen, eta han, erradiografia egin eta bera aztertu ondoren, zituen lesioen eta hematomen parte eman zuten. Medikuekin, abokatuarekin eta TPBko beste kideren batekin hitz egin ondoren, batzorde horrek 1996ko martxoan argitaratutako txostenean jaso ziren jasandako torturak.

1994ko ekainaren 28an, eskatzaileak salaketa judizial bat aurkeztu zuen, torturengatik, Donostiako Guardiako Epaitegian, eta atxiloketan egindako auzitegi-txostenak salaketan sartzeko eskatu zuen. Aste batzuk geroago, uztailaren 12an, Usurbilgo Udalak Giza Eskubideen Defentsarako Udala Batzordea sortzea erabaki zuen. Batzorde horrek herri-akusazio gisa aurkeztea onartu zuen, hango herritarrek, besteak beste, P.L.k, torturengatik eta tratatu txarrengatik hasitako prozedura judizialean. Eskatzaileak dioenez, salaketan berresteko epaitegira deitu bazuten ere, salaketa horrek ez zuen aurrera egin, eta handik gutxira artxibatu egin zen.

1994ko ekainaren 8ra itzuliz, atxilotua polizia-etxean zegoela, garai hartan Gipuzkoako gobernadore zibila zen J.M.G.Z.k prentsaurreko bat egin zuen egun haietan Guardia Zibilak Gipuzkoan egindako operazioaren berri emateko. Prentsaurreko hartan, J.F.L.A. ETaren Kurrulu komandoko kide gisa aurkeztu zuen. Komandoa "legezko komando hiltzaile, kriminal, armatu" gisa definitu zuen, eta hiru atentatu egitea egotzi zion. Prentsaurrekoan parte hartu zuten komunikabide ugari, autonomia-erkidego mailakoek zein estatu-mailakoek, horren berri eman zuten hurrengo egunetan. Gertakari horrek J.F.L.A. haserrearazi zuen, eta erabaki zuen hasiera ematea berak "gurutzada" deitzen dion lege-ibilbide luze bati, kereila bat jarritz gobernadore zibilaren aurka, kalumnia eta irainengatik. Azkenik, kereila ez zuten izapidetzeko onartu, ezta geroko errekurtsioa ere.

Ipurdiko judizial hori hartuta, Donostiako Lehen Auzialdiko 4 zenbakiko Epaitegian demanda jartzea erabaki zuen, ohorerako eskubidean bidezkoa ez den moduan sartzegatik. 1998ko ekainaren 1eko epaiak gobernadore zibila

5 milioi pezetako kalte-ordaina ematera kondenatu zuen, prentsaurrekoa datuak zuhurtziaz, zehaztasunez eta behar bezala egiaztatzeko neurririk hartu gabe egin zela ondorioztatu baitzen, eta horrek kalte nabarmena eragin baitzion J.F.L.A.ren gizarte- eta familia-ospeari.

Gobernadore zibilak eta Fiskaltzak jarritako apelazio-errekurtsoaren ondoren, Probintzia Auzitegiak errekurtsoa jarritako epaia berretsi zuen, baina Auzitegi Gorenaren aurreko kasazio-errekurtsoak Probintzia Auzitegiaren epaia baliogabetu zuen. 2007ko abenduan, Konstituzio Auzitegiak ez zuen onartu auzi-jartzaileak aurkeztutako babes-errekurtsoa.

Barneko bide judizialak agortu ondoren, J.F.L.A.k Giza Eskubideen Europako Auzitegira jotzea erabaki zuen. Organo horrek epaia eman zuen 2011ko ekainaren 11n, eta Espainia kondenatu zuen, P.L.ren errugabetasun-presuntzioa urratzeagatik, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 6.2 artikulua babesten duen eskubidea izanik. Azkenik, J.F.L.A.k kalte ordaina jaso zuen gai horrengatik, eta Auzitegiak ezarritako zenbatekoa jaso zuen: 12.000 euro kalte moralengatik eta 6.400 euro gastu eta kostuengatik.

3.6.7. Mantal zuriak

Atal honetan ez da jasotzen pertsona batek, bata zuriarekin edo gabe, torturatutako pertsona baten aurrean auzitegi-medikua dela baieztatzen duen kasuen kopuru zehatza. Narratzaileek berek ere ezin dute zehatz-mehatz ziurtatu. Nolanahi ere, egiaztatu dugu atxilotze-egoerari dagozkion bermeak indargabetu eta manipulatzeko patroia izan dela askotan, urte honetan zehar aztertu ditugun espedienteetan. Izan ere, kasu askotan, torturaren biktimek adierazi dute engainatu egin zituztela, auzitegi-mediku zirela esaten zutenak ez zirela halakoak (medikuarena egiten zuten agenteak ziren) edo atxilotutako pertsonak ustezko auzitegi-medikuekin hitz egin behar zutela (kasu batzuetan hala izango ziren, eta beste batzuetan ez) atea irekita edota agenteak bertan zeudela ere. Torturatzaileek, aldez aurretik, gertatutakoa auzitegi-medikuen edo epaileen aurrean kontatuz gero izango zituen errepresalien berri ematen zioten atxilotuari, eta horrek biktimak isilarazten eta tratu txarrak eta torturak ez salatzea eramaten zituen. Errepresaliak nagusitzen ziren.

Azpimarratu behar da giza eskubideen urraketa-eredu horiek erabat bateraezinak direla gertakari isolatuekin, eta, argi eta garbi, planifikatutako portaerak adierazten dituztela, agente askoren artean transmitituak eta poliziaren eta atxiloteta-protokoloan parte hartzen duten beste kidego batzuen praxira sistematikoki hedatuak.

Hainbat lekukotasun:

- Ez zuen laguntza juridikorik izan, baina esan du auzitegi-mediku gisa agertu zen pertsona batek bisitatu zuela eta horrek zalantzak sortu zizkiola. “Solo me preguntaba a ver si tenía algo de lo que quejarme, pero, en fin, dada la situación, no tenía nada que quejarme, aparte que me lo olí, que éstos no eran forenses”.
- Atxilotuak ez zuen laguntza mediko edo juridikorik jaso polizia-etxean egon zen hiru egunetan. Harekin gogorren jokatu zuen poliziak bularra aztertzeo arropa altxatu zionean, J.R.k mediku bat ikusteko eskatu zion, eta agenteak hau erantzun zion: “¡El médico soy yo!”. Torturak salatuz gero, Batallón Vasco Español izenekoa bidaltzearekin mehatxatu zuten.

- Berriz ere polizia-etxean zegoela, ospitaletik atera ondoren, auzitegiko mediku baten bisita jaso zuen, beste pertsona batekin batera. Aztertu eta haren egoera egiaztatuta, K. berehala ospitaleratzea gomendatu zuen berriro. Une hartan, atxilotua hain gaizki zegoen ezen pentsatu baitzuen pertsona horiek poliziak zirela eta engainatu nahi zutela. Basurtuko Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura hirugarren aldiz eraman zuten, eta han zaintzen zuten poliziek tratu txarrak ematen jarraitu zuten, arreta jasotzeko zain zegoen bitartean. “Recuerdo, metido en una habitación del hospital solo con seis o más policías que entraban y salían mientras me insultaban y me agarraban de la cara, me empujaban y me preguntaban a ver si los conocía, etcétera. Hasta que llegó un señor con bata blanca y me preguntó a ver si tenía miedo y, como le dije que sí, mandó ingresarme”.
- K.k dioenez, oso nahasita eta ikaratuta sentitzen zen bizitzen ari zenagatik, baita amesgaizto hura noiz amaituko zen ez jakiteagatik ere. Egun batzuk geroago, soinean bata zuria jantzita zuen gizon baten aurrera eraman zuten; auzitegi-medikua izango zen ziurretik. Nola zegoen galdetu zion, gorputzean zituen arrastoak nabarmenak izan arren. Besterik ez. Guztira, 21 egun eman zituen polizia-etxean. K.ren iritziz, emandako jipoiek eragindako ubeldu nabarmenak desagertzeko beharragatik egon zen hain denbora luzean.
- DGSren Madrilgo bulegoetan zegoela, auzitegiko mediku batek bisitatu zuen, eta gorputza eta aurpegia ubelduta ikusi ondoren, garrantzia kendu zion haren egoerari: “Eso *no es nada*”. Epailearen aurrean deklaratu baino lehen, pomada bat eman zioten, hantura eta hematoma jakisten saiartzeko. Orobat, dutxatzen eta arropak aldatzen utzi zioten.
- Auzitegiko medikuaren aurrean zeramatela jakinarazteko baino ez zioten hitz egin. Berarekin bakarka egon zen bulego batean, non leihoaren argiak izugarri galarazten baitzuen, aurretik erabateko iluntasunean egon zelako. Medikuari azaldu omen zion nola tratatu zuten, eta, itxuraz, dena apuntatzen omen zuen, baina aurpegira begiratu ere egin gabe, eta hitzik ere esan gabe. Alkandora kendu eta ubelduren bat zuela egiaztatu zuen, baina ez zion garrantzirik eman. Gela hartan zegoela, P.J.k medikuari jakinarazi zion zorabiatuta zegoela, eta, hark tentsioa hartzen zion bitartean, konortea galdu eta lurrera erori zen. Esmatu zenean, bere kabuz jaiki zen, medikuak hitzik egin edo berriz aztertu gabe.
- Bi aldiz jaso zuen auzitegiko mediku baten bisita, baina ez zizkion tratu txarrak kontatu, informazio hori guardia zibilei iritsiko zitzaizen beldurragatik.
- Adineko auzitegi-mediku batek bisitatu zuen, eta, badaezpada ere, ez zizkion kontatu jasotzen ari zen tratu txarrak: “Me preguntaba ¿qué tal estás? Siempre la duda, dices ¿será forense? ¡Pero qué sé yo! No sé, te acobardas y dices: ‘pues nada... bien’ no dices nada. Ya sabemos lo que pasa normalmente. Es que dices algo y luego te viene la vuelta, entonces, cierras la boca y... que pase cuanto antes y a otra cosa”.

Atxiloketaren ondorengo kontroleko esku-hartze medikoak

- “Familiako medikuarengana joan zen: zenbait saihets hondoratuta zituen, gorputza eta ipurmasailak ubelduta, eta ezkerreko oineko

hatz lodiko azazkala ia erauzita. Horituta zegoen, eta hepatitis-a diagnostikatu zioten. Medikuek iradoki zuen agian manta zikin horiek ukituta kutsatu zela. Hilabete eta erdi eman zuen laneko bajaran, saihestetako mina desagertu zen arren”.

- Guardia Zibilaren kuarteletik irtetean, medikuarengana joan zen: “Me asistió el Dr. S. y me diagnosticó que tenía tres costillas con fisur . Me vendó... me vendó todo el pecho y me recetó unas pastillas para el dolor”.
- Urte horretan bertan, A.Z.k, zeina J. J.rekin eta Arrasateko eta Aretxabaletako beste 17 gazterekin batera atxilotu baitzuten eta tratu txarrak jasan baitzituen, medikuek emandako lesioen parte medikoak galtzeko beldurrez, 19 ziurtagiriak J.A.L.P.ren notariotzan eskritura publiko bidez protokolizatzeko lana hartu zuen.
- Polizia-jarduketa horrek J.rentzat (17 urteko gaztea artean) ondorio larriak izan bazituen ere, azkenean, gurasoek ez zuten salaketarik jarri agintaritzaren aurkara. Oro har, poliziaren indarkeria jasan zuten pertsonak ez ziren ausartzen justiziara jotzera, bazekiten eta errepresio are handiagoa ekar zezakeela horrek. Hori gertatu zen kasu honetan ere, eskatzaileak berak adierazi duenez: “Mi padre era conocido del Juez de Paz de Oíartzun o, no recuerdo exactamente, y le dijo que mejor que lo dejara, no fuera que encima hubiera más consecuencias . (...) Le dijo: ¡Mira! Yo no te recomiendo que hagas nada porque.... Era el año 79, la situación que había... Pues, igual podía haber más represalias por parte de la Policía o por parte de algún estamento”.

Torturei buruzko lehen epaia. X.O.R.ren lekukotasuna. 1979ko ekainaren 13a

Polizia Nazionalak X.O.R. atxilotu eta Indautxuko polizia-etxean bederatzita egunez egon eta lau urtera, X.O.R.ren salaketak Espainiako Estatuan torturengatik emandako lehen epaia eragin zuen, 1983. urtean.

Kargurik gabe aske utzi ondoren, Bilboko Instrukzioko 3 zenbakiko Epaitegian prozedura judizial bat hasi zen tortura-delituagatik, baina haren eginbideak ez ziren gorabehera gabekoak izan: bonba-abisua epaitegian lau polizia-inspektore agertu baino minutu batzuk lehenago, “zerbitzu-arrazoiengatik” justifikatutako ez-agertzeak eta Bilboko Poliziaren Buruzagitza Nagusiak sustatutako beste atzerapen-maniobra batzuk, prozeduraren porrota bilatzen zutenak. Azkenik, X.O.R.k bere erasotzaileetako hiru errekonozitu ahal izan zituen, eta akusatuen aulkian amaitu zuten.

Prozesu judiziala oztopatzen zuen fronte horretaz gain, X.O.R.k kalbarioa jasan zuen eremu pertsonalean, zeinak bi urte inguru iraun baitzuen, gaueko telefono-dei ugariarekin eta etengabeko mehatxuekin. Dei horietan, poliziek bidalitako mehatxuzko mezuak jasotzen zituen, aske geratzen ziren atxilotuen bitartez. Egoera horren ondorioz, 1981ean, X.O.R.k Venezuelan erbesteratzea erabaki zuen, lau urtez. “En los Estados de Derecho, no sé, pero, en los policiales, la maquinaria de la impunidad funciona sin que nadie le dé cuerda”, dio.

Haren abokatuak, Tx. M.k, prozesu judizialarekin jarraitu zuen, oztopo guztien gainetik. Prentsak auziari honako hauek emandako babesa jasotzen du: Abokatuen Elkargoko dekanoa, J.M.V.; Gurutzetako Ospitaleko Enpresa

Batzordeko abokatua, R.C.; eta Medikuen Elkargoko ordezkaria, G.P.G., kereilan sartutako erakundeak baitziren.

Billboko Probintzia Auzitegiko 2. Atalak, 1983ko martxoaren 29an emandako epaian, frogatutako egitateak tortura-delitua zirela iritzi ondoren, salatutako hiru polizietako bi kondenatu zituen, eta honako epaitza hau eman zuen:

“Zigor Kodeko 422. artikuluko lesio-delituarekin eta 493-2 artikuluko mehatxu-delituarekin lotuta, B. eta F. auzipetuak kondenatu behar eta kondenatzen ditugu, tortura-delitu baten egile diren aldetik (204 bis artikuluko 1. paragrafoa), erantzukizun kriminala aldatzen duten inguruabarrak gabe, eta horietako bakoitzarentzat, hauek ezartzea: bost hilabeteko atzipenaldi handia lesioengatik, eta beste bost hilabeteko atzipenaldi handia eta ehun mila pezetako isuna mehatxuengatik (ordaindu ezean berrogeita hamar eguneko ordezeko atzipenaldiarekin); hamar urteko desgaiakuntza berezia (Zigor Kodeko 36. artikuluan aurreikusitako ondorioekin); sufragio-eskubidea eteteko gehigarria (askatasunaz gabetzeko zigorrek irauten duten bitartean); eta dagozkion prozesu-kostuak ordaintzea, bai eta I. jaunak kaltetuari solidarioki eta 156.000 pezetako zenbatekoan ordaintzea ere, kalte-ordain gisa”.

Geroago, Auzitegi Goreneko Zigor-arloko Salak, 1985eko ekainaren 19ko epaian, kondenatutako polizien ordezkariak aurkeztu zuten kasazio-errekurtsioa bidezkoa ez zela ebatzi zuen, eta, horrela, berretsita geratu zen auzialdiko epaia. II. Errepublikatik Espainiako Estatuan torturengatik eman zen lehenengo epai judiziala izan zen.

Epai irmoa izan arren, eta zigorrak oso txikiak izan baziren ere, X.O.R.k geroago jakin zuen polizietako bat ondoren kidegotik kanporatu zutela beste delitu bat egiteagatik, eta bigarren kondenatua komisarioa izatera iritsi zela, Murtzian. Beraz, ondorioztatu ahal izan zuen bi agenteek Polizia Kidegoan jarraitu zutela, eta epaiak ezartzen zuen 10 urteko desgaiakuntzako zigorra ez zela bete.

Ezarritako kondenari zegozkion 156.000 pezetako kalte-ordainak ere ez zituen jaso haiengandik. “Era la primera condena por torturas desde la República y creíamos haber conseguido romper el cerrojo de la impunidad... Pero el sistema tiene muchos resortes”, adierazi zuen X.O.R.k Balorazio Batzorde honetan.

3.7. Biktimentzako eta haien familientzako ondorioak eta sekuelak

Balorazio Batzorde honetan lekukotasuna eman zuten pertsonen galdetu zaie jasandako kalteek nola eragin zuten haien eguneroko zereginetan eta, oro har, haien bizitzan. Hona hemen adierazpen batzuk:

- Errugbia utzi, erretzen hasi eta parrandan gehiago ateratzen hasi zen, eta Zuzenbideko ikasketak utzi zituen. Mina izan zuen barrabiletan, eta arazoak gero gertatu eusteko.
- “Lo vivido allí es inexplicable, inimaginable... A día de hoy, no me entra en la cabeza cómo un ser humano puede generarle a otra persona tanto dolor y sufrimiento”.
- “Organizábamos fiestas vascas y, desde entonces, tenía miedo para hacer cualquier cosa, para aparecer en cualquier... Miedo. Sí”.

- Atxilotutako beste pertsona batzuek jasandako torturekin lotutako albisteren baten berri duenean, egun horietan bizi izan zuen sufrimendu guztia gogoratzen du.
- Tratu txar haren ondorioei buruz galdetuta, bai M.k bai C.k bai haien kideek esaten dute ez dutela gertakari hura ahaztu. Ondoren, beldur izan dira Guardia Zibilak berriz atxilotuko ote zituen eta egoera berean egon beharko ote zuten. Beldur horren eraginez, gertakaria berriro bizitzen zuten errepideko polizia-kontrol batean atxikitzen zituzten bakoitzean...
- Ondoren, denbora batez, telefono-deiak jaso zituen etxean, eta, telefonoa hartuta, pertsona baten arnasketa baino ez zuen entzuten.
- Martutenen hilabetez preso egon ondoren, lana galdu zuen. Langabezian egon zen urtean, deprimituta egon zen, eta anai-arreben laguntza ekonomikoa jaso zuen.
- Aske geratu bezain laster, J.J.k, beste 17 lankidek bezala, enpresaren kaleratze-gutuna jaso zuen.
- Buruan jasotako kolpeen ondorioz, tinpanoa zulatuta zeukan, eta etengabe zornea zerion. Hala ere, ez zuen mediku-laguntzarik jaso espetxean. Bi urte igaro arte ez zen hasi tratamendua jasotzen, poliklinikan, A. doktoarearekin, zeina hilda baitago jada. Hiru ebakuntza kirurgiko egin behar izan zituen; hala ere, gaur egun, S. doktoarearen zaintzapean jarraitzen du.
- Esku-ahurretan erredurak eta eskumuturretan lesioak zituenez, ezin izan zuen abokatuaren eskua estutu ere egin espetxera bisita egitera joan zitzaionean. Oinazpiak ere oso minduta eta puztuta izan zituela dio. Atxiloketa hartan jasotako tratu txarrek epe luzera eragindakoa ondorioei buruz galdetu zitzaionean, adierazi zuen bizkarreko arazoak izan dituela, eta bizkarrezurreko hiru ebakuntza behar izan dituela.
- Dioenez, geroago, bai soldadutzan bai bizitza pertsonalean poliziaren jazarpenaren biktima izan zen, eta ezin izan zuen bizitza normalik izan, ezta lasaitasunez lan egin ere. Etxea hainbat aldiz miatu zioten. Guardia Zibilak, une hartan, kaleratzeko iradoki zion haren ugazabari. Hau esan zidaten: “te tengo que echar porque me han venido para obligarme a hacerlo”.
- Gaur egun, prentsan tortura-testigantzen bat entzuten edo irakurtzen duen bakoitzean, bere kasua bizitzen du berriro, larritasunez. “Desde entonces, hay una sensación en mi cuerpo que no puedo explicar”. Ez du inoiz laguntza profesionalik eskatu gertaera hura gainditzeko, senideren batek iradoki dion arren. “Había oído que pasaban esas cosas, pero no me imaginaba... Es que, de verdad, ¡me quise morir por lo menos dos veces!”.
- Gertakarien ondoren, ondorio fisikoa alde batera utzita, esaten du beldurra sentitu zuela Indautxuko polizia-etxera joateko deitu ziotenean, eta anaiari eskatu behar izan ziola berarekin joateko. Adierazten du ezen, behar-beharrezkoa ez bada, polizia-etxe horren aurretik pasatzea saihesten duela, ibilbidea aldatuz.

- Hilabete haietan jasandako guztia gorabehera, K. jaunak uste du bizitzak zentzua duela eta bere sinesmen ideologikoak edo espiritualak oso lagungarriak izan zaizkiola egoera zailei aurre egiteko. Adierazi du batzuetan ez dagoela hitzik sufrimendua eta horrelako izugarrikeriak adierazteko. Egiaztatu dugu alerta- eta hiperzaintza-egoerak jasaten dituela esperientzia traumatiko hura gogora ekartzen dioten egoeretan. Gaur egun, poliziaren presentziak urduritasuna eta ondoeza eragiten dizkio.
- R. arrebak baieztatzen du gurasoak tristura sakon batean murgilduta geratu zirela, etxe osoa hartzen zuena. G., aita, bajaran egon zen, sei hilabete inguru. M. eta R. M. gazteak izan arren, etxe hartan musika entzuteari edo telebista pizteari utzi zioten, denboraldi luze batez. “Mi madre era rubia, de ojos azules. El pelo se le quedó gris y los ojos también. Mi madre no ha vuelto a ser... Todos los días de su vida se acordaba de él”.
- Ez zen epaiketarik egin, eta horrek ziurgabetasun-egoeran eduki zuen denbora luzez. Atxiloketa haren ondorioei buruz galdetuta, esan du ezen, aurrekariak kontuan hartuta, ezin izan zuela galdaragile gisa gehiago lan egin obra publikoetan, normalean Guardia Zibilak zaintzen baitzituen, eta, horrela, galdaragintza-tailer txikietara mugatu zituela bere lan-aukerak. Espetxetik irten ondoren, pertsona batzuk urrundu egin ziren beragandik: “...hay muchas personas alrededor que, como el que pierde un cliente en el bar, no sabes por qué, ya no vuelve, pero lo has perdido. Entonces, esa parte es la que realmente me jodió la vida”. Ondoren, bere garbiketa-enpresa sortu zuen, eta, noizbait, La Salveko kuartelean lan egitea egokitu zitzaion.
- Psikologikoki gaizki zegoen, eta espetxeko botika-kutxatik lasaigarriak ematen zizkieten, medikuaren agindurik gabe. Atxiloketa haren ondorioei buruz galdetuta, R.k adierazten du aurpegiaren ezkeraldea ubelduta eduki zuela. Lo hartzeko arazoak izan ditu luzaroan. Ezin zion utzi tiro hotsak entzuteari, ezta gertatutakoaren ondorioetan pentsatzeari ere. Gaurdaino, lau lagun heriotzaren erantzule sentitzen da, neurri batean. Gustatuko litzaioke gertatutakoa beste modu batera onartu eta hobeto eramatea. R.k ez du inoiz laguntza psikologiko profesionalik jaso.
- Preso gehienek bezala, antsietate-krisiak izan zituen, baina ez daki atxilotetarekin edo espetxean egotearekin lotuta zeuden. “He tenido ataques de ansiedad fuertes. Además, que duran semanas”. Askatu zutenean, arindu egin ziren, baina, behin, autobusean zihoala, berriro gertatu zitzaion. Ez zuen inolako laguntza psikologikorik jaso.
- Dioenez, atxilotu zutenetik zazpi egun igaro ondoren, bere gogo-aldarteak eta negarrak deklarazio judiziala amaitzea ere eragotzi zioten. Kargurik gabe askatu zuten.
- Behin kalean zegoela, sarekada berean atxilotuetako beste birekin topo egin zuen, haiek ere libre geratu baitziren. Ondoren, jakin zuten Bakioko beste hiru lagun artean atxilo zeudela. Aske igarotako lehen gau hartan dei bat jaso zuen, beste bi pertsonarekin Bilboko Toledo kafetegira joateko, Domínguez polizia han egongo zela esanez. Nolabaiteko ezinegonarekin, hitzordu horretara joan ziren, baina ez zen inor azaldu. Beldurrak hartu zuen J.I. denboraldi batez, eta, berriz ere atxilotuko zuten beldurrez, egun

batzuetan anaiaren etxean lo egin zuen. Antsietateak eraginez, halaber, Bakioko Udalean atxilotetei buruzko udal-mozio bat aurkeztu zenean, J.I. ez zen ausartu gertakari horiei buruz asko hitz egitera. “Tenía más miedo que miedo”. Horren guztiaren ondorio nagusia geratu zitzaion beldurra izan zen: “De vez en cuando el teléfono sonaba y sonaba... Yo, no podía coger el teléfono, claro, eso era imposible. Yo me escapaba cada vez que sonaba el teléfono. ¡Bu ! Me escapaba por ahí, no podía estar...”. Bai bera bai Bakioko gazteak jabetzen ziren Guardia Zibilaren UAR (Landa Ekintzako Unitatea) herrian zebilela. Behin, beste pertsona batzuekin batera **txabola** batera eraman zuten, eta han biluztu egin zituzten. Barruko arropa soilik jantzita, hormaren kontra eta eskuak gora zituztela, burlaka eta ukituak eginez aritu ziren bi ordu inguruan. Herriko gazte askok diote horren antzeko gertakariak nozitu zituztela, atxilotu eta espetxera eramateko mehatxupean beti.

- Alabak gogoan du film batean bezala bizi izan zuela, gero bakarrik sentitzearen esperientzia, etxea jendez beteta zegoen arren: “alguien que me viniera a preguntar cómo estás. ¡Nadie! Es que la situación era muy caótica... ¡era muy rara!”.
- Errenteriako Udalak atezain lanpostua eskaini zion arren, J.I.k muga handiak zituen ibiltzeko eta ordu luzez eserita egoteko. Geroago, udal titulartasuneko Niessen kultur etxera aldatu zuten. Haren egoera ikusita, eta behin eta berriz laneko bajak izan ondoren, ezintasun iraunkor osoa aitortu zioten azkenean. Ezintasun iraunkor absolutua, berriz, hil eta gero onartu zioten, 52 urterekin hil baitzen. J.I.ren ondorio fisiko iraunkorrak alde batera utzita, senar-emazteek jasandako atentatua tabu izan zen familian. Damu zai e hainbeste denbora isilik eduki izana eta bizitakoa ulertzen eta gainditzen laguntzeko tresnarik eduki ez izana. “Es muy desesperante que toda la familia se haya quedado trastocada y que no haya habido ayuda, apoyo, dirección... ¡algo!”.
- Atxilotetetan jasandako tortura larriek, zeinak Espediente honen gaia baitira, lana eta bizitza osoa baldintzatu dioten ondorioak utzi zizkieten. Harrezkero, tratamendu psikoterapeutikoa jasotzen du. Etengabeko larritasun-krisiek eta izu-atakeek eragindako laneko baja luzearen ondorioz, enplegatu publiko gisa zuen lanpostura itzuli zen.

Ondorioak eta sekuelak

M.J.U.U.ren testigantza – 1982ko abenduaren 30a

Guardia Zibilaren Komandantzian zazpi egun izugarri eman ondoren, aske utzi zuten, kargurik gabe eta epailearen esku utzi gabe, 1982ko abenduaren 30ean. Antigua auzoko espaloi batean eserita utzi zuten. Halakoa zen haren egoera fisiko eta gogo-aldarte, non kalean bakarrik eta erdi joanda baitzegoen, kontatu diotenez, ez baita gogoratzeko gai.

Antza denez, haren lagun A.G.C. ere aske utzi zuten kargurik gabe, eta hark lagundu zion erreakzionatzen. Donostiako Ospitale Onkologikora eraman zuten zuzenean. Bertan, Amnistia Internazionalako pertsona batek lagun egin zion, eta Torturaren aurkako Medikuek taldeko kideek odol-analisiak eta osasun-azterketa bat egin zizkieten. Egiaztatu zutenez, M.J.U.U. deshidratazioz shock bat izateko zorian zegoen. 10 eta 12 kilo bitarte galdu zituen, 78 kg-tik 66ra igaro baitzen, gutxi gorabehera.

Ahal izan orduko, psikoterapia-tratamendua jaso zuen Sabino Ayestarán doktorearen kontsultan, bospasei urtez. Ondoren, ahal izan zuen moduan kudeatu zituen sortu zitzaizkion larritasun-krisiak eta izu-atakeak: “Mucho apretar los dientes y control-alerta exagerados”. Oso lanpetuta eduki zuen bere burua, egoera saihesteko ahaleaginean: “Metiéndome en muchas cosas para estar ocupado y no sentir demasiado”.

Hala ere, 2006an, “hice crack y me dieron la baja”. Mondragon Unibertsitateko departamentuko burua zela, gainezka egin eta hautsi egin zen, pentsamendu suizidak izateraino. “Estuve en un puente, delante de un río en inundaciones y, por suerte, decidí que no iban a poder conmigo”. Fernando Pradesekin egon zen tratamendu psikiatrikoan, eta antsiolitikoak eta antidepresiboak agindu zizkion, “y alguna otra cosa más, y me fue cambiando”.

Aldi berean, J.O. de M.k tratatu zuen psikoterapian, horrelako nahasmenduetan espezialista baitzen, Itziar Landabururen laguntzarekin, terrorismoaren biktimekin lan egiten baitzuen. Bajak 18 hilabete iraun zuen. “Llegué a un acuerdo con Mondragon Unibertsitatea porque no me encontraba en condiciones y me quedé en casa. A los meses me convencieron para volver al Gobierno Vasco, volví a trabajar, pero de otra manera, sin responsabilidades”.

Adierazi duenez, batzuetan, ezusteko egoeretan, “cuando menos lo espero, me vuelven las sensaciones de cuando me torturaban, y me supera, y lo paso mal. Entro en una situación de mucha angustia y pánico, tengo que dejar lo que estoy haciendo y tomar alguna pastilla, hacer ejercicio de relajación, pasear o lo que pueda. También tengo noches malas de vez en cuando”.

Gaur egun, M.J.U.U.k tratamendu psikologikoa jasotzen du astero J.O.de M. doktorearekin, kontsulta pribatuan. Farmako antsiolitiko bat dauka aginduta, eskatu ahala hartzeko. Une jakin batzuetan, psikiatra pribatu batengana jo behar izan du, eta egoerak gainditzen duenetan, astebetetik hamar egunera bitarteko laneko baja agintzen zaio.

- Bolada batez erasotzailearen aurpegia etortzen zitzaion gogora, eta ez zuen jasaten Guardia Zibila ikustea. Gaur egun ere gaitzondo hori sentitzen du, neurri batean. Dioenez, ez da gorrotoa, ezintasuna baizik. Bidegabea iruditzen zaio, etxean zegoela, istiluetan parte hartu gabe, guardia zibil batek leiho batera apuntatu ahal izatea eta, atzean nor zegoen jakin gabe, tiro egitea: “Es algo que se ha quedado ahí grabado... tú: 16 años... ¿Qué estás haciendo, tío? Estás en tu casa. ¿Por qué te tienen que pegar un tiro en tu casa? ¿Qué has hecho?”. H.L.O.k ez du itxaropenik norbaitek barkamena eskatzeko. “Nunca se hizo justicia. Nunca... Nada... ni un hola, ni un adiós, ni un perdona, pero bueno... ¿cómo van a pedir perdón?, ¿por Dios! ¿Cómo van a pedir perdón? ¡Es imposible! Nunca lo pedirán, ¿no?”.
- Egun haietan bizitakoaren ondorioei buruz galdetuta, J.T.E.k adierazten du hiltzeko gogoa sentitu zuela behin baino gehiagotan. Atxilotu ondoren, etengabe jaso zituen telefono-deiak. Gainera, gerora, lo hartzeko arazoak izan zituen, hiper-alerta eta urduritasun egoeran baitzegoen.
- Auzitegi Nazionaleko epailearenetik igaro eta aske geratu ondoren, ez zen lan egiteko gai, eta, ondorioz, hilabete inguruko baja hartu zuen, oporraldiari gehituta.

Min fisiko amaitu zen arren, denbora batez, D.k eta emazteak senide baten etxean lo egiten zuten, etxean lo egiteko gai ez zela sentitzen zuelako. Harrezkero, dardarizoa, amesgaiztoak eta lotarako arazoak izan ditu. Familiamedikuak aholkatuta, 2019an psikologo batengana joan zen, eta haren egoera hobetu zuen, antidepressiboen bidezko tratamenduari esker.

- I.I.B.k bi aste inguru eman zituen bajaran. Atxiloketaren ondoren, beldurra eta ezinegona lagun zituen, baita lo hartzeko arazoak ere. Ondorioz, medikazioaren beharra izan zuen. Berak “fase iluna” deitzen duenean sartu zen, depresio moduko batean, eta bost urte inguru behar izan zituen handik ateratzeko. Garai hartan, norbait atxilotzen zuten bakoitzean –gertuko pertsonak ziren batzuetan–, urduri jartzen zen, pentsatzen zuelako berriro etorriko zirela bere bila. Gaueko edozein zaratak bizitako egoera gogorarazten zion, eta beldurtu egiten zen. Psikologo baten laguntza izan zuen arren, dioenez beldurrak bizi izan zen, ETArek amaieraren ondoren atxiloketa masiboak amaitu ziren arte.
- Probaldian zegoenez eta, atxilotuta zegoelako, lanera joan ez zenez, berehala kanporatu zuten lanean hasi berria zen enpresatik. Espetxetik ateratakoan, alerta-egoera moduko batean bizi zen. Oso festazalea izatetik, pertsona asko elkartzen ziren lekuetan itolarria sentitzera igaro zen. Gaur egun, oraindik ere, tabernetan sartzen denean, ateari begira jartzen da beti. Atxiloketak eta espetxeratzeak jendartean izandako oihartzunak bilatu gabeko protagonismo publikoa gehitu zion familiaren saminari, oso kezkatuta baitzegoen E.O.ren egoeraz, atxiloketa bortitz haren lekuko izan ondoren. E.O.k adierazten du nolabaiteko erruduntasun-sentimendua izan duela bere familiak sufritu duelako.
- Atxiloketa haren ondorioei buruz galdetuta, U.Z.k adierazten du ezen, ondorio fisikori izan ez bazuen ere, denbora luzez oso gaizki pasatu zuela eta urduri eta beldurrez bizi izan zuela Donostian eta, zehazkiago, Parte Zaharrean egiten zen atxiloketa bakoitza, zeren eta pentsatzen baitzuen edozein unetan bere bila itzul zitezkeela eta egoera errepikatu zitezkeela. Esaldi adierazgarri honekin adierazten du: “No he sido el de antes. He tenido mucho miedo”. Gerora, ez du egitate harekin zerikusia duen aipatzeko moduko arazorik izan poliziarekin, nahiz eta inoiz irainak bota izan dizkioten agente batzuek kale-iskanbilaren batean errekonozitu izan dutenean.
- Burua estalita eta lepotik helduta, giza ezkutu gisa erabili zuten etxebizitzako gela guztietara sartzeko, eta balkoietara eta armairuetara ere sartu ziren, lau lekukoak agertu baino lehen, etxea haien aurrean miatu behar bazen ere. Antza denez, auzoko beste P. baten bila zebiltzan, ihes egina baitzen. Alabak 8 urte zituen artean, eta asko larritu zen; horregatik, berehala eraman zuten handik. ... Eta gero beste P. hura eraman zuten. Atxiloketa hartan jasotako tratua ondorioei buruz galdetuta, esaten du ez dakiela noraino baldintzatu zuen horrek guztiak bere bizitza, nahiz eta susmatzen duen alabarengan eragina izan zuela; izan ere, litekeena da atxiloketaren egunean gertatutakoa bizitzeagatik hark sentitutako amorruek ondorengo erabakiak eta bizitza baldintzatu izana.
- Denbora luzez, bizkarreko mina izan zuen, eta jarrera-arazoak eta sekuelak oinean eta hankan. Sei hilabete geroago, alaba jaio zela–eta Martuteneko espetxera eraman zutenean, kontsulta bat eskatu zuen Donostiako ospitalean, eta ebakuntza egin zioten, baina errehabilitazioa ez da guztiz ona izan.

- Inkomunikazio-erregimenean bizi izandako segurtasunik eza ikaragarriak eragindako zauri psikologikoetatik beste presoek esker sendatu zen; izan ere, tratamendu farmakologikoa saihestea gomendatu zioten, antsiolitiko eta lasaigarrietan oinarritzen baitzen. Hala ere, uste du torturaren esperientzia betiko geratzen dela pertsonaren barruan eta oroimenean. Bere kasuan, M.E.M.k gertakari hura kontatzen eta berrikusten duen une jakin batzuetan sentitzen duen larritasunak bere gain daraman kargaren jakitun egiten du.
- Bost egunez atxilotuta eta inkomunikatuta egon ondoren, Poliziak aske utzi zuen, zuzenean, epailearen esku jarri gabe. A. alabak oso ondo gogoratzen du nola iritsi zen aita etxera egun hartan: “(...) sería el quinto día de detención, y recuerdo que llamó para pagar al taxi y nos asomamos, y lo que sí tengo grabado es él bajando del taxi irreconocible, con unas zapatillas de casa, todo encorvado, doblado, con barba... Mi padre tenía una barba que se tenía que afeitarse todos los días, con barba de cinco días pues... pues una persona doblada bajo una manta. Pues así le vimos llegar, hecho un Cristo”.
- Kontatutako guztiaren ondorioei dagokienez, esaten du kostatuta egin zitzaiola, baina, azkenean, kontsulta psikologiko pribatu batera joan zela. Gai horri dagokionez, uste du sare publikoak baliabide gehiago jarri beharko lituzkeela kasu horietarako ere. “Al final, unos amigos me dijeron que tenía que ir, que no podía seguir así. He tenido problemas con el alcohol, también, gorabeheras y...”. Kontatzen du, halaber, etxetik aldatu behar izan zutela emazteak etxean egoteko beldur jasanezina zuelako eta berari emaztea horrela sufritzen ikusteak larritasuna eragiten ziolako. Dioenez, torturari buruzko albisteak edo lekukotzak entzuteak hunkitu egiten du, eta ezin du jasan.
- Batzordearen aurrean, elkarrizketatuak adierazi zuen apurtuta sentitu zela, hitzez hitz, *crack* bat nabaritu zuela, barrutik hil izan balute bezala. Amaitzeko, bizitza suntsitzea lortu zutela esan du. Etxera itzultzea ere gogorra izan zen, espetxetik irten zenean. Egunez ez zuen arazorik, baina gaua iristean “izugarria zen”, ezin zuen lo egin, eta, J.E. etxean ez bazegoen, ikararaz egoten zen, pisuan bakarrik baino nahiago zuen kalean egon. Orduan konturatu zen laguntza profesionala behar zuela, eta terapiara joan zen. Kostatuta egin zitzaien horrelako traumatizazioaren esperientzia zuten psikologo eta psikiatra egokiak aurkitzea, baina lortu zuen. Bere onera etortzen lagundu zioten, gertatutakoaren erantzule ez zela ulertzen, bera biktima zela. E.B.A.k dio bizitza salbatu ziotela. Azkenean, etxebizitzaz aldatu ziren, baina Santurtzin bizitzen jarraitzen dute.
- Aske geratu ondoren, I.Z.O. astero joan zen terapiara, gutxi gorabehera urtebetez. Han, esperientzia traumatiko hura partekatu eta landu egin ahal izan zuen, eta laguntza psikologikoa jaso zuen, alta eman zioten arte. Bere bizitzarekin jarraitu zuen eta Psikologia ikasi zuen. Gertakari horietatik guztietatik, nabarmen du umiliazioak eta degradazio sexual eta moralak nabarmen gaititu zutela harekin erabilitako indarkeria fisikoa. Epaiketara sartu egin zuten, eta kontzientzia lasai duen arren, ez du garai hartaz hitz egiten.
- Adierazten du erabateko mesfidantz duela edozein polizia-kidegorekiko, eta ez duela gustuko Euskaditik ateratzea, Poliziarekin izan ditzakeen konplikazioengatik. Bere bizitzako gertaera hura ahazten saiatu dela dio, baina erabat lortu gabe; oroitzapenak irauten du, hor dago beti.

- Tratu txar haren ondorioez galdetuta, P.Z.k dio amets desatseginak dituela oraindik, batez ere kartzelarekin, polizia-etxeko egonaldiarekin baino gehiago.
- M.P.F.k triste azaltzen du atxiloketa hark bere izena zikindu zuela, eta “alferrik” izan zela, berak ez zuelako inolako harremanik ETArekin. Saminez gogoratzen du zer izan zen gertaera hori amarentzat: “Mi madre no lo olvidó, seguro, mi madre... era lo que más le dolía”.
- I.A.G.k adierazten du atxiloketak iraun zuen hiru egunetan bederatzi kilo galdu zituela. Geroztik, datak gogoratzeko zailtasunak ditu. 27 urterekin, espetxean zegoela, obarioetan arazoak izaten hasi zen, eta aurremenopausia bat izan zuen, bizi izandako estres larriari egozten diona. (...) Isolamenduak, ziegaren etengabeko miaketek edo normaltasunez atseden hartzea eragozteak osasun psikikoa kaltetu zioten azkenean.
- Tratamendu terapeutikoan sei urte eman ondoren, hotza, beldurra, zikinkeria eta tankerako sentsazioak dituela dio, eta, batez ere, nolabaiteko tristura eta kaltetua izatearen sentimendua, gertakari horiei lotuta. I.I.S.k ez du asko hitz egin gai horri buruz bere ingurunean. Ez daki gurasoek nola bizi izan zuten; izan ere, amarekin hitz egiten saiatu denean Polizia etxean agertu izanari buruzko zenbait xehetasun lortzeko, berak uko egin dio une hura berriz bizitzeari.
- Hasiera-hasieratik, guardia zibilak etxean sartzean, E.L.B.k bere sinadura erdizka zuri zegoen paper batean jartzea nahi zuten. Aitak aholkatuta, hasiera batean ez zuen sinatu nahi izan, baina azkenean onartu egin zuen. Aita-seekek euskaraz hitz egiten zutenean, gaztelaniaz hitz egiteko agintzen zieten oihuka. Dioenez, une hartan, agenteetako batzuk drogatuta zeudela zirudien.
- Urteetan zehar errementari gisa lana eman zioten kontratistetakako batzuek hori egiteari utzi zioten eta, ondorioz, haren jarduera ekonomikoa jaitsi egin zen. ETArekin zerikusia izan zezakeelako susmoaren aurrean, herrikide batzuek arraro begiratzen zioten, eta agurtzeari ere utzi zioten. Psikologikoki, jota zegoen, zaintzapean sentitzen zen, eta “sin confianz para nada. Desasosiego... Nada. No me conocía a mí mismo; actuaba diferente, sin quererlo”. Dioenez ez zen gustura sentitzen, eta buruan absentziak izango balitu bezala nabaritzen zuen. “Yo, la verdad, en aquellos días no entendía mi situación. No entendía por qué, si yo no tengo nada que ver con ellos, por qué tengo que pagar. Eso no lo entendía, pero tocó así y punto. Una vez pasado, ¿qué le vas a hacer? Ya está pasado y punto. Mi objetivo era salir de allí lo antes posible y trabajar. Cada día, perdía un montón de dinero, tenía los mismos gastos y había que pagar”.
- J.A.S.G.k dio ukalezina dela gertakari tragiko horrek ekarritako eragin psikologikoa. Galdu du denboraren joanak hainbesteko sufrimenduaren oroitzapena ezabatzeko itxaropena, horrekin bizitzen ikastea baino ez da geratzen. Fisikoki, 10 egun horietan 10 kilo galdu zituela aipatzen du, eta eztarran edo aurpegian eta gorputzeko beste atal batzuetan izandako zauriak sendatzen joan zirela. Atxiloketaren ondorengo hilabeteak “nebulosa bat” bezala deskribatzen ditu, baina, bere kideen laguntzarekin, politikan militatzeko gogo berpiztea lortu zuen, hurrengo hauteskundeetan zinegotzi gisa aurkezteraino eta bere alderdiko (Euskadiko Ezkerra) zuzendaritzan sartzeraino.

- G.M.M.k adierazi du oso jota atera zela atxiloketa hartatik, eta inoiz ez zela berriro bera izan. “No aguantaba las tonterías, no me gustaban los chistes, no me gustaba ver reír a la gente ...”. Espetxean tratamendu psikiatrikoa behar izan zuen, baita ondoren ere. Aske geratu zenean, Osakidetzako profesional baten laguntza psikologikoa jaso zuen, bai eta berak lan egiten zuen zentro psikiatrikoko profesionalen laguntza ere, espetxetik irtendakoan hara itzuli baitzen, lan egitera. Hala ere, dioenez, bizipoza galdu zuen, eta hori oso nabarmena da haren familiarentzat eta seme-alabentzat. Beldurraren eta beste emozio batzuen ondorioz, etxebizitzaz aldatu behar izan zuten, Guardia Zibilaren Zarauzko kuartelaren ondoan bizi baitzen. Era berean, nolabaiteko gaitzespen soziala sentitu zuen herriko pertsonen aldetik, berak zerbait txarra egingo zuela uste baitzuten.
- KREIri, 2014ko azaroaren 12ko datarekin, eman zion testigantza idatzian, S.Z.B.k adierazten du atxiloketaren ondorioz bere tailerra porrotera eramán zutela eta ondorio fisiko eta psikologikoak izan zituela. Harrezkero, 20 urte igaro ondoren ere, gau batzuetan izerditan blai eta oiñu egiteko zorian esnatzen omen da, arratoiaren gertakaria gogora etortzen zaionean. (...) 56 urte zituen Poliziak 1987an atxilotu eta Indautxuko polizia-etxean ankerki torturatu zutenean. Eragiten ari zitzaizkion sufrimendua jasaten ez zuenez, poliziak oharkabetu ziren une batean bere burua bota zuen Bilboko Poliziaren Buruzagitza Nagusiaren eskailera-zulotik. Hamaika egun eman zituen inkomunikatuta (hiru polizia-etxean eta zortzi Basurtuko Ospitalean).

Pertsona atxilotua “sator” bihurtzeko ahaleginak”

U.A.ren lekukotasuna 1992ko abenduaren 16a eta ondorengo urteak

U.A.k lana galdu zuen eta, kargurik gabe libre geratu arren, beste infernu bat bizitzen hasi zen. Askatu eta astebetera, “Carlos” agentea telefonoz jazartzen hasi zitzaion; hain zuzen ere atxiloketan “polizia onarena” egin zuen agentea. Guardia zibil horrek senideren bat atxilotzeko mehatxua egiten zion etengabe, Zarautzera hitzordu batera joateko amore ematea lortu zuen arte.

Hitzordu hartan, U.A.k ETAn sator gisa sartzeko proposamena jaso zuen. Berak irmotasunez baztertu zuen hori une hartan, bai eta gero ere, behin baino gehiagotan. Hainbat urtez jarraitu zuen jazarpen polizialak, eskaera hari men egin ziezaion. “Baina, nire bizitza urte horietan infernua zen. Ezin izan nintzen ezertan kontzentratu, ezin nuen ezer egin... Con un añadido, porque banekien beste aldetikan era bazegoela jendea moskeatuta –a ver a éste por qué lo han soltado / ¿Qué hace éste en la calle? Claro, ni nengoen hor, bi suen artean.... eta zeuden egunak etxetik ateratzen nintzela eta bi aldetara begiratzen nuela, no sabía por dónde me podía venir la hostia. / Aquello duró años. [“Mi vida, esos años, fue un infierno. No podía concentrarme ni hacer nada. Con el añadido de que sabía que, por el otro lado, había gente mosqueada preguntándose por qué me habían soltado o qué hacía yo en la calle. Claro, me encontraba entre dos fuegos. Había días que salía de casa y miraba a todos lados, sin saber por dónde podría venir la hostia”].

Laguntzeari uko egin zionez, behin, 1995eko udaberrian, pistolaz mehatxatuz ibilgailu batera sartu zuten, eta Orioko Bentara eramán, Igeldo mendian. Han, “polizia onaren” lankidetzak jaso zituen berriz ere,

lan baten truke. “Te vamos a dar trabajo, no te va a faltar seguridad, no le va a pasar nada a nadie, pero vas a tener que colaborar con nosotros. Como no colabores, ¡date por jodido! Pero no tú: ¡tú, tu familia, tus amigos...! Sabemos dónde trabaja tu mujer. Tu madre cualquier día aparece flotando en el muelle...”. Halaber, esan zioten bazutela han bertan tiro bat ematea eta, ondoren, edozein justifikazio, kontu-garbiketa edo antzeko zerbait, asmatzea. U.A.k behin eta berriz uko egin zion ETAn topo gisa sartzeko eskaerari, eta orduan zaplazteko izugarri bat jaso zuen. “Yo, lloraba... Y me decía: Ya lo siento U.A., a mí me han obligado... pero lo tienes que pensar porque, si no, sabes lo que va a pasar”. Egoera hartan, U.A.k ez zuen nahi izan guardia zibilek etxera eramatea, eta, beraz, abailduta, oinez eta bakarrik egin zituen Orioko Bentatik bere etxera bitarteko kilometroak.

Bazekien zelatatu egiten zutela; “Carlos” “polizia zintzoak” berak egiaztatu zion: “Yo he estado en el Cine Astoria viendo esta película contigo y con tu chavala. Sé todos tus movimientos: sé dónde trabajas, dónde comes, dónde esto... quiénes son tus amigos...”. Egun haietan izaten zuen beldurrarekin, beti norbait berekin egotea bilatzen zuen, edo tabernaz taberna ibiltzen zen, bakarrik egoteko beldurrez. Gutxi lo egiten zuen eta ganora gutxi zuen, eta horrek etxekoak nahasten zituen, baina, azkenean, haren portaera ulertu zuten, U.A.k jasotako hertsapenaren eta igarotako larritasunaren berri eman baitzuen, lehen aldiz, hainbat urte igaro eta gero.

Salaketa batek aurrera egiteko aukera gutxi zituela ikusita, bikotekideak eta aitak lagunduta eta Iñaki Esnaola abokatuak aholkatuta, bizi izandako gertakariaren deklarazioa egin eta Gipuzkoako hiriburuko epaitegian gordailutu zuen, 1995ean. Horren ondoren, jazarpena eten bazen ere, aldizka U.A.ri jarraipenenak egiten jarraitu zuten.

2001ean, bere etxetik gertu atxiki zuten polizia nazionalek, eta, haiekin joateari uko egin zionez, kalean bertan galdekatu zuten aurretik izan zituen atxiloketei buruz. Gainera, ibilgailua miatu zioten preso zegoen lagun bat bisitatzeraz joan zen aldiren batean.

Arrastoak

Ondoren, indarkeria jasan zuten jesuitekin lotutako pertsonen parte hartzeko Jesusen Konpainiak sortutako batzorde batean parte hartu zuenean, U.A.k lehen aldiz kontaktu zuen esperientzia hori familiaratik kanpo, eta horrek, liberazio bat izan bazen ere, barruak mugiarazi zizkion; ondorioz, depresio sakon batean murgildu zen, zeinetatik urte eta erdiko tratamenduaren ondoren atera baitzen.

U.A.k dio gertaera haien ondorioek irauten dutela gaur egun ere. Etxean aldaketa batzuk egin behar izan ditu; izan ere, gauez igogailuaren hotsa edo beste edozein zarata entzuteak muturreko alerta-egoera eragin dio, zeina ezin izan baitu desaktibatu. Leku publikoren batean dagoen bakoitzean, ateari begira jartzen da, zelatan. Esaten du askotan lo hartu ezinik eta egitate haien oroitzapenen gurpilean sartuta egoten dela.

Emazteak adierazten duenez, U.A. oraindik ere amesgaiztoekin esnatzen da, eta amesgaizto horietan jarraitzen du ikusten guardia zibil hura, bere aurpegia sekula ahaztuko ez zuela zin egin ziona. Bolada bat pasa zuen beldurraren eraginez lo hartu ezinik: “Tras quedar libre, no podía dormir

del miedo. ¡Miedo!, además, sabiendo que habían detenido a la persona que yo nombré ante ellos, ¡pu !”.

Gaur egun familia- eta lan-inguruneak babesten duela sentitzen badu ere, adierazten du denbora luzez isilik egon zela, bere egoeraz hitz egin gabe, gaizki ulertuko zutelakoan. “Mira, mejor no decir nada porque, encima, eres malo... si te han detenido, por algo será”. Halaber, ingurukoak babestu nahi zituen gertakari horiek eragindakoko mina eta zama jasatetik.

Egoitza judizialean kontatu zituen Guardia Zibilak egiten zizkion presio, mehatxu eta derrigortzeak. Salaketak ez zuen ibilbide luzerik egin, baina balio izan zion modu pertsonalean.

3.8. Elementu eta gertaera positiboak ere badaude.

Orain arte aipatutako beldur-, ziurgabetasun- eta desoreka-egoerak bizi izan ez dituenak agian ez du ulertuko jarraian aipatzen diren laguntzen, egoeren eta keinuen garrantzia. “La pena es que no fueran más”, esan zuen biktima batek Batzordean.

- Kaleratu eta urtebete lanik gabe egon ondoren, enpresako jabeak lana eman zion B.ri, haren historia gorabehera: “Ya sé quién eres, pero a pesar de todo, si quieres, ven”. Ordurako, B.k jarduera sindikal guztiak utzita zeuzkan.
- Kideen eta familiaren laguntza sentitu eta jaso zuen.
- Era berean, J.A.P. konturatu zen bazegoela guardia zibil bat itxuraz, gaizki pasatzen ari zena torturak ikusten.
- Aurrerago, beste enplegu batetik ere bota zezaten saiatu ziren, baina, orduan, arduradunak uko egin zion, J.A.P.ek delitu larririk egin ez zuela argudiatuta (EGIren siglak margotzen ari zela atxilotu zuten).
- Atentatuaren ondorioak gainditzeko laguntza psikologikorik jaso ez bazuen ere, familiak uste du terapia onena beste elbarri batzuei laguntzea izan zela. “El médico le llamaba para decirle, por ejemplo, que había un paciente que había superado las heridas pero que se había atascado en el momento porque había perdido un brazo, una pierna..., y le solía pedir que se entrevistase con él, si es que podían quedar, y entonces venían a casa, se iban a la habitación, se quitaban las prótesis y de esa manera le ayudaba a naturalizarlo”.
- Espetxeko esperientzia latzaren gainera, elkartasunaren eta bizi izandako adiskidetasunsentsazioaren oroitzapen ona nagusitzen dira E.O.rengan. Hainbat lekukok egin dituzte antzeko adierazpenak. Espetxean, zenbait psikologo boluntario etorri zitzaizkion bisitan.
- Dioenez, ibilbidean poliziek elkarrekin hitz egiten zuten, berari kasu handirik egin gabe, eta, une jakin batean, enbarazu egiten bazion karatula kentzea eskaini zioten, eta atxilotuak onartu egin zuen. Zorabiatu egin zen, eta burua kristalean jartzeko gomendatu zioten. Madrilera iristean, makur zedila iradoki zioten, prentsak ez grabatzeko.
- U.Z.k eskertzen du entzuna sentitzea, eta bere kontakizunak zerbait positiboa eraikitzen lagun dezan nahi du.

- Espetxera iristean, isolamenduko hiru egunetan, mediku batek bisitatu zuen, eta jasandako torturen berri eman zion. Medikuak haren gorputzean irauten zuten seinale fisiko batzuk jaso zituen bere txostenean. Geroago, epaiketan, dokumentu horrek berebiziko garrantzia izango zuen.
- Gogoratzen du ofiziozko abokatuak poliziekin eztabaidatu zuela J.U.L.ri aurrean jartzen zioten papera sinatzeko eskatu ziotenean: “¡Firma!”. Eta abokatuak esan zien: “¡Pero si va a firma lo que le habéis dado y no lo que él ha dicho!”. “Eso lo recuerdo nítidamente”. Abokatuaren hitzak polizia-etxe hartan bizi izan zuen gizatasun-keinu bakarra izan zela gogoratzen du.

4. Zer eskatzen dioten biktimek Balorazio Batzordeari

Erreparazioaren, egiaren, justiziaren eta berriz ez gertatzeko bermeen arteko zirkulartasuna agerikoa da biktimek, senideak eta haien eskaerak entzuten direnean. Baina gertaerak ezkututzen eta ukatzen direlako sentimendu sakona gailentzen da, egiarik ezarena. Horregatik, biktimek Balorazio Batzorde honi eta txosten honetan aipatutako gertaeretan inplikaturako erakundeei egindako eskaerak aztertu ondoren, eskaera nagusia gertatutakoaren egia aitortzea da, hau da, gertatutakoa onartzea eta tortura ez ukatzea: aitorten instituzional bat. Inplikaturako poliziakidegoek onartzea. Ukatzen jarraitzen bada, biktimizazio bikoitzak jarraituko du, eta ez da sendatuko biktimek, haien familiek eta hurbilekoek jasandako sufrimendua. Horregatik, beste eskaera bat da egia zabaltzea eta ahaztuta ez geratzea. Bakoitzak bere erara adierazten du:

- Oraindik azaleratu ez diren pertsona asko torturatu direla aitortzea. Uste du politikarien esku dagoela tresna horrekikoak egitea, eta urratsak egin daitezen nahi du, inkomunikaziotestu-inguru batean zigorgabetasuna errazten duen egitura legala eta juridikoa desagertzeko.
- Legez kontrako egintza bat egin zela sentitzen du, eta orain hori salatu nahi du bere presentziarekin. Batzorde honetara jo du kalte-ordaina eskatzeko, “legez kanpo atxilotu” zutela uste baitu.
- G.k betebeharrak sozial bat betetzen du: berak eta torturatutako beste pertsona askok jasan dutena azaltzea. Haren helburua historiaren zati ezkutatu hori jasota uztea da, torturaren moduko gertaera larriak berriz gerta ez daitezen.
- Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertuz, J.M.k bere hondar-alea jarri nahi du euskal gatazkari buruzko kontakizunaren egiara iristeko, orain arte osoa izan ez dela uste baitu. Umiltasunez, bere esperientziaren azalpena kontakizun hori aldatzeko prozesuan baliagarria izatea nahi du, orain arte kontuan hartu ez diren gertakari batzuk eta min bat agerian jarritz.
- Bere eskariaren bidez, bere kasua azaldu nahi du, itxaropen zehatzik gabe, eta Batzorde honen esku utzi Batzordeak egokitzat jotzen duen aitortza ematea.
- Argi utzi nahi du ezen, prentsak egun haietan argitaratutakoaren aurka, ez bera ez egoera hartan atxilotutako lazkaotar asko ez zirela ETako militante izan: “Yo jamás milité en ETA, lo único que hice fue tocar el txistu y organizar fiestas vascas. Algunos de los detenidos eran de EGI, no de ETA”.
- J.J.L.k nahi du arduradun instituzionalek aitortu eta argitara ematea herrialde honetako torturaren fenomenoaren benetako dimentsioa. Gainera, biktimei erreparazio sozial, politiko eta instituzional eraginkorra emateko konpromisoa eskatzen du, bai eta tortura ez errepikatzea bermatuko duten mekanismoak ezartzekoa ere.
- Batzorde honen aurrean agertuta, E.k gertatutakoa salatu nahi du, eta horren berri eman, Historian jasota geratzeko. Haren iritziz, garrantzitsua da beste pertsona askorekin batera jasan zituen torturak ez ahaztea.

- Batzorde honi eskaera eginda, J.J.k zer gertatu zen jakin dadin nahi du, eta, ahal den neurrian, “contar la verdad acerca de quienes se sienten impunes y, además, salvadores”.
- J.A.k bere kontakizuna eta garai hartan atxilotutako pertsonekin gertatzen zena ezagutzea nahi du, haietako asko bera baino are okerrago baitzeuden. Haren ustez, gutxienez, hainbeste urteren ondoren, justizia apur bat ekarriko luke atxilotuei tratatu txarrak nolako inpunitatearekin ematen zitzaizaien aitortzeak.
- Gertatutakoaren egia aitortzea nahi du, eta beharrezkotzat jotzen du. Gobernatzen gaituzten erakundeek giza eskubideak babesteko betebeharrean huts egin dutela adieraztea eta torturaren erabileraren gaitzespen publikoa egitea, horietako batzuek hainbat urtetan erabili baitute.
- J.L.S.ren anaiek, ahal den neurrian, kasu honen inguruko zigorgabetasuna amaitzea nahi dute. Entzunak izateko eman zaien aukera eskertu dute, eta beren anaia biktimatzat aitortzea nahi dute. Egiari zor, gertakari horren erantzuleek 1980ko urriaren 15ean benetan zer gertatu zen aitortzeak nahi dute.
- Balorazio Batzorde honetatik espero duenari dagokionez nahasia sentitzen dela adierazi du. Zalantzak ditu biktimaren inguruan; izan ere, militante gisa, badaki arrisku bat hartu zuela.
- P.M.k eskaera hau aurkezteko urratsa egin zuen, lege hau aurrera ateratzeko eta kasuak ebaluatzeko zeuden zailtasunak ezagutzen bazituen ere. Balorazio Batzorde honek P.M.ren kezka jasotzen du, “por todas aquellas personas que, al contrario que él, no pueden demostrar haber sido víctimas de torturas o víctimas mortales de violencia policial, así como su sentimiento de injusticia ante la disparidad de criterios a la hora de valorarlas, en comparación con los empleados con las víctimas del terrorismo de ETA”.
- Horregatik, ezin zuelako imajinatu horrelako zerbait gerta zekiokenik, Batzorde honi egindako eskaerarekin eta bere lekukotzarekin, J.R.k tortura desagerrarazten lagundu nahi du. Beharrezkotzat jotzen du iragan hurbilean gertatutakoa jendarteratzea eta publikoki aitortzea, horrelako gai larria ahaztuta ez geratzeko.
- J.M.E.R.k gertatutakoa salatu nahi du, eta jasota gera dadin beste indarkeria bat ere egon dela, Poliziak bereizi gabe baliatu zuena, eta ez bakarrik beraren aurka, beste asko ere izan baitziren gehiegikeria horien biktimak. Ez zen epaiketarik egin. Bera bezala, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek zauritu zituzten pertsona guztiak ere aitortu beharra dagoela berresten du.
- Batzorde honi egindako eskaerarekin, familiak ezagutarazi nahi du Poliziak oso indarkeria gogorra erabili zuela iraganean. Era berean, besteen eskubide berberak dituzten herritarrak diren aldetik, J.C. eta, berak bezala, ondorio larriak eragindako indarkeria poliziala jasan zutenak, biktimatzat aitortzea nahi dute.
- Batzorde honi egindako eskaerarekin, E.G.A.ren senideek ikusgarritasuna eman nahi diote beren kasuari, kontuan har ditzaten, eta E. biktimatzat aitortzeak.

dadin. Gertakaria argitu eta airean ez geratzea nahiko lukete, sumarioa bere garaian geratu zen bezala. Garai ilun hartan gertatu zen guztia ez ahaztea nahi dute.

- Balorazio Batzordearen aurrean, familiak adierazi du mina sentitu duela aitortzea jaso ez duelako: “...daños colaterales, porque no somos ni de un lado ni del otro, somos las del medio, las que nadie nos reconoce”.
- Esan du ez duela inoren barkamen-eskerik behar, baina Batzordearen aurrean emandako lekukotzarekin argi utzi nahi du gerra zikina egon zela eta GAL, Batallón Vasco Español, triple A eta abar sortzea pentsatu zuten arduradun politikoek erantzukizunak beren gain hartu beharko lituzketela.
- Batzorde honen aurrean egindako eskaera eta agerpenarekin, familia eskertuta dago entzun diotelako, eta, aldi berean, adierazten du C.S.C. terrorismoaren biktima gisa (hala izan baitzen) aitortua izatea nahi duela eta, hala, haren kasuaren testigantza Historiarako geratzea eta haren memoria ez galtzea.
- A.E.k positibotzat jotzen du Batzorde honen lana, baina zaila ikusten du memoria historikoaren elkarrekin eta giza eskubideen aldeko elkarrekin defendatzen dituzten egiaren, justiziaren eta erreparazioaren printzipioak bete ahal izatea. Haren ustez, Estatuak izan duen inpunitateak eta erantzukizun politikoa duten hainbeste pertsonaren inplikazioak zaildu egiten dute gertatutakoaren egia publikoki aitortzea eta errealitate horrek ondorio eraginkorrak izatea maila judizialean, eta horrek oso zailtzen du benetako erreparazioa.
- Batzordeari egindako eskaerarekin, J.L.S-ren anaiek, ahal den neurrian, kasuaren inguruko zigorgabetasuna amaitzea nahi dute. Entzunak izateko eman zaien aukera eskertu dute, eta anaia biktimatzat aitortzea nahi dute. Egiaren izenean, erantzuleek 1980ko urriaren 15ean benetan zer gertatu zen aitortzea nahi dute.
- Familiak adierazten du lasaiago sentitzen dela Batzorde honen aurrean agertu ondoren, eta eskertzen du entzuna sentitzea. Haien ustez, J.k biktima errugabe gisa aitortzea merezi du, hala izan baitzen. Beragatik egiten dute, eta berak bezala torturapean egindako autoerruztatzeen ondorioak jasan dituzten pertsonengatik. Pairatu zuten indarkeria instituzionalaren egia ezagutzea nahi dute, eta haien lekukotasuna bizikidetzara erakitze balioko duten beste askoren parte izatea.
- Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin, J.D.k ez du itxaropen handirik, baina eskerrak ematen ditu entzuna izan daitekeelako eta hori aurrerapauso bat delako biktimei erreparazioa emateko bide luzean.
- Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean emandako lekukotasunarekin, R.k jakitera eman nahi du herrialde honetan asko torturatu dela. Berak dio ezagutu dituela torturapean onartu baina egin ez dituzten delituengatik espetxeratutako pertsonak. Arduradunek benetan gertatu zena aitortzeko itxaropenik ez badu ere, jakitera eman nahi du Pasaiako Badian gertatu zena ez zela tiroketa bat izan, hilketa bat baizik.

- K.U.k eskerrak eman dizkio Batzorde honi entzuna izateko aukeragatik. Bere agerraldiarekin, herri honen historia hurbilean gertatu den guztiaren larritasunak jende askori eragindako mina eta sufrimendua ukatu gabe, gatazkan egondako gizarteko beste alderdi horri eragindako sufrimendua ere aitortzea nahi du; izan ere, Estatuak antolatutako eta egituratutako indarkeriaren biktimak izateagatik, ez da ohikoa izan haien mina komunikabideetan ikustea. Batzorde honi berarentzat ezer eskatzen ez badio ere, Gurutze Iantziri benetan gertatutakoaren beharrezko eta anbiguotasunik gabeko aitortza ematea nahi du, ziur baitago, berandu iritsita ere, haren familiarentzat erreparazio izugarria izango litzatekeela.
- Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin, F.k ez du itxaropen handirik. Izan ere, ikusita memoriaren aldeko elkarrekin ezin izan dutela ezer egin Billy el Niñok frankismo garaian egindako torturengatik, uste du are gutxiago egin ahal izango dela bere kasuan. *Erreparazio* hitza entzuten duenean, bere torturatzailaren ahots zakarraz oroitzen da. Ez du uste hura damututa egongo denik, eta, edonola ere, nahiz eta egunen batean barkamena eskatzera etorri, ez zaio iruditzen horrek ezer konponduko lukeenik. Batzorde honen lanari errespetua badio ere, egungo egoera politikoa kontuan hartuta, uste du erreparazio-politikak oso mugatuta daudela. Bere agerraldian jasota uzten du bere testigantza gauzak alda daitezkeela uste duelako eta, etorkizunean, torturaren erabilera sistematikoa izan dela onartuko delako, hori zaila, mingarria eta gogorra izan arren beren burua demokratizatzen dutenentzat.
- Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin, familiak eskertzen du entzuna izatea. Uste dute ezen horrela, agian, konpondu ez arren, neurri batean arindu ahal izango dutela hainbeste markatu zituen atentatu haren ondoren bizi izandako sufrimendua, zeina ia ez baitute aipatzerik izan 40 urtean. Diotenez, ezin izan dira biktima sentitu gurasoei izaera hori aldeztatik aitortu gabe. “Nola izango naiz biktima gurasoak biktimak ez badira?”. J.I. eta M.C. aurretiko bereizketarik eta baldintzarik gabe erakunde-mailan beste edozein biktima gisa aitortzea nahi dute, eta erreparatzailetzat jotzen dute.
- Eskaerarekin eta Batzorde honetan agertzearekin, J.I.J.k abusuaren biktima gisa aitortzea nahi du, eta bere testigantza jasota eta artxibatuta gera dadin, bere historia pertsonaleko orrialde hori pasatu ahal izateko.
- M.J.k eskerrak ematen dizkio Balorazio Batzorde honi berea eta antzeko kasuak entzuteko erakutsi duen interesagatik; izan ere, tortura fisiko larririk (poltsa, elektrodoak...) ez egoteagatik, ezker abertzalearen inguruneak berak ere gutxietsi ditu. Uste du zailtasun handia dagoela ondo neurtzeko zer ondorio uzten dituzten inkomunikazio-aldian eragindako tortura psikologikoen. Ondo daki tortura oraindik ere tabua dela tortura jasan zuten eta horri buruz hitz egin nahi ez duten pertsona askorentzat. Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin batera, M.J.J.k bere kasua jasota utzi du, atxiloketa askotan gertatu den torturaren errealitatea ezagutzera emateko asmoz. Atxiloketa horietan inkomunikatuta egondako pertsonak, errudunak izan zein ez, honako ideia honen pean egon dira: “bueno, pues sí... algo habrá hecho”. Torturaren kasuan, egia azaleratzea eta arduradunek eragindako kaltea onartzea gustatuko litzaioke.

- I.I.O.k nahi du, ETaren biktimekin egiten den bezala, indarkeria polizialaren biktimen sufrimendu-lekukotzak ere jasota geratzea, guztien begi-bistan eta eskura, gatazkan egondako urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan gertatutakoaren egia “osoaren” benetako dimentsioa ezagutu ahal izateko. Horregatik eskatu du biktima gisa aitortzea eta Batzorde honen aurrean agertzea.
- Gertatutako guztia gogoratzeak dakarzkion sufrimendua eta zailtasunak gorabehera, M.M.S.Ak bere testigantza partekatzen du torturaren errealitatea ezagutarazten laguntzeko asmoz. Militante askori eskatzen zaie aitortzeko eragindako mina; bada, tortura ukatzen dutenek ere erabili zutela aitortzea nahi du, berdin-berdin: “Si yo tengo que reconocer el daño que he hecho, no tengo ningún problema. Que ¿hay otras personas?... ¡Que lo reconozcan!”.
- J.T.E.k Batzordeari adierazi dio ezkorra dela tortura egin dutenek tortura sistematikoki erabili izana eta torturak eragindako kaltea publikoki aitortzeko aukerari buruz. “Yo no concibo que ellos reconozcan el daño que han causado”.
- Eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin, eragindako mina aitortzea nahi du U.A.k, sufrimendu hori ahaztu ez dadin eta gizarte hobearen eraikitze balio izan dezan. Haren ustez, beharrezkoa da eragindako min guztia, alde batetik zein bestetik etorritakoa, aitortzea, eta aitortza hori irakaspen gisa erabiltzea, noraino iritsi ginen ez ahazteko. Arlo pertsonalean, barruko bakea ere aurkitu nahi du.
- Batzorde honi egindako eskaerarekin, D.F.k nahi du berea bezalako kasuak, ezkutuan egon direnak, argitara ateratzea, gertatu direla jakin dadin. Era berean, bere agerraldian, une hartan jarri ez zuen tortura-salaketa ordaina nolabait jasotzeko aukera ikusten du.
- Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin, berari eta bera bezalako pertsona askori emandako tratu txarren zigorgabetasunaren berri izatea nahi du I.I.B.k, bere kasuak beste askoren adinako larritasuna izan ez zuela uste duen arren.
- K.M.S.k uste du beharrezkoa dela errealitate hori ere kontuan hartzea, beste errealitate batzuk deskribatu diren bezala. Batzorde honi egindako eskaerarekin, lortu nahi du aitortzea EAeko agintariek orduan ukatutako gertakari bat, eta Ertzaintzak eragindako torturaren biktima gisa aitortzeko eskatzen du, gertatutakoaren kontakizuna osoa izan dadin eta errealitatearekin bat etor dadin.
- E.O. kexu da; izan ere, denbora asko igaro eta haren aurkako karguak kendu ondoren, bere izenak ETari eta atxilotetaren eta espetxeratzaren inguruabarrei lotuta jarraitzen du webguneetan, izena bilatzaile batean sartzen duen edonoren eskura, eta hori guztiz bidegabekoa dela uste du. Hausnarketa sakon baten ondorioz, bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin, 1998an Arkauteko polizia-etxean bizi izan zuenaren garrantzi intimoa aintzat har dadin nahi du E.O.k. Gertakarien larritasun-maila alde batera utzita, eskatzaileak uste du Eusko Jaurlaritzako funtzionario publikoek eman zioten tratua ez zela izan ez bidezkoa, ez onargarria.

Garrantzitsua iruditzen zaio eta eskertzen du batzorde honek jasota uztea bere testigantza, eta espero du halakorik gehiago ez gertatzea.

- Batzorde honetan agertuta, gertatutakoa ezagutzera eman nahi du, beste pertsona askok ere indarkeria bidegabea jasan dutela jakin dadin.
- Batzorde honi egindako eskaerarekin, gertatutakoa jakin dadin nahi du J.F.L.k. Jendeak jakin dezala errugabeak ez zirela kaltetu ETaren ekintzetan soilik eta, aitzitik, terrorismoaren aurkako borrokaren testuinguruan, pertsona askori min handia eman zaiela, horietako asko errugabeak izan arren.
- Beharrezkotzat jotzen du torturen errealitatea argitara ateratzea, berea bezalako testigantzekin presioa eginez, ez bakarrik torturen praktika desagerrarazteko, baita biktimei gertatutakoaren egian oinarritutako aitortza justua eman ahal izateko ere. M.E.M.k adierazten du ezen, torturatutako pertsona gisa, berarentzat erreparazio handia izango litzatekeela egun batean Estatuak torturaren erabileraren bidez eragin duen sufrimendua aitortzea. “A partir de ese momento, consideraría que estoy realmente en paz con aquella situación sufrida”.
- Batzorde honetan agertuta, M.A.B.k jasota utzi du bere testigantza, etorkizunean egia osoa jakin dadin, ez soilik ETak eragindako indarkeriari dagokiona. Miguel Ángelek nahi du benetan zer gertatu zen jakitea, ez bakarrik berari zer gertatu zitzaion, baizik eta Euskal Herrian milaka pertsonari gertatutakoa, ETak egindako atentatuei buruz dakigun guztiari kontrajarrita. Azkenik, azken 50-60 urteetan aldi berean bizi izan diren bi errealitateetako bat ezagutaraztea nahi du, errealitate hori isilpean geratu baita orain arte.
- Bere eskaerarekin eta Balorazio Batzorde honetan agertzearekin, aitak jasandako torturak erregistratuta geratzea nahi du alabak. Aitak eta beste pertsona batzuek iraganeko praktika horiek salatu eta justizia egiteko izandako ezintasuna konpontzea da bai beraren bai haren familiaren nahia. Uste dute orain, Batzorde honen aurrean, egin daitekeela eta egin behar dutela.
- Ziur egon arren oso zaila dela berak benetan nahi duenari erantzuna ematea, J.E.B.k, Batzorde honen aurrean agertuta, jakinarazi nahi du hemen torturatu egin dela, eta bere ekarpena egin nahi du egia argitara atera dadin. Bere ezkortasuna adierazten du Estatuak eskubideen urraketak aitortzeko duen betebeharrari dagokionez: “El Estado español no va a reconocer que ha torturado, porque es echarse piedras en su propio...”.
- Batzorde honen aurrean agertuta, torturaren biktimak aitortzea eta errealitate hori ezkutatzeari uztea nahi du E.B.k, hau da, gezurtiak direla esateari uztea. Berariaz aitortu behar da baietz, Estatuko polizia-kidegoek urte askotan torturatu egin dutela. “¡Es lo único que se ha pedido, por lo menos, lo único que he pedido yo desde el minuto cero! ¡Yo no soy ninguna embustera! ¡A mí me han torturado y quiero que lo reconozcan!”.
- “Finalmente me dijeron a ver si les perdonaba... Todavía no he recibido respuesta a la pregunta con la que les contesté: a ver si se me darían ellos la mano después de que yo les hubiera tratado como ellos me trataron a mí. Les hice esa pregunta y nadie me contestó”. F.L.A. 1994.

- Batzorde honi egindako eskaerarekin, bere ekarpena egin nahi du, erakundeek ere torturaren biktimak beste indarkeria batzuen biktimekin alderatuta baztertzeari utz diezaioten. Onartezintzat jotzen du Poliziak bere jardunean izandako inpunitate instituzionala aitortu nahi ez izatea eta, gaur egun ere, tortura “indarkeria instituzionala” izan zela eta dela berariaz ez onartzea. Mehatxuak eta prozesua porrotera eramateko korporazio-ahaleginak gorabehera, haren kasua salbuespenezkoa izan zen, torturengatik epai judizial bat izan baitzen, baina, hala ere, ez zen zigorgabetasun horretatik kanpo geratu. Desgaikuntzak ezarri ziren arren, poliziek beren postuetan jarraitu zuten, eta ez zuten ordaindu epaian erabakitako kalte-ordaina. “El supremo ratificó la sentencia. Pues, ¡a éstos les da igual!, ¡esa es la impunidad que tienen! Es decir, tú crees que has ganado, que has dado testimonio, que has dicho...; que, al menos, servirá para algo...; se han reconocido judicialmente las torturas, que no se habían reconocido en cincuenta años... ¡Pues no sirve para nada!”
- Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin, J.J.k bere testigantza torturaren beste biktima batzuen lekukotzarekin batera jasotzea nahi du. Aitaren kamioia erre zutenekoa ere gogoan du, eta uste du justiziarik bada ordaina eman beharko litzaiokeela. Espainiako Gobernuak hemen torturari buruz gertatu dena ez dela anekdotikoa izan aitortzea nahi luke. Bidegabea iruditzen zaio, ETaren zeregin kritikagarria alde batera utzita, haren aktibistak betiko terroristatzat hartzea eta epaileak eta politikariak, berriz, “bizitza osoko demokratatzat”, gai horretan gertatzen ziren gehiegikeriak jakinda, gutxienez beste aldera begiratu zuten arren. Torturengatik kondena jarrita bukatutako salaketan kasuan ere, gerora emandako indultuen ondorioz ez da benetako justiziarik izan.
- P.P.A.k eskerrak eman dizkio Batzorde honi beronen aurrean agertzeko eta entzuna izateko aukeragatik. Haren mina kontuan hartzea nahi du, herri honetan jasandako sufrimenduaren dimentsioa baloratzerakoan.
- Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin, EAK dio lasaitua sentitzen dela hainbat urtetan zehar saihestu eta lurperatutako gertakarien berri emateko aukera izan duelako. Erreparaziorako eta mendekurako asmorik gabe, Estatuak tortura sistematikoki erabili zuela aitortzea baino ez du nahi, ETAko aktibistei ez ezik, “gatazkarekin” nolabaiteko harremana zuen orori ere informazioa ateratzeko metodo gisa.
- Euskal Herriko Unibertsitateak, Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, EAEn tortura-kasurik eta lekukotasunak biltzeko egindako lana positiboki baloratu ondoren, beharrezkoa baita gai hori ezagutu eta zabaltzeko, eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin, R.E.A.k ez du zigor-arloko prozesamendurik nahi modu horretan jardun zutenentzat; torturaren errealitatea estaltzeko erabili den geruza iluna altxatzea baino ez du nahi; izan ere, legez kanpokoa izan arren, Estatuak botere-tresna gisa erabili du, eta inoiz ez du hori aitortu nahi izan. Beharrezkotzat jotzen du errealitate horren aitortpen politikoa, berari bezala, pertsona askori eragin baitzien.
- Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin, M.A.O.k jakinarazi nahi du zer gertatu den Euskadin: Poliziak pertsona askori egindako torturak eta bestelako tratu txarrak. Galdera hauek egiten ditu: Nork babesten gaitu gu? Nork ziurtatzen dizu edozein egunetan ez direla berriz

sartuko etxean? Horregatik, uste du garrantzitsua dela bere lekukotzarekin egia ezagutzera ematea, berriro gerta ez dadin.

- Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean emandako lekukotasunarekin, sinesgarritasuna eman nahi dio torturaren errealitate ukatuari, eta erabilitako praktika bat zela aitortzen.
- Batzorde honen aurrean agertuta, I.A.G.k konpentsatu egin nahi du, neurri batean, gauzak ondo egin ez izanaren sententzia, tortura-gertakariak lehenago ez salatzeagatik. Orain aukera dauka, eta jasota uzten du, ezen, bera bezala, milaka pertsona izan direla funtzionario publikoek eragindako tortura sistematikoaren biktimak, arma gisa erabili baita pertsonak fisikoki eta psikikoki menderatzeko eta hondoratzeko.
- I.I.S.k, bere bizitzako gertakari mingarri hura batzorde honen aurrean oroitzeko zaila egin zaion arren, helburu batek bultzatuta egin du: euskal erakundeek, baita Espainiakoek ere, onartzea tortura egin dela, herrialde honetako herritar askok urteetan zehar izandako sufrimenduari dagokionez beste alde batera begiratu dutela eta hamarkadetan biktimak horiek alde batera utzi dituztela. Haren beharra eta nahia da bizi izan zuenaren neurriko gertakari latz eta larri hura ofizialki aitortze eta erreparazioa ematea.
- Bere eskaerarekin eta Batzorde honen aurrean agertzearekin, J.U.G.k zinez eskertzen du entzuna izateko aukera. Funtsezkotzat jotzen du justifikaziori gabeko polizia-indarkeria baten biktimak dela aitortzea, eta polizia-fitxategietatik desagertzea kale borrokarekin zerikusia duen edozein lotura. Haren ustez, laguntza psikologikoa gertaera haren ondorioak gainditzen lagun diezaike. Gainera, adierazten du erreparazio handia izango litzatekeela berarentzat kolpatu zutenek bidegabekeria hori aitortzea; izan ere, berak ez zuen inoiz horretarako arrazoirik eman, ez baitzuen indarkeriaz jokatu. Haren ustez, beharrezkoa da gogoeta egitea ezer txarrik egiten ez zuten herritarrek tentsio-uneetan bortizki erreprimitzera eramaten dituzten erabakiei buruz.
- Eskaerarekin eta batzorde honen aurrean agertzearekin, P.A.G.k lortu nahi du zigorgabetasuna amaitzea eta justizia egitea torturen biktimak guztientzat, bereziki berak bizi izandakoak baino tortura larriagoak eta gogorragoak jasan zituztenentzat.
- J.U.L.k adierazten du ez duela espero, ezta nahi ere, bere torturatzaileak epaitu eta kondenatzea; hala ere, nahi luke egunen batean haien lekukotasuna jasotzea, torturatu zutela aitortzea eta horretarako erabilitako teknikak eta metodoak azaltzea, baita zergatik egiten zuten argitzea ere. Horrela errazago irekiko litzukete begiak sinesten ez dutenek, hainbeste denboran polizia-etxeetan gertatu dena imajinatu ere egiten ez dutenek.
- Batzorde honen aurrean agertuta, J.A.S.G.k jasandako torturen testigantza utzi nahi du; izan ere, funtsezkotzat jotzen du hurrengo belaunaldiak horren berri izan dezaten. Haren ustez, hainbeste pertsonak pairatutakoak ikasgeletan nahitaez ikasi beharreko gaia izan beharko luke. Berarentzat garrantzitsua da torturaren biktimen sufrimenduaren memoria gordetzea, milaka izan baitziren, eta batzorde honi adierazi dio zer ekarri zion gogora

Gobernu Zibilaren Donostiako eraikina kultur etxe bihurtzeko aukeraz hitz egiten entzuteak: “En los sótanos hay unas celdas, que las dejen como visitable en recuerdo y en memoria de toda la gente que habremos pasado por ahí. Las cientos y miles de personas que habremos pasado por esos calabozos...”.

Egindako eskaerarekin eta Batzordeari emandako lekukotzarekin, E.L.Q.k, biktimaren iloba den aldetik, memoria gordetzeaz gain, gertatutakoaren egia argi eta garbi azaltzea nahi du, eta inplikaturako agintariak eta erakundeak hori onartzea. Kasu honetan, gainera, beharrezkoa da identifikatze zer erantzukizun dagoen eta zer erreparazio dagokion berme-betebeharretik sortzen diren eginbehar nagusietako bat ez betetzeagatik; beraz, baliabide erabilgarri bat eman behar da, eta alegaturako eskubide-urraketak behar bezala ikertu, betiere torturatzat eta tratatu txartzat har daitezkeela pentsatzeko arrazoiak badaude.

- Batzorde honetara agertzearekin eta eskaerarekin, G.M.M.k bere minaren ordaina jaso nahi du, neurri batean, eta jasandako sufrimenduaren eta beste pertsona askoren egia aitortu dadin. “No espero nada. Solo eso, que es verdad. Solo quiero eso. Y, que se sepa que no somos malas personas”.

5. Auzitegiko psikologiaren eta medikuntzaren ikuspegia:

5.1 Auzitegiko peritu psikologiko eta medikuek aztertu eta ebatzitako kasuen zerrenda kuantitatibo eta kualitatiboa

Kasuak, guztira: 93 kasu, honela banatuta: 2 lehenengo aldi berezian (LAB); 16 bigarren aldi berezian (BAB), eta 75 ohiko aldian (OA).

Giza eskubideen urraketa motaren arabera:

LAB:

- 2, kasu 1 su-armaz hiltzeagatik eta beste kasu bat zehaztu gabeko hilketagatik.

BAB:

- torturen/tratu txarren 16 kasu.

OA:

- torturen/tratu txarren 63 kasu.
- suzko armaz hildakoen 4 kasu, 4 zauritu.
- 2 gomazko pilotak jota
- 2 elbarri bonbak jota

Sekuelekin:

- 10 kasu sekuela fisikoekin
- 48 kasu sekuela psikikoekin.
- Kasu 1 sekuela fisiko et psikikoekin.

Puntuazio handiko hiru kasu izan dira sekuela fisikoengatik, eta hamahiru ondorio psikologiko larriengatik. Peritu-taldearen eta batzordearen osoko bilkuraren iritziz, puntuazioa merezi zuten sekuela psikiko gehienak 5 puntuakoak izan dira iraunkorra ez den baina pertsonaren bizitzako denbora esanguratsuan eragin duen trauma osteko estresaren nahasmenduagatik (47 kasu).

5.2 Peritu-taldean izandako ondorioak eta aldaketak

Peritu-taldearen funtzionamenduan ohikoa da jada pertsonen aldeko ikuspegia aplikatzea, giza eskubideen berme eraginkorrari begira. Legean aitortutako eskubideak hobeto babesteko, kalte-ordainetarako gutxieneko lurzorua igo egiten da, trauma osteko estresaren nahasmenduaren maila ertainaren 5 puntura, beren testigantza ematera etortzen direnen kasu batzuetan.

Aurten, aldaketa bat egin da peritu-taldearen txostenaren ereduan, zeina irizpenari erantsita baitoa. Metodologia berrirako trantsizioko jardun-urtea izan da, Istanbulgo Protokoloaren kategoriak erabiliz txostenetan, tortura-metodoen nomenklatura bateratzeko helburuarekin. Eredu berri horrek beste ikuspegi batzuetan sakontzeko

aukera ematen du, nazioarteko adituen gomendioetan oinarrituta (erreferentzia: Pau Pérez, Istanbulgo Protokoloa). Halaber, ahalegin handiak egin dira kalte morala modu egokiagoan kudeatzeko, lege-esparrua (12/2016 Legea) mugatua baita.

Funtsezko beste elementu bat Peritu Taldeko fakultatiboen, medikuen eta psikologoek zailtasunak, aldaketak eta eskasia izan dira, eragin handia izan baitute jardun-urte honetan, etorkizunean Balorazio Batzordearen lana baldintzatu baitezakete.

III. Gomendioak

Urteko laugarren txostena da, eta legegintzaldi-aldaketa baten aurrean –Legebiltzarra eta Betearazlea berrituta–, aurreko urteko gomendioen balantzea egiteko unea da, eta, neurri batean, aurreko legealdi osoarena (2021, 2022 eta 2023ko txostenak), orduan hasi baitzen Batzorde honen benetako lana eta haren kontu-ematea.

Urtetik urtera egin diren gomendioen egitura dagoeneko finkatut dagoen eskema baten arabera da. Beraz, jarraian, puntu bakar eta bateratu batean aurkezten ditugu, alde batetik, orain arte egindako gomendioen betearazpen-balantzea, eta, bestetik, legealdien arteko trantsiziourte honetan, proposamen berrien formulazioa, datorren jardun-urteari begira ez ezik, lana amaitzeko 12/2016 Legearen bidez agindutako denbora-muga ere kontuan hartuta. Izan ere, batzorde honek uste du egiteke dagoen lana legealdi honetan zehar amaitu daitekeela (edo amaitu beharko litzatekeela). Baina, horretarako, ezinbestekoa eta premiazkoa izango da gomendio hauek kontuan hartzea:

1. Urteroko aitortza-ekitaldi instituzionala.

Batzordea pozik dago Eusko Jaurlaritzak 2021., 2022. eta 2023. urteetan egindako aitortza-ekitaldiekin. Hala ere, egiaztatzen du urteroko aitortzaekitaldiak hasieratik “maila goreneko” formatua izatea iradoki zela, erreparatzeko, justizia egiteko eta etorkizunean ez errepikatzeko ahalegina egiten den giza eskubideen urraketa motari dagokion moduan. Alde horretatik, Batzordeak uste du oraindik ere badagoela tarte bat ekitaldi hori eraginkorragoa izan dadin dagokion eginkizunean, bai aurten egingo dena bai hurrengo ekitaldietakoa.

2. Legebiltzarraren kontrola eta bultzada.

Aurreko legegintzaldian, legean ezarritakoari jarraikiz, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeak jarduerari buruzko nahitaezko txostenak jaso ditu. Oso positibotzat jotzen da Batzordean ulermen-, enpatia- eta lankidetzagiroa jaso izana bertan dauden legebiltzar-taldean aldetik. Hala ere, Balorazio Batzordeak Legebiltzarraren inplikazio handiagoa eskatu izan du legearen xede diren giza eskubideen urraketan errealitate lazgarria ezagutarazteko. Batzordeak egiaztatu duenez, oraindik erabiltzeke egon daiteke Legebiltzarreko batzorde txostengile bat eratzeko aukera, gai honetan laguntzeko politikak modu proaktiboagoan bultzatzen laguntzeko, kontrolerako legebiltzar-tresna horrek ondorio horietarako emango lukeen espezifikotasun baliatuz.

3. Lege-erreforma.

Batzordeak lau urte daramatza lanean, eta oraindik ere ikusten jarraitzen du 12/2016 Legea berrikustea eta alderdi zehatz batzuk aldatzea komeni dela. Balorazio Batzordearen pertzepzio hori, gainera, endosatu egin zen eta bere egin zuen iazko (2023) txostena aurkeztu ondorengo eztabaidak. Orain, legebiltzar-urtea hasten denean, erabaki irmoa hartzeko unea da, erreforma hori eraginkortasunez eta arrakasta bermatuta bultzatu nahi bada.

Jarraian zehaztuko dugun bezala, lege-erreforma hori premiazkoa da gaur egungo testuak eragotzi egiten duelako biktimatzat hartutako pertsona batzuek arauaren efektu egokiak jasotzea; hortaz, Batzorde honek honako aldaketa hauek proposatzen ditu:

3.1. Kalte-ordainak

12/2016 Legearen gabezia nagusietako bat aurreikusitako kalte-ordainen sistemari dagokio. Batzorde honen ustez, premiaz aldatu behar da sistema hori, egunerokotasunean hartu behar ditugun erabakiei eragiten dielako. Lehenik eta behin, sistema horrek, oinarrian, ez du bat egiten biktimen errealitatearekin, ezta nozitu zituzten urraketen etiologiarekin ere. Eta, bigarrenik, batez ere 9.2.f) artikulua (baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorreatatik konpentsazioak) eta 9.3 artikulua (konpentsazio ekonomikorik ez tratu txar larriak zein lesio iraunkorrak jasan dituztenentzat) bistako bidegabekeriak sorrarazten dituzte, kalte-ordainik ez jasotzea edo kalteordain benetan barregarria –kalte-ordain izena ere ez hartzeko modukoa– jasotzea eragiten baitute. Egiaztatzen ari gara askotariko sufrimendu fisiko eta psikikoak daudela, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak ere askotarikoak izan daitezkeela eta ondoriook bizi-proiektuan eta kalitatean dituzten inpaktuak askotarikoak direla: kasuistika hain da zabala, konplexua eta larria, ezen, gertakarietatik igarotako denbora luzea gaineratuta, lege-esparruan distortsio nabariak sortzen baitira. Premiazkoa eta beharrezkoa da 9. artikulua aldatzea. Zehazki, indargabetu egin behar da tratu txarren eta torturen kasuetan kalte-ordainik ez jasotzeko aukera egotea, eta, lesioen kasuetan, kalte-ordainak emateko aukerak aberastu eta malgutu behar dira, lesiook iraunkorrak izan zein ez. Horrek barnean hartu behar du, halaber, hausnarketa eta formula bat, defentsa-gabeziaren kasuan kalte-ordainak ere behar bezala modulatzeko.

3.2. Eremu materiala, denbora-eremua, prozedurazko alderdiak eta alderdi organikoak

Beste alderdi batzuk hobetu daitezke, edo doikuntza teknikoaren beharra dute. Zorrotzegiak izan gabe, komeni da honako aldaketa hauek aipatzea: legearen denbora-eremua zabaltzea; osoko bilkuraren eraketa eta funtzionamendua doitzeko, kide anitzeko organoaren eraketa arinagoa eta malguagoa izan dadin, lan egiteko ahalmena kualitatiboki areagotze aldera; eduki batzuk memoria historiko eta demokratikoari buruzko araudi autonomiko eta estatalarekin koordinatzea; biktimen elkarteek eta antolakundeek 12/2016 Legearen babespean eskaerak egiteko duten legitimazio aktiboari bide ematea, eta, azkenik, etorkizunean, jardun-eremua bizitzari edo osotasunari buruzko beste urraketa batzuetara hedatzea, bat etorrita Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen progresibitate-printzipioarekin.

Halaber, adierazi beharra dugu, Batzordeak halaxe egiaztatu baitu, gure lanak konfiantza sorrarazi duela dena delakoagatik 12/2016 Legearen prozesura epe barruan jo ez zuten edo jo ezin izan zuten biktima askorengan. Txostenaren sarreran jasotzen denez, ohiko aldia jasotako 1.027 eskaeretatik 64 epez kanpo sartu dira. Batzordearen lana gidatzen duen biktimen aldeko ikuspegitik abiatuta, Eusko Legebiltzarrari proposatzen diogu beste epe bat zabaldu dezala eskaerak aurkezteko.

Alderdi horiek, dudarik gabe, abiapuntu bat ezar lezakete, Legebiltzarra lege-erreforma bat prestatzen hasi ahal izan dadin.

4. Batzordearen lanak zabaltzea: egia jakiteko eskubidea

Lau urte igaro ondoren, premiazkoa da 12/2016 Legearen helburuak jendeari jakinaraztea, eta, bereziki, Balorazio Batzordearen lanaren emaitzak (urteko txostenak).

“Ez errepikatzeke bermeen” esanahiak berak neurri espezifikoak hartzea dakar (neurri legalak, judizialak, instituzionalak eta giza eskubideak sustatu eta giza eskubideetan heztekoak), neurriok lagundu egin behar baitute etorkizunean giza eskubideen urraketak saihesten, kultura demokratikoa indartze aldera.

4.1. Txostenak bidaltzea

Xede horiexekin, argitaratu egin beharko lirateke (formatu digitalean eta paperean, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) Batzordeak Legebiltzarrari urtero bidali behar dizkion txostenak, Gogora institutuan gordetzeaz gainera, aurkeztu ondoren, sistematikoki eta masiboki bidal dakizkien Euskal Autonomia Erkidegoko arku instituzional osoari, Estatu osoko erakundeei eta lanok baliagarri gerta ahal zaizkien agente politiko, sozial, sindikal, hezitzaile edo bestelakoei. Biktima horien errealitateak ezkutuan jarraitzen du, azalertzeko zailtasun handiekin. Uste dugu beharrezkoa dela Legebiltzarrak ahalik eta zabalkunde handiena ematea txostenei, ahalik eta pertsona eta erakunde gehienengana iritsi ahal izateko, formatu idatziaren, ikus-entzunezkoaren eta abarren bidez. Halaber, horrek esan nahi du txostena eskatzaile guztiei bidali behar zaiela, eta ez espedientea jada ebatzita dutenei bakarrik. Hedapen-lan hori eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da Legebiltzarrak laguntzea.

Gaur arte, iazko txostenean berriro oso modu enfatikoan jaso bazen ere, txostenak ez dira iradokitako moduan bidali. Aurten, beraz, lehenengo lau txostenak batera banatzea gomendatzen da, eta batzorde honek, edo eskumena duenak, Eusko Jaurlaritzari (Giza Eskubideen arloko zuzendaritza eskuduna) manamendua ematea lan hori egin dezan.

4.2. Nazioarteko mintegia

Era berean, ez da aintzat hartu iaz egin genuen proposamena, hau da, nazioarteko mintegi bat egitea, lege-mekanismo hori eta biktimen aitortzaren egungo egoera ezagutarazteko, Giza Eskubideen Batzordeak berak (Eusko Legebiltzarrak) eta Eusko Jaurlaritzak zuzenean bultzatuta, Balorazio Batzordearen eta biktimen erakundeen partaidetzarekin. Biltzar horrek asko lagunduko luke hizpide dugun errealitatea Espainiar Estatu osoan jendarteratzen, baita biktimen errealitatea ikusgai egiten ere, bat etorrita Europako eta nazioarteko egitasmo eta jarduera onekin. Biltzarrak, gainera, 12/2016 Legea aldatzeko eztabaida teknikoak hasteko balio lezake, dagokion gomendioan iradokitakoaren ildoan. Aurten, beraz, berriro egiten dugu gomendio hori.

5. Baliabideen hornidura

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak Legebiltzarrari azken txostena aurkeztu zionetik (2023), oso erantzun ona eman zaie komunikabideen eskaerei. Beren ahaleginari eta jardunbide egokiari esker, partida ekonomiko batzuk igo egin dira, eta zeregin horietan diharduten funtzionarioen

kopurua ere handitu da. Nolanahi ere, legezko enkargua legealdi honetan amaitu nahi bada, konpondu ez diren egiturazko defizi batzuk daude, nahiz eta behin eta berriz erreklamatu diren Balorazio Batzordea eratu zenetik. Eskaerak honako hauek dira:

5.1 Auzitegiko medikuak (eta psikologoak)

Forentse-talderik gabe Batzordea gelditu egingo litzateke, haren irizpenak nahitaezkoak baitira espediente bakoitzean. Justizia Administrazioari Zuzendaritzak eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak ez dute aitortu haien lan-karga ikaragarria, bileren ordu presentzialei dagokiena izan ezik, eta hori ulergaitza da jada. Irizpen horiek egiteak –ez jada osoko bilkuran defendatzeak– dakarren ordu-karga gutzia ez da aitortzen, ez ordutegiaren ondorioetarako ezta ordainsari ekonomiko gisa ere. Auzitegiko medikuek eta psikologoek ia 4 urte eman dituzte modu eredugarrian lan egiten, emaitza bikainekin, eta doan lan egiten dute, lanetik kanpoko denbora aparteko ardurarekin eta eskuzabaltasunarekin eskainiz. Baina egoera jasanezina da. Duela lau urte benetako lana hasi zenetik, arazo horren berri eman izan da. Denbora agortu egin da. Administrazioaren legezko aginduz, betebeharrak bat da lan horretarako bidezko bitartekoak eta lan baldintzak ematea, eta ezin da eskatu boluntariotza bat balitz bezala egitea: ez da ez serioa, ez duina, ez onargarria. Izan ere, une honetan, bete ezin diren baja batzuk daude auzitegiko medikuen taldean, eta lanean ari direnek adierazi dute 2024ko ekainaren 30etik aurrera ezin izango dutela gehiago lan egin egoera horretan. Txosten hau Eusko Legebiltzarrerera helarazten denean egoera behar bezala konpondu ez bada, dokumentu honek gure jardura gelditu izanaren notario-akta gisa balioko du, eta Legebiltzarraren laguntza beharko da legea bete eta Jaurlearitzak arazoa aitzakiarik eta luzamendurik gabe konpon dezan eskatzeko.

5.2. Idazkaritza teknikoa

Une honetan bi pertsona daude, Administrazioari funtzionarioak, Idazkaritza Teknikoan soilik aritzen direnak. Lan bererako beste pertsona bat beharko litzateke, gutxienez. Era berean, ezinbestekoa da Batzordearen egungo titularraren ordezkari tekniko bat izendatzea, haren legezko presentzia bideragarria eta iraunkorra izan dadin izapideetan eta osoko bilkuretan (gero eta gehiago dira, eta are gehiago izan beharko dute lana bizkortuko bada), haren lan-eskubideekin eta lan-baldintza duinekin bateratzeko moduan. Giza Eskubideetan eskumena duen Zuzendaritzak, halaber, funts ekonomiko gehiagorekin hornitu beharko litzateke Balorazio Batzordearentzat lan egiten duten kanpoko laguntza-erakundeekiko hitzarmenak eta/edo kontratuak (espedienteen aurretiazko instrukzioa, aholkularitza juridikoa, lekukotzen grabazioak...): gehikuntza hori gabe ezinezkoa izango da kontratatutako giza baliabideen eta baliabide materialen benetako zuzkidura mantentzea, are gutxiago handitzea, orain arte esparru juridiko horretan lan egin baitute.

5.3. Justizia Administrazioarekiko lankidetzaren informazio-trukea

Egiteke geratu da lotura-mekanismo arin baten diseinua, Justizia Administrazioarekin lankidetzan aritzea eta informazioa trukatzeko errazteko. Horretarako, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak Balorazio Batzorde honentzako solaskidetzaren eraginkor eta espezifiko bat identifikatu eta ezartzea proposatzen dugu, informazio judizialaren eskaerak egiten eta, hala badagokio, eskuratzen laguntzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 18a